



ttipi-ttapa



Zilarrezko bi domina Espainiako pistako txapelketan

Irati OTXOTEKO → 51

2012ko maiatzaren 3a | XXXII. urtea | 565. zenbakia

www.ttipi.net

Herriko bestak
Urdazubi eta Irurita

ARANTZA → 22-51
Mendi Itzulia
maiatzaren 20an

DONEZTEBE → 28
Udaberriko feria
maiatzaren 4an

GOIZUETA → 39
Aspaldiko partez herri
krosa maiatzaren 27an

SARA → 49
Urrats gaua
maiatzaren 12an



Gemma SANGINÉS | Kirol psikologoa eta eta hizkuntz jokabideetan aditua

«Solaskideak erdaraz egiteko exijitzen digunean, normalean, kontua ez da ulertzea edo ez, dominatzea baizik»

Baliabide psikolinguistikoak eta teknika bereziak lantzen dituzte Valentziako Unibertsitateko Gemma Sanginés eta Ferran Suay psikologoek hizkuntza menpekotasuna saihesteko. Berriki, gai honen inguruko hitzaldi-ikastaroak eman ditu Gemma Sanginésék Beran eta Elizondon. **ERREPORTAJEA → 4-5**



Azkeneko urteotan Baztanen herriz herri egin duten lanari esker hasiak dira emaitzak ikusten. Pixkanaka jendea ari da kontzientzia hartzen eta ikasten hobe dela maldan beheiti erretzea alderantziz baino.

ELKARRIZKETA → 3

Aitor BAZTERRIKA | Baztango mendizaina


Sasiak erretzeko baimena izateaz gain, nola egin jakin behar da

HAUR ESKOLAK | Mobilizazioak aste honetan



Haur Eskolen baldintzak okertuko direla salatzen dute

Elkarrateratzeak egiten ari dira Nafarroa osoan. Hemen inguruan, Elizondon maiatzaren 2an, eta Beran eta Donezteben maiatzaren 3an. **→ 42**



ZOKKETAK → 35



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra**

BERA AGENDA MAIATZA

Ekitaldien gehiago informazio gehiago:
012 telefononon www.berakoudala.net

**BERAKO ABESBATZA
XXV. urteurrena**
Kontzertua eta CDaren aurkezpena
19:30 - Kultur Etxean

5

larunbata

MUSIKA ESKOLAKO ENTZUNAIKIDIAK

Antolatzailea: Isidoré Fagoaga Udol Musika Eskola

Klarinete - Saxo - Tronpota

18:00 - Musika eskolan

15

asteartea

14

astelehena

SOLASALDIA :
Etxe zerbitzuaren kontratazio berriak (Etxe zerbitzuaren Logo Berria)
Transtitak, ipomuga, Gizarte Segurantzako kuota, ardurariak, betabeharrik, kalte-ordainak, etab.

19:00 - Beralandetan - Antolatzailea: Bortzirietako Dimarrizka Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

16

asteazkena

Biolino

18:00 - Musika eskolan

Trikitixa eta akordeoia

18:00 - Musika eskolan

22

asteartea

23

asteazkena

Perkusioa

17:30 - Musika eskolan

Gitarra

18:30 - Musika eskolan

24

asteazkena

19

larunbata

ANTZERKIA:
Gure bide galduek
(Dejatu taldea)

22:00 - Kultur Etxean

Sarrera: 6€

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak: Berako Kultur Batzordea



29

asteartea

Pianoa

18:00 - Musika eskolan

Txistu

18:30 - Musika eskolan

30

asteazkena

ANTZERKIA:

Susanaren iraultza
(Uhartan Antzerki Taldea)

19:00 - Beralandetan - Sarrera: 3€

Antolatzaileak: Bortzirietako Berdintasan Arloa eta Berako Kultur Batzordea

27

igandea



Mundu guztiak ikusteko!

Kontzertuak | Herriko bestak | Txapelketak | Komertzioak...

100 KARTEL 93€*

(A3 koloretan)

250 KARTEL 110€*


(A3 koloretan)

* BEZ gabe (%18)

Prezioan sartua dago diseinua, inprenta eta garraioa.

Epea 10 egun.

Prezio hauek babo dute 2012ko maiatzaren 30era arte

 ttipi-ttapa

Anduetzeta, 12 ETXALAR | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com

Sute kontrolatuetan puntu beltza izatetik, eredugarri izatera pasatu da Baztan. Hala dio batek baino gehiagok. Aurtengo neguko suteen kontrako kanpaina ere arras ongi joan da

Baztanen eta datu historikoak lortu dituzte. Xehetasun gehiago Aitor Bazterrikak eman dizkigu, 2000az geroztik Baztango udaleko basozaina denak. Iaz Espainiako Ministerioak

EPRIF Baso Suteen Aurkako Taldeari emandako sariaren bidetik, aurten Urrezko Intsignia eman diote Bazterrikari, suteen kontra herri-tarrak sentsibilizatzeko egindako lanagatik.

Aitor BAZTERRIKA | Baztango udaleko basozaina

«Erreketak egiten badakiela uste du jendeak baina arras gutik dakite»

G. PIKABEA

Urte hauetan zer aldatu da mendiko suteen aferan Baztanen?

Urte andana baditugu lanean, baina emaitza onak azkeneko bi urteotan lortu ditugu. Gan den urtean, Baztanen kuartelka bilerak egitea pentsatu genuen. Bilera horietan jendeak gauzak aitzinera ateratzeko eta gauzak behar bezala egiteko interes handia zuela ikusi genuen. Laguntza eskainiz kanpaina bat egin genuen eta denborak ere aunitz lagundu zigun eta erreketak aunitz egin ziren. Jendea arras kontent gelditu zen. Aurten helburua suteetara jende gehiago etortzea zen eta helburu hori erraz bete dugu. Eguraldiak ere lagundu digu eta konpromiso gehiegi bagenituen ere, ia denak bete ditugu. **Zer moduz joan da aurtengo kanpaina?**

Baztanen, EPRIF taldearen eta suhiltzaileen laguntzarekin, 22 egunez 32 erreketetan parte hartu dugu eta guztira 276,4 hektarea erre ditugu. Erreketak hauek bigarren eta hirugarren mailakoak izan ohi dira, lehen mailakoak errezoagoak dira eta nekazariak beraiek egiteko uzten dira. Hortaz aparte, nekazariak beraien kabuz, 37 erreketak gehiago egin dituzte, guztira 132 hektarea erre. Datu historikoak dira, 400 hekta-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Aitor Bazterrika basozaina Urrezko Intsignia eskuetan duela.

rea pasata erre dira eta denak baimenduta. Baina bertetik, iaz baimendu gabeko lau sute bakarrik izan ziren eta aurten hogeit bat izan dira, nahiz eta erre dena ez den interes handikoa izan, gehiena larrea izan baita. Beraz, aurtengo kanpaina-tik bi afera aipa daitezke: batetik, nekazarien parte-hartzea haundiagoa izan dela eta erreketak kontrolatu gehiago egin direla. Eta bertetik, baimenik gabeko erreketak egin direla. Hor finkatu behar dugu heldu den urteko lana. Aurten ez da inor harrapatu erretzen, baina heldu den urtean kontrol gehiago izanen dira.

2012KO KANPAINA

«EPRIF taldearen eta suhiltzaileen laguntzarekin, 22 egunez 32 erreketetan parte hartu dugu eta guztira 276,4 hektarea erre ditugu. Hortaz aparte, nekazariak beraien kabuz, 37 erreketak gehiago egin dituzte, guztira 132 hektarea erre. Datu historikoak dira, 400 hektarea pasata erre dira eta denak baimenduta. Baina bertetik, iaz baimendu gabeko lau sute bakarrik izan ziren eta aurten, hogeit bat izan dira»

Baimenik gabe erretzen duenak zigorra izanen du. Su eman eta ihes egiten duenak badaki suak erre nahi dena eta nahi ez dena erreko duela.

Jendea kontzientziatua dago suteak nola egin behar diren?


Kontzientziatzen ari da, baina Udalak, EPRIF taldeak eta suhiltzaileek laguntza ematen dutelako. Erreketak nola egin behar diren erakusten ere ari gara. Jendeak erreketak egiten badakiela uste duen arren, behar bezala erretzen gutik dakite. Guk maldan beheiti erretzen dugu eta jendeak alderantziz erretzeko ohitura du. Goitik beheiti

erretzeko denbora gehiago behar da baina emaitzak arras hobek dira. **Zer egin behar da kontrolatutako sutea egiteko?**

Lehendabiziko baimena eskatu behar da. Urtehasieran eskaerak hartzen ditugu eta basogintza eta nekazaritza aldetik, hektarea aunitz dituzten kontuan hartuz, arrisku maila ikusiz, landaketak badauden edo etxebizitzak arriskuan dauden ikusiz, zerrenda bat egiten dugu. Zerrenda hori kontuan hartuz antolatzen dira erreketak, arrisksuenetik arrisku txikienera. Eguraldiak laguntzen duen guztia egiten da kanpaina akitu arte. Gisa berean, erreketan guttienez borts nekazariak egon behar dute, udaletxetik batek edo bik, EPRIFekoak erreketaren arabera (lan handiarekin gehiago) eta lauzpaborts suhiltzaile. Nafarroako Gobernutik ematen dute baimena, suhiltzaileek egun horretan erre daitekeen ala ez erraten dute eta sutea hasi aitzinetik zein paraje erre behar den jakinarazi behar da eta erreketak akitzean ere abisua eman behar da.

Zer gehituko zenuke?

Inguruko bailarek Baztan eredu izan beharko lukete eta lanean hasi, mendia denona delako. Gure esperientzaren berri emateko prest gaude.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Semaforoaren kodearen bitartez, egoera bakoitzerako irtenbideak proposatzen ditu Gemma Sanginesek.

EUSKARAZ ARITZEKO AHOLKUAK → GEMMA SANGINES PSIKOLOGOAREN ESKUTIK

«Semaforoa berdean edo horian baldin badago euskaraz egin eta gorrian dagoenean zuk erabaki»

Semaforoaren kodearen bitartez, euskaraz naturaltasunez aritzeko aholkuak eman dizkigu

Dendariak, medikuak edo lankideak euskaraz ez dakielako gaztelaniaz egin beharra, ezezagun batekin gaztelaniaz hasi eta gero konturatu euskaraz badakiela... Euskal-

dunak egoera deseroso frankorekin egiten du topo egunerokoan. Bada egoera horietan zer egin jakiteko, euskaraz egiteko baliabideak landu ditu Gemma Sangines psikologoak.

G. PIKABEA

Euskaraz noiznahi eta nonahi eroso aritzea. Horixe da TELP saioren-Tailer D'Espai Lingüístic Personal edo Norbanakoaren Hizkuntz Espa-

zioaren Tailerra- helburua. Izan ere, euskaldun hiztunak maiz izaten dituzte egoera deserosoak egunerokoan: zenbat aldiz gertatu ote zaigu elkarrizketa bat euskaraz

hasi eta gaztelaniaz hitz eginez bukatzea solaskideak hartara eraman gaituelako?, lantokian euskaraz ez dakien lankide batengatik gaztelaniaz hitz egin behar iza-

tea, lagunartean euskaraz ez dakien norbait dagoelako gaztelaniara pasatzea, dendariak euskaraz ez dakielako gaztelaniaz hitz egitea, edo besterik gabe gaztelaniara pasatzea, ezezagun batekin erdaraz hasi eta gero euskaraz badakiela konturatzea... Tailerren bitartez, euskaraz nonahi aritzeko baliabideak eskaintzen dira eta horretan aritu dira Beran eta Elizondon berriki. Gemma Sangines psikologoak eskaini ditu ikastaroak. Sortzez bilbotarra da, euskaldun berria, baina urte dezente darama Valentzian bizitzen. Katalan hiztuna izanik, eta hizkuntza horren erabilerak kezkatu, hizkuntza menpekotasuna aztertzen hasi zen Ferran Suayrekin batera; zergatik aldatzen diren katalan hiztunak gaztelaniara hainbat egoeratan. 2003an tailerrak antolatu zituen hasi zirenean, eta 2006an Euskal Herrira etorri

ziren, euskaraz naturaltasunez aritzeko aholkuak ematera. Geroztik hainbatetan etorri dira.

Sanginesen arabera, «hiztun gutxitu bezala, gure espazio linguistikoa txikia da eta gainera, partekatua, eta horrelakotan, ez dugu normal jokatzen. Mugak aurkitzen ditugu gure kanpo eta gure barnean. Alde batek, beste hizkuntzaren aurrean, eskubide gutxiago ditugu, eta bestetik, gure aurreiritziak ere arazo dira. Horrek euskaldun bezala euskaraz aritzeko momentuan moztu egiten gaitu».

Eta zein dira deseroso sentiarazten gaituzten aurreiritzi horiek? 'Pertsona honek ez gaitu ulertuko' pentsatzea, euskaraz egitea edukazio txarrekoa dela pentsatzea, hitz egin behar dugun horri euskaldun itxurarik aurkitzen ez diogunean... «Horren ondorioa erdaraz egitea da. Ez dugu normal jokatzen eta ho-

regatik sentitzen gara deseroso».

EUSKARAZ ARITZEKO BALIABIDEAK

Egoera horien aitzinean, euskaraz aritzeko baliabideak hiru taldetan banatu ditu psikologo bilbotarrak. Alde batetik, gure baliabide kognitiboak aipatu dizkigu: «gure buruan aurreiritzi horiek aurkitu eta aldatu behar ditugu, beste modu batera jokatzeko. Horrez gain, pentsamendu kolonialista hori ere burutik kendu behar dugu, euskaraz aritzea edukazioa txarrekoa dela pentsatzeak ez du zentzurik eta gure burutik kendu behar dugu». Bestetik, maila fisiologikoa dugu: «egoera jakin batean, urdurisentitzen bagara, hori kontrolatzeko teknika ikas dezakegu, edozein terapiatan bezala». Eta azken maila komunikazioarena izanen litzateke: «zer eta nola esan jakitea. Egoerak ez dira horren desberdinak, behin eta berriz errepikatzen dira, eta erantzun berak egoera berdinetarako ikas ditzakegu». Hitzun bezala, nekea burutik kentzen saiatu behar dela adierazi digu: «nekea zigor zuzena da eta oso erangikorra da beste modu batera jokatzeke, eta horrela, eroso sentitzeko erdaraz egiten dugu. Baina hitzun kontzientziadun bezala, horrela ere ez gara eroso egonen. Horregatik azaltzen dugu zigor bikoitza: euskaraz egiten eta gaizki sentitu, eta erdaraz egiten eta gaizki. Biak dira deserosoak eta ondorio txarrak dituzte».

KOMUNIKATZEKO UNEA

Norbaitekin komunikatzerakoan «momentu asko» daudela dio Sanginesek eta semaforoen kodearen bidez eman dizkigu xehetasunak. «Komunikatzeko bene-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gemma Sanginesek psikologo kliniko eta kirol psikologo gisa egiten du lan.

tako arazoa ailegatu baino lehen, badira euskaraz aritzeko semaforoa berdean aurkituko ditugun egoerak». Semaforoa berdean dagoeneko egoerak honela azaldu dizkigu psikologoak: «bestearekin hitz egin baino lehen, solaslakunak ez duela entzun edo ulertu adierazteko eskua belarrian jartzeko keinua egin edo 'nola?' galdeztzen duenean, edota euskaraz zailtasunez hitz egiten duenean. Hiru maila horietan oraindik semaforoa berdean dago eta inork ez digu esan elkar ulertzeko arazorik izanen dugunik». Maila horietan egon daitekeen arazo bakarra «gure barnean» dagoela dio Sanginesek eta «halakoetan 'saiatu euskaraz egiten' esan behar diogu gure buruari».

Laugarren mailan semaforoa horian aurkituko dugu: «askotan, aurrean dugunak ez duela euskaraz hitz egiten esaten du, baina horrek ez du esan nahi ulertzen ez duenik. Hor ere euskaraz egiten saia gaitzake», aholkatu du. Beraz, «semaforoa berdean edo horian dugunean euskaraz egin eta zer gerta-

EUSKALDUN OSOA

«Leku guztietan euskaraz egin beharko genuke eta arazoa sortzen baldin bada, hau da, semaforoa gorrian baldin badago, hor zer egin erabaki»

Gemma SANGINES
Psikologoa

DATUA

6

MOMENTU
berezitzen ditu Gemma Sanginesek komunikatzerakoan. Lehen lauretan ez du euskaraz egiteko arazorik ikusten, eta azkenekoetan komunikatzeko arazoak sor daitezke.

tzen den itxaron. Ordura arte ez hasi pentsatzen eta ez nekatu».

Bosgarren eta seigarren mailan izanen dugu semaforoa gorrian eta hor aurkituko dugu komunikatzerako «benetako arazoa». Ulertzen ez digula esaten digun momentua da bosgarren

urratsa eta horrelako kasuetarako, «gure aurrean dagoen edozein pertsonarekin komunikatzeko hizkuntzaren %80 ez-ahozkoa dela» oroitarazi digu. «Errumaniar batekin hitz egitean, bere hizkuntza ez baldin badakigu eta berak gurea ezagutzen ez duenean, nolabait komunikatzea lortuko dugu. Ez dugu elkarriketanaturala edukiko baina komunikatuko gara». Eta goreneko mailan baldin bagaude, solaskideak gaztelaniaz egiteko exijitu digulako izanen da. «Horrelakoetan, normalean, ez da ulertu ala ez kontua, bai zik eta dominatzea da. 'Hemen nago ni eta zuk nik esaten dudana egiten duzu' adierazten digute eta normalean, behintzat, pertsona horiekin ez zaigu komunikatzea interesatzen, ez hizkuntzari eta ez beste ezerri buruz ere. Berehala ikusiko dugu eraso egiten ari den ala ez, eta horren arabera erabakiko dugu zer egin».

Sanginesen irudiko, hizkuntza menpekotasuna gaintzearena ez da kontzientzia kontua: «Orain arte, oso kontu-

tan izan da kontzientziadunak izan behar dugula, euskaraz egin behar dugula, behar, behar behar... Baina ez da 'behar' kontua, 'jakin' da kontua. Badakigu hori aldatzea nahi dugula, badakigu euskara bizirik nahi dugula, badakigu euskara maite dugula... Badirudi erdaraz hitz egitea neutroa dela eta ez da. Akzioak behar dira, jokarek hitzek baino askoz altuago hitz egiten dute».

Hizkuntzaz aldatzeko joera hori aurrekoengandik datorkigula uste du: «menpekotasun hori gurasoengandik dator. Historiak ere hori erakutsi digu. Eta bestetik, ohiturak indar handia du. Hitzunok ohitura oso barneratua dugu eta ohiturak aldatzea zaila da. 'Honekin beti egin izan dut erdaraz', esaten dugu, eta aldatzeak aurrean horma handi bat dugula dirudi. Baina ohiturak ere apur daitezke».

Ohiturak alda daitezkeela azpimarratzearekin batera, semaforoa berdean edo horian dagoenean euskaraz egiten badugu aldaketa handia gertatuko dela azaldu digu eta ez dela hain zaila. Dioenez, «euskaraz gerora ikasi dugunoei mesede handia egiten digute euskaldunek euskaldun izaten». Eta euskaldun osoaren kontzeptuaz ere mintzatu zaigu: «Jose Maria Sanchez Carrion Txepetxek euskaldun osoaren kontzeptua erabiltzen zuten, soziolinguistika ikuspuntutik euskalduna euskara jakitea, kontrolatzea zela esanez. Eta nik psikologiaren ikuspuntutik sartuko nuke euskaldun osoaren kontzeptua, espazio linguistiko osoan, leku guztietan, euskaraz egitea, eta arazoa sortzen bada, hau da, semaforoa gorrian baldin badago, zer egin erabaki beharko dugu».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Ai heriotza!!!

Duela gutti Piliarekin ostatuan egin nuen topo. Piliak semea galdu zuen berriki, eta horri buruz aritu ginen: zein gogorra, zein tristea, familia eta lagunak zein inportanteak diren... eta despeditzerakoan, «TTIPI-TTAPAn irakurtzen dizut» erran zuen, eta nik «*hurrengoan zutaz oroituko naiz*» erantzun nion. Eta hemen nago, Piliz oroitzen. Eta bere gisan dauden bertze batzuk ere gogoan ditut: Ana, Marian, Loli, Kristina, Isabel, Pilar, Jaione, Itziar, Blanca... Dudarik gabe, bizitzan pasatu behar dugun egoera zailena, gure hurbileko baten heriotza da, eta guztiz jasanezina behar du izan hiltzen zaigun hori gaztea baldin bada. Sekulako desastre baten ondotik bertze bizitza bat bizitzen ikasi duten heroi batzuk dira niretzat pertsona hauek. Beraiek garrantzia kentzen diote, eta «*zer eginen dut ba, aitzinera segitu baizik*» diote. Baina ez da hala. Izigarri merito haundiko pertsonak zarete, dudarik gabe HEROI batzuk zarete (niretzat bederen). Besarkada haundi bat.

«**Bertze bizitza bat bizitzen ikasi duten heroi batzuk dira**»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Zer da erregea zuretzat?

Lehiaketara bidalitako idazlana: «Eskiatzen, eskaileretan, ehizan... noiznahi erori eta makuluekin eta begi morelduaz ikusten dugu gizajoa. Sui bat eskuluzea, bertzea osasun arazo handiak dituena... Gazteen artean dagoen langabeziak loa galerazten dionez, gaubelak elefanteak edo mozkortutako hartzak ehizatzen ematen ditu. Zergatik ez zara isiltzen?». Ez naiz saridunetan sartu.

Nabarmentzekoak



Irati OTXORTEKO
Lesakako txirrindularia

Junior mailako Espainiako pistako txirrindularitza txapelketan zilarrezko bi domina golko-ratu ditu, abiadura eta 500 metroko probetan. Pistan ez ezik, errepi-dean ere lehiatzen da.



Niko MINDEGIA
Eskubaloia jokalaria

Nafarroako eskubaloira ere ailegatu da krisia eta arazo ekonomikoak tarteko, Doneztebeko jokalari bikainak Logroñorako bidea hartuko du hurrengo denboraldian, San Antonio utzita.



Xabi IBARGARAI
Ezratzuko palista

Buruz buruko Munduko pala txapelketan brontzezko domina lortu du, hirugarren posturako lehia Urkijori irabazita. Ezuste ederra eman du erratzuarrak, batez ere Gaubeka kanporatuz.

Atzera begira → 1998.09.10 / TTIPI-TTAPA 237. zbk



Aizkora: txapelketa eta apostuen artean

Astebete lehenago Mikel Mindegiak eta Arria V.ak hogeita hamar kanardikora jokatu-tako apostua aitzaki hartuta, *Indarrak neurtzeko grina ez da oraindik itzali aizkora desafioetan* erreportajea argitaratu zuen TTIPI-TTAPAK. Apostua irabazi zuen Mindegiak berak zioen bezala, «apostuaren arrazoa garbi dago: Euskaldunak 'ez ta bai, bai eta ez' hasten gara eta hurrengo 'Nahi al duk mila duro jokatu?' izaten da eta hor akitzen da». Donato Larretxeak, berriz, «nik neronek nahiago dut apostuan aritu txapelketako saioan aritu baino» onartu zigan. Uitziko plazan XX. mende hasieran ateratako argazkiak hornitzen zuen artikulua.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Xabier Lete Altzaten

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Pasa berri den Aste Santuko egun batean, Altzaten juntatu ginen kuadrillako lagunak. Ez dakit krisiagatik ote zen, baina panorama triste samarra zen. Jende aunitz ez jatetxean afaltzen, eta gero ere ez, afalondoko xurrupe egiteko denboran.

Nolanahi ere, gu han ginen eta, ostatu batetik bertzera ibili ginen idorpe bila. Horietako batean, Euskal Telebista paratua zuten, eta han euskal kantari batzuk ari ziren eginahalak egiten, baina makinak boza kendua zuen, eta haren partez bertze musika bat aditzen zen. Mugimendurako hobe, duikabe.

Gu bortz lagun, eta guzira dozena bat bertzerik ez baikin edantoki hartan, nagusiarekin konbertsazioan hasi, eta galdetu genion inporta ote zitzaion telebistari berriz ere hitza ematea. Mutilak ez zuen gaizki ikusi, eta kasu egin zigun. Xabier Lete ari zen aski polliki, "Altzateko jaun, hor zaude nonbait, zure lurrera itzultzeko zai...".

Ustekabean, mostradorean zegoen gure gisako bertze gautxori bat espantuka hasi zitzaigun. Ea zergatik pararazi genuen musika hura; ez zela horretarako tenorea, edo hobe genuela zaharrak etxera erretiratu. Horrelako zerbait, ez bainion dena entenditu, "erdaraz mintzo baitzen, berak jakin nola" Xalbador bertsolariak erran zuen bezala. Lehenbizian pentsatu genuen gitarra jotzen ari ote zitzaigun, baina ez, gero, iduri zuen serio ari zela, guri kargu hartzen alegia.

Ez genuen jaleorako gogorik, aspaldi apaldu zen gure gandorra eta kamustu zitzaizkigun letaginak. Etxeko nagusi jatorrari protestatzen ari zenari kasu egiteko erran genion: euskal kantariak ikusteko utzi, baina mutu, eta bertze musika bat para zezala. Horrelaxe konpondu zen afera.

Ez dut kezarik halako kritika xelebrea egin zigun adiskidearentzat. Berak jakinen du, alajokoa! Gurekin sartzeko manera itsusia izan zen, baina ez gara orain oihuka aritzeko libertatea inori kentzen hasiko! Hori bai, horra galdemodu bat airean: zer poema eskribituko ote zuen Xabier Letek gure tokian egon izatera!

«Ez genuen jaleorako gogorik, aspaldi apaldu zen gure gandorra eta kamustu zitzaizkigun letaginak. Etxeko nagusi jatorrari protestatzen ari zenari kasu egiteko erran genion: euskal kantariak ikusteko utzi, baina mutu, eta bertze musika bat para zezala. Horrelaxe konpondu zen afera»

Zubietako elizaren teilatuz edo diskriminazio baten historiaz

Juainas PAUL ARZAK

Harrigarria iruditzen zait. Eliza katolikoak estatu espainolean biltzen dituen abantailak aunitz dira. Ez da bidezkoa. Egong, beste elizkideak badirelako –zerrenda luzea osa daiteke egun–, hala nola elizarik ez dugunok.

Hortaz ari naizela: saiatu zara inoiz garai bateko derrigorrezko bataio eta antzekoei uko egiten? Elizari ez baitzaio komeni, izugarritzko ibilbide luze eta traketsarekin eginen duzu topo. Asperturik, amore eman dezakezu.

Estatuan, frankismoaren herentzian eta garai bateko konkordatueta –Vatikanoarekin finkatutako ituna– oinarritzen dira pribilegio horiek. Ugariak. Injustuak. Estatuak

erlijiorik ez duela suposatzen baita edo, hobe esana, beretzat dituen herritar guztien pentsamoldeak berdin babestu beharko lituzke. Ja, ja! *Eliza katolikoaren eskuindarrei, hala eta guztiz, dutena huskeria iruditzen zaie. Den dena nahi dute. Ez dute estatu laiko edo erlijio gabeko bat onartzen, gogokoak ez dituzten besteengana-ko legeak amorrazten dituzte* –protestan, kanean ikusi ditugu maiz–.

Laburki, estatu konfesional katoliko bat nahi dute. Are gehiago Nafarroan, non frankismoaren garai-ko 'opusdeismoak' pribilegioen merkatua bereganatu zuen. Euren eremutat dute probintzia autonomiaz mozorrotu eta politizatu ondotik egiteko abantailen pilaketarekin segitu dute. Elizak, abadetxeak, etxeak, lurak eta labrantza eremuak jabetzat erregistratu dituzte. Eurenak omen dira, gehienak mendeetan eliztar-herritarrek eraiki, mantendu eta garatu badituzte ere. Normaltzat hartzea lortu dute, gainera, neurri handi batean.

Esate baterako: Zubietako Herriko Etxeak konpondu du –ari da konpontzen–, auzolana erabiliz, elizaren teilatua. Eliza ez da herriarena. Apezpikutzak erregistratu zuen hainbat etxe eta lur eremurekin batera. Ez ditu zergak ordaintzen. Nik bai. Materiala jarri omen du. Nik ere. Udaletxeak ordaintzen ditu langile eta lanorduak. Niri ez. Niri teiltatu baten konponketarako aurrekontuaren portzentaje bat ordain arazi zidaten. Nafarroako eliza katolikoaren apezpikutzari ez.

Ez da justua. Diskriminatzailea da. Ez dago esku-biderik.

«Eliza ez da herriarena. Apezpikutzak erregistratu zuen hainbat etxe eta lur eremurekin batera. Ez ditu zergak ordaintzen. Nik bai. Materiala jarri omen du. Nik ere. Udaletxeak ordaintzen ditu langile eta lanorduak. Niri ez»

Irakurleak mintzo

Kalitateko haur eskolen (0-3) alde

Utzama, Elizondo, Bera, Betelu eta Doneztebeko Haur Eskolak

Zirriborro hau irakurtzeko aukera izan dugu eta baita gure foru erkidegoko hiru urtez beherako haurren eskolartzean izanen dituen ondorioak hausnartu ditugu. Zirriborro honen irakurketak, guztiz kezkatuta utzi gaitu eta 0-3 urteko haurren eskolartze baldintzak eta zentroen profesionalen lanak jasanen dituzten funtsezko okerragotzak sortzen digun egonezinarekin. Baldintza hauen ezartzeak, egunero zentro hauetan lanean gaudenon lanaren gutxi espena eta honen inguruan agerian geratzen den ezjakintasuna adierazten digu.

Gure balorazioa guztiz ezezkorra da, maltzurra, gaiztoa, iruzurtia eta asmo txarrekoa den zirriborroaz ari garelako, eta hiru urtez beherako zentroen desarautzea duelako helburu, arautzen duen bakarra gaizki eta modu ezegoki batean egiten duelako.

Zirriborro berri hau zentro guztiak arautzearen kontra azaltzen da eta gainera ratioak (ume kopurua hezitzaile baterako) eta baldintza fisikoak okerragotu egiten ditu. Zirriborroak mahai-gaineratzen dituen baldintzek hiru urtez beherako haurren zentroen kalitatea suntsitu egiten

due. Hau guztia ebidentzia zientifikoa da.

Plataformatik hiru urtez beherako haurren zentroak hezkuntzaizaera dutela defendatzen dugu. Oinarri hau, jaiotzatik Konstituzionalden hezkuntzarako Eskubide hau bermatzeko bide bakarra da.

Oinarrizko eskubide hau hezkuntza ikuskaritza eta betebeharren araudiaren bidez bermatu behar da. Horrela, adin hauetako haurrak edozein lekutan, edozein modutan egon daitezke, hauen ahalmen neurologiko, sozial eta afektiboen garapena bideratzeko behar bezalako tituludun profesionalik gabe.

Zirriborro honen 3. artikulua barkaezinezko akats batean azpimarratzen da; *"haur hezkuntzako lehen zikloa irakasten ez den zaintza eta arreta zentroen eta zerbitzu eta aisialdirako establezimenduen, Foru Dekretu honen arauditik at geratzen dira. Kasu hauetan egokitutako araudia ezarriko da eta inolaz ere izanen dute haien izendapenean, lehen zikloa eskaintzen duten zentroekin nahastea eragin dezaken identifikaziorik erabili"*. Zentro batzuk araudiren bat izanen dutela eta beste batzuk ez dutela ezer izanen eta haur batzuk garapen egoki baterako baldintzak izanen dituztela eta beste batzuk, eskubide hau gabe, adia galduta ibiliko direla esateko zalantzazko hitz hutsak.

Zirriborro honek, modu leunez, egokitzape-



Bota bertsoa

Iñigo SAGASTIBELTZA (Leitzako bertso eskola) • Doinua: Atmosferatik atera eta

Goi tentsioko linea

Goi tentsioko linea egin nahian dabil Gaztela ta esan gabe energi hori AHT-k behar duela gure mendiak utziko ditu basamortu bat bezela ze suntsiketa krudela ezin da ulertu bela jakin nahi nuke guzti honekin nork beteko dun sakela ta okerrera da tren puta hori beharrezkoa ez dela!

Hondamendi bat itteko prestu interes batzuen truke gizarteantzat ezer onikan lortuko denik ez uste beharrezkoak diren gauzetan behintzat dirurik balute lapurretan hainbat putre eta politiko kutre utzi ezkerro berriro ere nahi dutena ingo dute nere ustetan guzti honen aurka altxatu behar genuke!

naren eta malgutasunaren izenean (komunikabideetan agertu zen bezala) zentro hauen kalitatea suntsitzen du eta baldintzen funtsezko okerragotzera doa. Soilik hiru adibide adierazgarri:

a) 16/b.8. artikuluan dio *"haurrak hartzen diren geletan, argiztatze eta aireztapen egokia egon behar du airearen kalitatez bermatu dadin"*. Aurrekoan esaten zena erekin alderatuta, ez du esaten gela guztiak argiztatze eta aireztapen naturala izan behar dutela eta hauek gelara zuzenean izan behar direla. Artikulu honek, haurrak argiztatze artifizialean ordu asko egotera behartzen dituzten zentroentzat zurigarri izan nahi du. Baldintza hauek, gaitz biologiko ezberdinak eragin ditzake haurrengan.

b) Era berean, garapen egoki bat egon dadin eta haurren segurtasunerako ezinbestekoak diren beste baldintza

fisikoak 'desarautu' egiten ditu: bizi-espazio nahikoa haurrentzat, 2-3 urtekoen gelan, atsedean hartzeko espazio bereizari uko egiten dio, ez du gelatik ikusgarriak eta sartzeko errazak diren komunenguruko araudirik aurreikusten, edo eta jolastoki propio bat, estalia edo estali gabekoa, izatearen beharra ez du bermatzen, non haurrak egunero kalera oxigenatzera atera daitezke eta ez daitezten egon 'lau' paretan artean ordu gehiegi.

c) Zortzigarren artikulua bidez ezarriko den ratioen funtsezko okerragotzeak, aipamen berezia merezid. 28/2007 Dekretuan ezarritzen ziren ratioak, kalitateko hezkuntzarako gomendatutakoak bikoizten zituen. Egungo zirriborroak, zentroetan ematen diren haur zein profesionalen segurtasun eta ongizate baldintzak eta hezkuntzarako dauden aukerak okerragotzean tematu egiten

da behin eta berriz. Egiatztatutako ikerketek diote ratio txikiak (4 haur/hezitzaileko urtebetez beherako geletan, 6 haur/hezitzaileko 12-24 hilabete arteko geletan eta 8 haur/hezitzaileko 24-36 hilabete bitarteko geletan) haurrekiko gertuko harremanak ahalbidetzen dituztela, jolasetan parte hartze handiagoa dela, komunikaziorako eta elkarriketarako aukera hobeak sortzen direla, arrazoiaketa bultzatzeko proposamen hobeak daudela, banakako arreta bermatzen dela eta sistema ez-hertsatzaile finkatzen dela.

Plataformatik, indar sozial eta politikoei ezarautzaile, kaltegarri, koldar, gaizto, maltzur, arriskutsu eta 0-3 urteko zentroen kalitatearen suntsitzaile den zirriborro hau betirako ezabatzea eskatzen diegu. Erkidego honetako herritarrek ez dugu merezi zentzugabekeria lotsagabe hau.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Beganoa zarela erraten duzunean jende aunitzek sentitzen du bere burua defendatzeko beharra. Ni beganoa izatea haienzat eraso pertsonal bezala hartzen dute. Ematen du horrek zalantzak sortzen dizkiola eta gaizki sentitzen dira. Halakoetan arazoa ez da nirea, haiena baizik Inori eskatzen ez zaizkion azalpenak exijitzen dizkigute guri. Ematen du beganook perfektuak izan behar dugula (...)

Itoizko urtegiaren eta ubidearen inguruko Pedro Arrojo irakaslearen txostenak hor daude. Nafarroako Gobernuak egin ez dituen edo erakutsi izan nahi ez dituen kalkuluak hor daude. Denbora erakusten ari da saldu zuten ideia ez dela inondik ere erreala. Garrantzitsua da gizarteak ikustea zer gertatzen ari den horrekin».

Edurne ELIZONDO
Berako kazetari/idazlea
ARGIA, 2012.04.22

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zeniguke nor den Imanol Arangoa?

Leitzako gazte zoriontsu bat.

Zein zaletasun dituzu?

Mendia, musika eta parranda.

Aurtengo Atekarock hitz bakar batean deskribatu beharko bazenu?

Lastima, oso ongi ere ez zaigu aterra eta.

Zein egoeratan ikusten duzu Ate-kabeltz?

Gaztetxearen aldetik, Gazte Asanbladaren aldetik, indartzen ari gara. Ongi doa asuntua. Eta herrigunearen aldetik, herriko talde eragile asko daude, gogoarekin gaude eta erantzun ona ari gara ematen, gustura gabilta.

Nola ikusten dituzu Leitzako gazteak?

Oso pasotak. Herriko jende asko bezala, lonjatan egoten dira, ez dira inplikitzen eta hori da min asko egiten diguna. Partehartzeko ez dute inizatibarik eta alde horretatik negargarria da. Eta ez dakizu horri aurre egiteko nola heldu eta beti daukazu pena hori. Leitza berez oso herri aktiboa da, baina jende gazte asko ez dira mugitzen.

Zer du Leitzak faltan eta zer soberan?

Faltan jendea aktibatzea eta soberan... Hori bai ez da-

kidala nola esan...

Goi tentsioko linea egin nahi dute Leitzatik pasatuz...

Gure herriari baino gehiago eragiten dioten herri asko dira, baina lotsagarria da. Gure mendiak izorratzen dituzte eta badira beste modu batzuk horri aurre egiteko.

Parranda egiteko toki bat?

Leitza.

Mendi bat?

Urepel.

Musika talde bat?

Euskal musika gustuko dut baina internazionala ere bai eta talde internazional bat esanen dizut: KORN taldea.

Amets bat?

Euskal Herri independente bat izatea eta euskal preso eta iheslariak etxera ekartzea.



Imanol ARANGOIA → Leitzako gaztea



MERCHE
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capelettimercheirun.com

HEDABIDEAK

MUS TXAPELKETA → XALOA, XORROXIN ETA TTIPI-TTAPAREN ALDE

Beratarrek irabazi dute eskualdeko komunikabideen aldeko mus txapelketa

22 bikote lehiatu ziren apirilaren 14an Sunbillan

TTIPI-TTAPA

Xaloa Telebista, Xorroxin Irratia eta TTIPI-TTAPAREN aldeko mus txapelketaren finala apirilaren 14an jokatu zen Sunbillako Ulibeltzak elkartearen. 22 bikote aritu ziren azken saioan eta final handian, Berako Asier Saraguetak eta Patxiku Artiedak lortu zuten txapela, Arantzako Antton Maiz eta Lourdes Goñi senar-emazteei irabazita.

Herriz herri jokatu diren txapelketetan 198 bikotek eman dute izena eta hortaz, 4.000 euro lortu dira Xorroxin, Xaloa eta TTIPI-TTAPAREN aldeko. Hiru komunikabideen izenean eskerrak eman behar dizkiegu partehartzaleei, baita antolaketan eta sarietan lagundu duten eskualdeko hainbat elkarteri ere.

Almandozen, 16 bikoterekin eta Sunbillan, 15 bikoterekin, jokatu ziren txapelketarik jendetsuenak. Herriz herri jokaturako txapelketa horietako txapeldunek zuten hitzordua apirilaren 14an Sunbillan, 22 bikotek denetara. Herri bakoitzetik, beraz, bikote bana izan zen. Antolatzaileek hala erabakita, finala antolatzen laguntza haundia eskaini duen Sunbillako Ulibeltzak elkartearen kontra eta Sunbillako Jose Miguel Galain



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Lau bikote finalistak, eta txapela soinean Berako Asier Saraguetak eta Patxiku Artiedak irabazleak.

dian. Elizondotik ere bi bikote etorri ziren, Erlategiko txapelketan aritutako Aitor eta Iban Ruiz de Larrinaga eta Falfarak elkartearen Angel Telletxea eta Iñaki Telletxea aita-semeak. Zugarramurdiko bikoterik, aldiz, ez zen izan.

Kontuak kontu, jokoa sartu eta final laurdenetarako txartela lortu zuten Bera, Aniz, Arantza, Almandoz, Zubietak, Elizondoko Falfarak, Sunbilla eta Oronozko bikoteek. Final laurdenean horietan, Berako Asier Saraguetak eta Patxiku Artiedak irabazi egin zioten Anizko bikoteari; Arantzako Antton Maiz eta Lourdes Goñi ere irabazi egin zieten Almandozko Lorenzo eta Jose Luis Osakozi; Elizondoko Falfarak taldeko Angel eta Iñaki Telletxeak ere garaipena lortu zuten Zubietako Txomin Ugalde eta Hilario Mutuberriaren kontra eta Sunbillako Jose Miguel Galain

LEHEN BI POSTUAK
Berako Asier Saraguetak eta Patxiku Artiedak irabazi dute txapelketa eta Arantzako Antton Maiz eta Lourdes Goñi azpitxapeldun izan dira.

eta Jose Luis Agirrek menpean hartu zituzten Oronozko Jose Altxu eta Joxemi Arizmendi.

Finalerdietan, Arantzako Antton Maiz eta Lourdes Goñi senar-emazteek irabazi zieten Sunbillako Jose Miguel eta Jose Luisi eta Berako Saraguetak eta Artiedak bertze horrenbertze egin zuen Elizondoko Telletxea aita-semeekin.

Final handian, Berako Asier Saraguetak eta Patxiku Artiedak lortu zuten garaipena eta Antton Maiz eta Lourdes Goñi azpitxapeldun izan ziren.

Txapeldunendako txapela eta trofeoaz

gain, eskualdeko produktuekin osatutako saskia izan zen, 300 eurotan baloratua. Azpitxapeldunek ere eskualdeko produktuekin osatutako saskia lortu zuten, 200 eurotan balora-

tua eta hirugarren gelditu zirenek, Jose Miguel eta Jose Luis sunbildarrak eta laugarren sailkatuek, Angel eta Iñaki Telletxea aita-semeek, sagardo botilak etxeratu zituzten.

AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA

BETE BEHARREROKIA!

Lanpostua: Begirale arduraduna

- Elkarriargoe edo Gai Madako Lantzean Heskera
- Otsieneko adina: 18 urte
- Elkarri argiaren 101 m. (101 m. baino gehiago) edo m. (101 m. baino gutxiago) 2. Fokuzko erabilera (prato garbia)

Lanpostua: Begirale

- Geringorako bigarren Heskera
- Otsieneko adina: 18 urte
- Elkarri argiaren 101 m. (101 m. baino gehiago) edo m. (101 m. baino gutxiago) 2. Fokuzko erabilera (prato garbia)

ZERRENDOAREN ERABILERA!

- Ondasun Fisikoenak jasotzeko erabilera (prato garbia) begiraleak poltsa horietatik konstatatu behar dira. 2011ko lan poltsa erabilera erabilera (prato garbia).

ESKAERAK:

- Eskaintza jasotzeko 1800 12 0000 telefonoa erabili behar da, behar bezala.

INFORMAZIOA:

- Ondasun Fisikoenak jasotzeko erabilera (prato garbia)
- Informazio gehiago nahi izanez gero **deitu behako telefonora**, edo idatzi behako e-postara.

Arantzako, 2012ko apirilaren 14an
Municipalitatearen Berrantolaketa, Jaime Iren Plaza 10
Bortziriako Euzkoar Mankomunitatea
Telefonoa: 948424175. E-posta: euzkoar@bortziriak.org
Hilbidetza: Herriko Plaza 7, 31793 ARANTZA
www.bortziriak.org

IRURITA eta **URDAZUBI**ko bestak 2012
maiatzaren 16tik 20ra



gora
IRURITAKO
bestakk!!

aupa URDAZUBI!





Munitu gustiak ikusteko!
100 KARTEL 93E (A3 formatua)
250 KARTEL 110E (A3 formatua)
Tel: 948 580 666 | www.kartrik.com

J.P AGERREBERE
Karrizaria + Aroztegi Metalikoa
Zaldubi ind. IRURITA - Tel.: 948 585 538 | 850 184 947

Corpinterio
Lizasoain, S.L.
948452077 - Zaldubi ind. - 31730 IRURITA

sukalDeco
estudio cocina y baño
www.sukaldeco.com | IRURITA: 948 580 666

ARKUPE
Goztegia - Txokolategia
Txokolategia, ornatxoak, almendrazkoak, belza eta urria, Tabletak, bombolik, trufak, Txokolate konfitatua, Tartak, etxeko izozkiak, pastelak, pastak, miniatzurak, bolloak.
KAFETEGIA
Eteloko - Tel: 948 427 969
Buzte - Tel: 948 452 621 | 948 580 666
www.arkupegoztegia.com

rotugrafik
errotuloak
Errotuloak
Kamixetak
Eguzki laminak
Inprimaketa Digitala
948 580 977
Zaldubi Industrialdea, 1 - IRURITA
www.rotugrafik.com - info@rotugrafik.com



IRURITAKO

bestak 2012

EGITARAUA

Maiatzak 16 asteazkena **BEZPERA**

12:00 TXUPINAZOA Herri-buelta **BAZTANGO** GAITEROekin. **16:00** HAURRENDAKO HERRI KIROLAK. **18:00** MERENDUE. **18:30-20:30** Dantzaldia IÑAKIrekin. **20:00** EZKIL-JOTZEA. **21:00** BAZTANZOPAK. **01:00-04:00** Dantzaldia karpan IÑAKIrekin.

Maiatzak 17 ortzeguna **SALBATORE EGUNE**

10:00 DIANAK **11:00** MEZA NAGUSIA. **12:00** HERRIKO DANTZARIEN ERAKUSTALDIA. **13:00** LUNTX HERRIKOIA. **17:30** Trinketeko V. ESKU PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK. **19:30** Rantxerak LOS TENAMPASEkin **22:00** GAITEROAK. **00:30-04:00** Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Maiatzak 18 ortzilaria **HAUR ETA JUBILATUEN EGUNE**

10:00 DIANAK BASERRIETAN. **11:00** HAURRENDAKO JOKUEK Erreboteko plazan. **13:30** HAURRENDAKO BAZKARIE karpan. **14:00** JUBILATUEN BAZKARIE Olari jatetxean. GAZTE BAZKARIE Baigorriin. **15:00** HAURRENDAKO JOKUEK. **18:00** TXOKOLATADA. **20:00** Dantzaldia AIERRIK taldearekin. **21:30** GAITEROAK. **23:00** KONZERTUEK karpan. **01:00-04:30** Dantzaldia AIERRIK taldearekin.

Maiatzak 19 laurbeta

10:00 DIANAK Txarangarekin. **11:00** MUSIKA TRESNEN FABRIKA. **12:00** EUSKARAOKEA. **12:00** ARANABIAKO PALA GOMA TXAPELKETAKO FINALAK. **14:00** ZIKIRO-JATEA JULIO SOTO eta SUSTRAI COLINA Bertsolariekin eta fanfarrearekin. **20:00** TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia. **21:30** GAITEROAK. **01:00-05:00** Gaupasa TRIKIDANTZ Taldearekin.

Maiatzak 20 igendia

10:30 V. HAUR-KROSA. **11:00** MEZA NAGUSIA. **11:30** IV. HERRI LAISTERKETA. **12:30** SARI BANAKETA eta LUNTXA partehartzailleendako. **18:00** DANTZA ERAKUSTALDIA Lesakako Tantarumairu Euskal Folklore taldearekin. **19:30-21:30** AIERRIK taldearekin Dantzaldia. **On-dotik** AFARIE inderrak gelditzen zaizkienendako... Besten akabaila.





Maki eta Kristina URTASUN | Iruritako musikariak

«Gizarte Bilguneak bizitza handia eman dio Iruritari»

Maki eta Kristina Urtasun Jaimereña ahizpak aski ezagunak dira kultur eta kirol arloan. Iruritako Salvatore bestetan edo Dantzari Egunean ez dute hutsik egiten beraien txistu doinuek eta normalean lan egitea suertatzen zaie egun handian. Hala ere, Kristinak aurren deskantsu hartuko duela aipatu digu eta Makik, **«neri bakarrik txistu jotzea, hori lana bada...»**. Bestetan gehien gustatzen zaiena zer den galdetutakoan, Makik dena gustatzen zaiola aipatu digu, **«Salvatore eguneko dantzak, zikiroa, 'ez hain gazteen' bazkarie»**. Kristinari, berriz, **«karrikako giroa, herri guzие kanpoan ikustea»** gustatzen zaio. Guttiena, berriz, **«zikinkeria eta zakarkeriak»**.

Posible izanez gero zer ekarriko luketen bestetara galdetuta, dauden bezala arras ongi daudela uste dute. Halere, guardasolen bestak bezala ezagunak dira Salvatoreak eta eguraldiak kezka sortzen duenez, **«karpa haundi bat herri guzие tapatzeko eurie eginez gero?»** proposatu du Makik eta **«posible izanez gero, eguzkia»** aipatu du Kristinak.

Neska kirolariak ere badira bi ahizpak, gazte-denboran eskubaloian aritu ziren BKTn eta orain pala edo frontenisen aritzeko raketa maiz hartzen dute... **«orain kirola xuabe xuabe. Bestetan ez dut kirolik eginen»** aipatu digu Makik eta Kristinak dioenez, kirola **«gaztea zarelarik bai, orain ni dena xuabe xuabe, bai kirola bai besta»**.

Musika ez ezik, kantua ere maite dute eta Elizondoko Abesbatza Ttikia gidatzen aritzen dira... Hortaz, musika eta kanturik gabeko bestarik ez dituzte imajinatzen. **«Ez, inondik ere»** —dio Makik— **«bzkari on bat, kantu batzuk, gero dantza...»**. Kristinarentzat ere, **«musikarik gabe ez ziren bestak izanen»**. Eta bestarako, **«giro onean»** edozein euskal kantuk balio duela uste dute. Udako besta garaian, udako kantak ere urtero-urtero ateratzen dira eta aunitzetan bestetako protagonista izaten dira ostatuetan, txoznetan... Horieta-koren bat aukeratzeko eskatuta ez dute batere garbi Urtasun ahizpek: **«Ufff, bai zaila»** —erantzun digu Makik— **«Ez dakit udako kanta, baino bai bestetan paratzen zuten edozein 'salsa' mota»**. **«Aspaldian utzi nituen udako kantak»** —erran digu Kristinak— **«baina bestak akitzen direnerako batzuk ikasten ditugu, aurtengoak auskalo!»**.

Kultur arloan hainbertze mugitzen diren emakumeak izanik, Gizarte Bilguneak Iruritari ekarpen handia egin diola uste dute. Makiren arabera, **«bizitza eman dio herriari, kontzertuak eta bertze hainbat ikuskizun antolatzeo aukera, baita ikastaroak ere»**. Kristinak dioenez, **«Iruritan betidanik gauza aunitz antolatu dira eta herriko hainbertze tokitan egiten ziren, Gizarte Bilgunea leku aproposa bihurtu da gauzak han egiteko eta gehiago antolatzeo ere»**.

Herriko besten propaganda eginez, zer erranen zeniokete jendeari Iruritako bestetara hurbiltzeo? galdegin diegu: **«Arront giro polita izaten dela. Probatzera etortzeo»** erantzun digu Makik. **«Eguraldi ederra eginen duela aurren, besta egiteko aproposa»** iragarri du baikortasunez Kristinak.



Composites Baztan
Poliesterezko lanak

- Inprimatuak: sinkak, sputinak, lepoak...
- Tasa elurak, lepo barneak
- Kitzoak eraberritzeak, argizketa, amantak, tatarak
- Era guztiko sinku eta puzak egitea
- Abango teknologia

Tel-Fax: 948 581 824
compositbasazan@hotmail.com
Zaldubi Industrialeq | 31730 IRLURITA

SUMINISTROS YANCI
30 urteko esperientzia

ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Baliabideak erabiltzea eta ermentzailak

- BIONASK
- BEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EDUZAT ENERGIA
- TERMIKOIA

ETA HAINBATZUKERAKO BERRIAK

Pellit eta egurrezko kaldiren erakusketa
Dirulaguntzak tramitatzen ditugu
Zalduko induslekuak, 2. IURURITA
948 580 109 **TATANO**

aroztegia 1890az geroztik

Arotxa
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK

HORMANN — banatzaile ofiziala
Miguel Axcárraga (Irurita)
T. 948 581 418 | 650 532 073
arotxa.taller@gmail.com

MONTXO OSTATYA TABAKO-DENDA

ongi pasa bestak!

TALOK
ostiral
gauetan

Urdazubiko
bestetan:

Plater konbinatuak | Ogitardekaak | Pintxoak | Menuak enkarguz

GAUETAN DISKO BESTA

Dantzarinoatik 2 km Hira | Azaro-Banda | URDAZUBI | 948 599 039



VENTA PEIO
MERKATARITZA GUNEA



ongi pasa bestak!

Kupela
Cidrerie

LUGARANA
Restaurant

MIKALA
BAR & SNACK

NUBA



www.venta-peio.com

(0034) 902 210 800



URDAZUBIKO bestak 2012

EGITARAUA

Maiatzak 16 asteazkena

20:00 TXUPINAZOA. 21:30 Plazan AFARIA MODESTOK alaiturik.

Maiatzak 17 ortzeguna

11:00 MEZA NAGUSIA. 12:00 APERITIFA txistulari eta dantzariekin. 16:00 HAURREN JOKOAK. 18:00 TXOKOLATADA. 21:30 PAELLA JATEA eta, ondotik, KIKI BORDATXOekin dantzaldia.

Maiatzak 18 ortzirala

12:00 GORRITI BERE ANIMALIEKIN. 14:00 UGARANA ELKARTEKO BAZKARIA Koxkan. 16:00 HAURREN JOKOAK. 16:30 BERTSO-TRIKI POTEOA herriko karrketan barna. 20:00 SAGAR-DOTEGI MUGIKORRA. 23:00 TRAKETS taldearekin dantzaldia nekatu arte!!

Maiatzak 19 larunbata

10:00 KONTRABANDISTEN LASTERKETA: Ibilbidea: 15,8 km. Sariak: 500€ lehen sailkatuarentzat, (MONTXO OSTATUA SARIA), 250€ bigarren sailkatuarentzat, 150€ hirugarren sailkatuarentzat, 100€ laugarren sailkatuarentzat, 50€ bosgarren sailkatuarentzat eta tarteko muga 7,8 km-an. (IRIGOIENEA SARIA). Izena emateko epea apirilaren 16tik maiatzaren 16ra zabalik dago. (www.urdazubikontrabandistas.ueuo.com). Aurten izen emateko gaia hobetu egin da, txartelarekin ordaintzeko aukera emanez. Orduan izen emateak web bidez egin beharko dira ezarritako epean eta lasterketako egunean ez da izen ematerik onartuko. 14:30 ZIKIROA txarangak alaiturik eta gero herriko karrketan barna KALEJIRA. 16:00 HAURREN JOKOAK. 20:00 KAPELU JAURTIKETA. 21:00 Indar berritzeko ZINGAR JATEA eta giro onari eusteko mariatxekin dantzaldia. 00:00 GABEZIN taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 20 igandea

16:00 YINKANA. 17:00 AIZKORA SAIOA frontonean JOXE BIKONDOekin. 18:00 Urdazubiko HERRIKO GAZTEEN ARTEKO FRONTENIS TXAPELKETAREN FINALA. 19:00 MOTOZERRA SAIOA frontonean JOXE BIKONDOekin. 19:30 BOLETOEN ZOZKETA: zorte on! 20:00 PIN-TXOAK denentzat LUCIANO musikariak alaiturik.

Asteazkeneko afariko, paella jateko eta zikiroko txartelak fiteago hartzeko: Anastasi, Indianobaita eta Montxo
Ezbeharren bat gertatuz gero, Urdazubiko gazteriak ez du bere gain hartuko.



Indianoa Baita
akadua eta apartamentuak
ing. gora hurbildu!
Tel. 948 599 021 - Urdazubi

Faustino ETXABE tailerrak
Autoan konponketa
BESTA ON BATZUK PASA !!
Tel. 948 599 039 - ZUGARRAMURDI

Ximeta
Sailkatuak
Baita eta beste beste...
Baita Peio - 31712 Dantxaneta.
Tel. 948 599 062

JOSEMI BENGOTXER S. L.
ZVRGINDEGIA
• bitxak
• bitzak
• egurrezko eskuak
• eskalera
• bitzak
• arak
• altxak
• zozak
Tel. 948 501 504 - F. 948 599 100
Ezkerrean (INDAR) puzkerak...
Ordu pasa gaitza!
LUCIANO IRIARTE S. L.
ESKALERAK
ESKALERAK
LVR MYGIMENDYER
Tel. 948 501 504 - NABARTE

Iñaki Alzuyet margoak
Pintura dekoratiboa eta industriala
Dekorazioa: estukoak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak • Pladurra
Lakutua eta barnizatuak kabinan
Harri eta egurra arenadorekin garbitzen da
ongi pasara bestak!
Itur-ttipi etxea - Landibar Auzoa
31711 URDAZUBI
Tel.: 659 862 417
pinturasalzuyet@yahoo.es



Ione BENGOTXEA eta Ane HUARTE | Bestetako antolatzaileak

«Herriko gazteen arteko frontenis txapelketaren finala jokatu da igandean»

Urdazubiko Salbatore besten antolaketa gazteen esku izaten da eta horiek, bortz laguneko batzordea osatzen dute. Aurtan, Ione Bengotxea eta Ane Huarte batzorde horretako kide dira. Antolaketa lanak inauteriak igaro orduko hasten direla aipatu digute: **«Ihateak eta gero jantzen gara bestetako komisioan gauden 5ak eta lanak banatzen ditugu, adibidez, bat kontzertuetaz arduratzen da, bertze bat haurren jokoetaz, bertzea bazkari eta afari-etaz...»**, diote.

Batzordean bortz lagun izanagatik, gazte eta heldu aunitzek parte hartzen dutela onartu dute Ione Bengotxeak eta Ane Huartek: **«Komisioan bortz lagun gaude, eta guk egiten ditugu lan garrantzitsuenak. Baina gazte eta heldu aunitzek parte hartzen dute ere lan aunitzetan: karpa eta txoznak muntatu, paella/txuleta/xingarrada prestatzen, platerak-eta garbitzen...»**.

Diru kontuak kitzatzeko orduan, bi antolatzaileek aipatu digutenez **«diru gehiena ihautetan biltzen da. Haurrek ere parte hartzen dute. Biltzen duten diru guztia bestak prestatzeko ematen digute. Gero boletoa salduz ere diru dexente biltzen dugu. Herriko Etxeak ere parte hartzen du eta laguntzen digu diru kontuetan»**. Alde horretatik, aipatzekoa da aurtengo boletoa saltzen ari direla. Lehendabiziko saria Donostiako La Perlan zirkuitua eta bazkaria egiteko bi sarrera izanen da, bigarren saria lau afari Urdazubiko jatetxe batean eta hirugarrena azgazki kamera bat.

Urteroko martxa izanik ere, antolaketa denbora eta dirua eramaten du. Ione eta Anek aipatu digutenez, **«diru kontutan, kontzertuak izaten dira gehien kostatzen direnak, eta denbora aldetik, kontrabandisten lasterketak du lanik handiena: bidea garbitu eta markatu, edariak prestatu eta banatu ibilbidean barrena...»**.


Egitaraatik gustokoena zer duten galdetzerakoan bat egin dute bi antolatzaileek: **«Bertso triki poteoa ekitaldirik pollitena dela iduritzen zaigu. Aurtan Jexux Mari Irazu eta Julio Soto etorriko dira. Horretaz gain, berrikuntza bat dugu aurtan: Herriko Gazteen arteko frontenis txapelketaren finala jokatu da igande arratsaldean. Lehen aldiz egiten denez, jende aunitz animatu da jokatzerara eta arras txapelketa pollita izaten ari da»**.

Egunez egun hainbat ikusgarri izaten dira Urdazubiko Salbatore bestetan, baina egun bat hautatzekotan, **«gu biendako giro pollitena izaten den eguna ortzeguna da –aipatu digute Ione Bengotxeak eta Ane Huartek–. Jendea oino frexko dago eta goizetik jantzen gara meza ondoko aperitifa prestatzera. Arratsaldean haurrentzako jokoak izaten dira eta gauean paella jatea. Arratsean giro ederra sortzen da eta ia 300 pertsona jantzen gara»**.

Sosa gehiago izanez gero, aldaketa edo hobekuntzaren bat proposatzekotan, **«talde ezagun bat ekarriko genuke gustora. Eta herrian gero eta haur gehiago daudenez, ba Pirritx eta Porrotx ekartzea aukera on bat izanen zen seguraski»** aipatu digute.

Jakina da Dantxarinea xarma handia duela Iparraldeko eta Frantziako jendearentzat. Jende hori Urdazubiko beste-tara ere hurbiltzen dela aipatu digute.





lone eta Aneren erranetan, **«Iparraldeko jende frango animatzen da, Salbatore eguna Frantzia besta eguna izaten baita urtero. Hala ere, azken urte hauetan alkoholemia kontrol aunitz jartzen ari dira eta horrek jendea beldurtzen du autoa hartzerakoan. Baztan aldetik jende guti hurbiltzen da, Iruritako bestak ere aldi berean baitira».**
Urdazubiko bestetara animatzeko, berriz, horra Urdazubiko bi neska hauen gomita: **«Urtetik urtera giro ederragoa dago Urdazubin eta datozen guziei harrera ona egingen diegu».**

La KOKKA
Jatetxea
Ongi pasa bestak!!
948 599 042 • URDAX

ANASTASIA OSTATUA
Ostatua • Janandenda
Prentsa • Aldizkariak
Landetxea
Besta onak pasat!
948 599 077
URDAXUBI

ETXELEKUA
Etxeko behi eta ardi gasna
Zugarramundiko harategia
948 599 160 • URDAXUBI

TRIARTEA BENTA
Gaztako • Kizkorribetako • Lantako
Ttxoa: 948 599 040 • DANTXARINEA • URDAXUBI

IRIGOIENEA
Ongi pasa bestak!!
948 599 267 • URDAXUBI
www.irigoiena.com • reserba@irigoiena.com

ZUBIONDOA
OSTATUA
AVTOSERBITZUA
OROTGARRIAN
Ongi pasa bestak!!
+300341 948 599 041
DANTXARINEA

Jatetxea
Ikaburua
Apetaminak
Hater koordinatuak • Menuak • Karta
Bario Leonas • URDAXUBI/URDAX
T. 948 59 92 22 - 690 75 58 75 - www.ikaburua.com

Benta • Ostalua • Jatetxea
MIKELENBORDA
Ongi pasa bestak!!
Tel: 0034 948 599 046
31712 DANTXARINEA

JOSENEA
ZONE AUTO
Ongi pasa bestak!!
www.josenea.es



Txomin IRIBARREN | Dantxarineko Merkatarien Elkartekoa

«Mendekoste bestak berreskuratu nahi ditugu Dantxarinean»

Zubiondoan, Pantxo Bentan sortua, Jose-nea gasolindegiko arduraduna da Txomin Iribarren. Dantxarineko Merkatarien Elkarteko presidente 2010eko ekainaz geroztik. Txominek aipatu digunez, «2005ean sortu zen Dantxarineko Merkatarien Elkartea eta gaur egun 16 komertzio biltzen gara, gehienak bentak, jatetxeren batzuk eta gasolindegia». Jende aunitz ibiltzen da Dantxarinean, baina hemen ere nabari da krisiaren ondorioa. «Nork ez du eza-guztaren krisia? –onartzen du Elkarteko presidentek– Dantxarinean ere berdin, baina nere irudikoz momentu latzetan ideia berriak bultzatu behar dira eta horretan gaude. Orain arte gure bezeroek guk mugan eskaintzen genituen produktuen erreferentzia bat bazuten eta hemendik aitzinera eskaintza hori zabaldu egin beharko dugu eta aukera berriak ere eskaini».



Joan den urte hondarrean, konparazio batera, tragoa laguntzeko pintxo urrik ematen zuten kanpaina hura ongi atera zela aipatu digu Iribarrenek. «Esperientzia piloto moduko bat izan zen, elkartearen bidez gauza berriak proposatzeko modu bat. Publizitatean indar handia egin dugu eta marketin plana aldatzea erabaki genuen, egun bereziak eskainiz. Herriko Etxearekin ere badugu harreman ona eta elkarrekin gure eskaintzaren berri ematen ari gara eta horren barrenean sortu zen kanpaina hori. Bezeroek ere berrietaz okupatzen garenaren sentsazioa hartu zuten». Etorkizunera begira, Mendekostetan Dantxarineko bestak berreskuratzeko asmoa du Elkarteak edo Eguberrietan Olentzeroren bat egin eta benten artean itzulixka bat egitea...

Urdazubiko Salbatore beste dagokionez, Dantxarinean ez dela gogorki somatzen aipatu digu Txominek, «baina Frantzian ere besta eguna denez, jendea gehixeago ibiltzen da. Baina Dantxarinera egunpasa etortzen dena Urdazubira ere joaten da egun horretan. Herriko Etxearekin elkarlanean hasi garen honetan, gure helburua ere hori da: gure eskaintza komertzialarekin eta herriko eskaintza kulturalarekin, lezeak, monasterioa... jende berria hurbilaraztea».

Salbatore bestak disfrutatzea ere gustatzen zaio Iribarreni, «ahal dudan neurrian besta egiten dut, denerako astia hartu behar da. Besten barrenean, badira mementuak adin guzietakoak gozatzeko. Neretako, aski maite dudan ekitaldia zikiro jatea da, egun ederra pasatzen dugu hantxe, txarangarekin ostatueta itzulia egin, normalean ez dut hutsik egiten». Motorzalea izanik, garai batean Urdazubin egiten zen motokros txapelketa ere gustura ikusiko luke berriz ere Txominek, «gauza aski berexia zen eta polita, leku aproposa zen, baina ingurumen aldetik baldintza gogorak ezarri zituzten eta ez da gehiago egin».

Urdazubin gazteek antolatzen dituzte bestak, «betitik hori da hemengo ohitura, gure gazte denboran ere halaxe zen eta horrela segitzen du» dio Joseneko nagusiak eta hori ongi dagoela uste du, «alde batetik beraien gustuko gauzak prestatzen ahal ditzutelako eta, bertze aldetik, ez da batere txarra beraien esku uztea, gazteek ere ardua batzuk hartzen ditzutelako eta hori beraientzat ere aberasgarria da».

KULTURA → BERA KO ABESBATZAK 25 URTE

25. urteurrenaren harira egin duen diskoa aurkeztuko du larunbat honetan Berako Abesbatzak

Ospakizun haundia ekainaren 3an egingen du

TTIPI-TTAPA

Zilarrezko Ezteiak egin ditu aurtan Berako Abesbatzak, eta 25. urteurren hori gogoan, hainbat ekimen antolatzeko asmoa du. Alde batetik, hamahiru abestiko diskoa grabatu du, batzuk a *capela* eta bertzeak perkusioekin, txistuarekin eta musika bandarekin kantatuz. Disko horren aurkezpena larunbat honetan, hilak 5, egingen du, 19:30etik aitzinera Kultur Etxean kontzertua eskainiz. Emanaldiaren ondotik, diskoak sei eurotan salduko dituzte eta gerora ere, herriko hainbat tokitan eta beharbada eskualdean ere erosteko aukera izanen da.

Argazki erakusketa ere prestatu dute 25 urteak

bilduz. Larunbat honetan zabalduko da, lamotenean, eta 21:00etatik 22:00etara ikusgai egonen da. Hilaren 13ra arte egonen da zabalik, 19:00etatik 21:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era.

EGUN HAUNDIA

25. urteurrenako ospakizun haundia ekainaren 3an egingen da. Goizean, Berako hainbat musika taldek dianarekin karririk alaituko dituzte eta denak udaletxeke plazan elkartuko dira. Talde bakoitzak bere abestia eskainiko du gero, eta 12:45 aldera hasiko da ekitaldi nagusia. Bi bertsolarik ongietorria emanen dute eta ondotik, Abesbatzak *Agurra* kantatu eta Gure Txokoako dantzariak dantzatu egingen dute. Berako Abesbatzaren txanda izanen da segidan, eta abesbatzako kide ohiek eta jubilatuen abesbatzakoak ere parte hartuko dute emanaldian.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra zahar etxeko kultur egunetan

Argazki erakusketa, talo-tailerra, sorginen antzerkia, kantaldiak, bertso-saioa, mojen antzerki komikoa... Ekitaldiz beteriko aste kulturala izan dute San Jose zahar etxean. Ederki pasatzeko aukera izan dute zahar etxean daudenek.

Larun Ttiki

Labiaga Ikastolako Larun Ttiki Mendi Taldeak hurrengo irteerak zehaztu ditu. Igande honetan, Sarako ikastolakoekin buelta bat egingen dute eta horretarako 09:30ean lamotenean egin dute hitzordua. Maiatzaren 13an Herri Urrats bestara joanen dira, 08:00etan lamoteneatik abiatuta. Maiatzaren 27an Larungo bestara joanen dira eta 09:00etan gelditu dira lamotenean. Ekainaren 10ean Saioara joanen dira 09:00etan abiatuta. Gero, bazkaria egingen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Migel zubia garbitzen

San Migel Zubiko Lagunak zubia zaharberritzen hasi dira. Juan Ignacio Oizartzabal da obraren arkitektoa eta zuzendaria, Rufino Dozagarat kontratista eta obraren zuzendaria eta gainerako langileak Ixa Ordoñez, Xanti Maia eta Totonon dira. Apirilaren 17an egin zuten lehenbiziko lan saioa -argazkian- eta partek garbitzen aritu ziren. Bide batez, norbaitek esku bat bota nahiko balu, boluntarioek atea zabalik izanen dituztela adierazi dute. Astearte eta ortzegunetan biltzen dira, 09:30etik 12:30era.



Berako Abesbatzako kideak.

F. LANGHAS
Akabdiadura eta berriztatzeak
Parkes eta parket flutatzaldea
Jartzeak
Mota gutxiertako solak
Tel: 946 630 755 M: 607 406 781

LESAKA

UDALA → PROZESU PARTEHARTZAILEA EGIN NAHI DA

Lur urbanizaezinen planari buruzko bilerak eginen dituzte

Duela 3-4 urte etxebizitza espedienteak geldiarazi zitzairen 15 lagun daude

Aitor AROTZENA

Lur urbanizaezin edo hiri lurretik kanpo dauden lurren inguruko plana egiten ari da udala, eta prozesu honetan lehen pausuetako bat duela 3-4 urte etxebizitza espedienteak geldiarazi zitzaizkien pertsonekin bilera egin eta hauei egoera zertan den azaltzea izan da. Espedienteak geldiarazia duten hamabortz bat lagun daude.

Behin hau eginda, plan hau prozesu parte hartzaile baten bidez garatzea ezinbertzekoa ikusten du Udalak. Honetarako bilera irekiak deituko dira, bertan, interesa duen edozein herritarrek bere ekarpenak egin edo kezkak argitu ahal izateko. Aipatu behar da bilera hauek gaiari ikuspegi orokor batetik begiratu egingen direla, eta ez direla herritarrek izan ditzaketan arazo edo interes partikularren inguruan aritzeko. Bilera hauen helburua, herriko lur ez urbanizagarriak bere osotasunean egokien nola garatu erabakitzea izan da, horregatik interesa duen edozein pertsona bilera hauetan parte hartzerantz animatu nahi duete Herriko Etxetik.

San Fermin elkarteak Goizuetara

San Fermin erretiratuen elkarteak Goizuetara bidaiara antolatuko du maiatzaren 18rako. Goizeko 08:00etan abiatuko da autobusa Plaza Zaharretik eta Hernanin barna Goizuetara joanen dira, bertan gosaltu eta bixita egiteko. Gero Leitza bisitatzea joanen dira eta Goldarazaren bazkalduko dute. Bazkalondoa Arakileira joanen dira, Lacturale enpresa bisitatzea eta Altsasun barna bueltatuko dira. Txartelak maiatzaren 10a arte salgai paratuko dira, 25 euroren truke.

Maiatzaren 6an, Ama eta Amatzien Eguneko



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Saio hunkigarria eskaini zuen Tantirumairu Folklore Taldeak

75 urte bete dira Condor legio naziak Gernika bonbardatu zuenetik. Gertakari hori oinarri hartuta 3:15 zail da konprenitzen ikuskizun hunkigarria eskaini zuen Tantirumairu euskal folklore taldeak apirilaren 21ean, Plaza Zaharrean. Picasoren margolanetik ateratako irudiak balira bezala, emanaldi berezia egin zuten, euriari aurre eginez plaza bete zuten ikusleen gozamenerako.

bazkaria ere antolatu du San Fermin elkarteak, beti ere guttienez hamar lagun elkartzeko. Maiatzaren 1ean, berriz, ohiko ibilaldi arautua egiteko zuten.

Ba al zenekien...

BSG Electrics enpresak Twitter sare sozialean kontua duten estatu osoko 200 alkateri doan eskaintako bizikleta elektrikoa eskuratu duela Herriko Etxeak. Aukera aprobetxatzen Nafarroako lehenbiziko herria izan da Lesaka eta albin-teek erabiliko dute herrian mandatuak egiteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aste mugitua Tantirumairu ikastolan

Apirilaren 16tik 20ra hainbat ekintza interesgarri egin zituzten Tantirumairu ikastolan. Alde batetik, bi ikastetxeren arteko lotura proposatzen duen Ika-bil egitasmoan parte hartu zuten 5. eta 6. mailako ikasleek, Basauriko Arizko ikastolakoekin batera. Hainbat ekitaldiren artean, Guggenheim bixitatu zuten (argazkian). Bertze aldetik, ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, apirilaren 19an Juul hauteskundeak burutu zituzten eta azken urteetako ohiturari eutsiz, irakurketa saioa izan zuten apirilaren 20an, Irati Otxoteko, Arritxu Muxika, Jone Otxoteko eta Edurne Marin ikasle ohiekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte Eguna euripean

Gazte Asanbladak *Mugi hadi gazte!* lelopean antolatutako Gazte Egunak euriari aurre egin behar izan zion apirilaren 14an, baina halere giro ederrean joan zen eta ekitaldi guztiak umorez burutu ziren. Txapelketan egindako paellak bazkaltzera 98 lagun bildu ziren Herriko Etxeko arkupetan. Bazkalondoa jokoak egin ziren plaza inguruan eta hemen ere animazio handia izan zen. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina halere Elektrotxarangarekin poteoa egin zen eta musika izan zen frontoiaren gibeledo apartakalekuan La Pulqueria, 3gabe2, Glaukoma Sound System eta DJ Bull taldeekin.

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Dirua biltzeko mila boleto paratu dituzte salgai gazteek

Bestetako azken eguneko musika ekartzeko dirua bildu nahi dute

Irune eta Itsaso

Herriko gazteek dirua lortzeko boletoak salgai paratu dituzte. Aurtengoan, Andremarietako azken eguneko musika gazteek antolatuta izanen da, eta horretan laguntzeko asmoarekin atera dituzte boletoak hauek. Iturri-etxea (plazako janari dendan), Elutsan eta Herriko Ostatuan daude salgai momentuz. Gazteen artean ere boletoak banatu dira. Abuztuaren 14ko herri afarian egingen da zozketa eta hauek dira sariak: bi zirkuitu Elgorriagako bainuetxean, minikatea bat, argazki makina bat, eta zerrikume bat.

Mila boleto egin dituzte baina errax saltzen badira bertze tirada bat egiteko asmoa dute.

Kooperatibako batzar orokorra

Joan den apirilaren 21ean Usoa Nekazari-tza Kooperatibak urteko batzar orokorra egin zuen Kultur Etxean. Gaiak hauek izan ziren: aitzineko akta sinatu, urteko kontuak azaldu,

pentsuen eta gasolioaren egoera komentatu eta junta berritzeko bozketak egin zen. Hauek izan ziren emaitzak: 7 botorekin Arantxa Zubieta eta 4na botorekin Manuel Arrosamena, Xanti Elizagoien, Jaiotze Eugi, M^a Dolores Babaze, Santiago Mitxelto-

rena eta Kontxi Mikelestorena.

Lerro hauek idazterakoan oraindik ez zegoen junta berria osatua. Ondorioz, datorren alean argitaratuko dugu zeinek utzi duten lehengo junta eta zeintzuk sartu diren datozen bi urtetan junta be-

rrian lan egiteko. Batzarrak akautzeko hiru sari zozketatu ziren bildutako artean, Alan baserrira ardo kaxa bat tokatu zen, Tolareko Borda- txaleko bat eta Behekoetxera alargadera elektrikoa. Ondotik, La Basque ostatuan 26 lagunek afari ederra egin zuten.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Kisulabe bila

Duela egun batzuk Bekozubiko Periko eta Behekoetxeko Benantxiok Etxalarko dermioetan zenbat kisulabe izanen ote diren zenbatu nahian hasiak dira. Batzuk egoera onean aurkitu dituzte baina aunitz dira deseginda daudenak. Nahiko denbora beharko dute inguruko paraje eta zoko guztiak bilatzeko. Gogo handiarekin hartu dute egin beharra eta aitzinerago emanen dutela honen berri erran dute. Argazkian Etxeberriko kisulabea.

Bisita gidatua

Apirilaren 25ean Hiruak-Bat landetxeen elkarrekin antolatuta, Etxalarrera bisita gidatua egin zuten. Ateraldi hau udan gida turistikoak bisitarietara zer erakusten dion ezagutzeko izan zen. Patxi Irisarri udan gida lanak egingen dituenak herriko txoko eta toki interesgarrienak erakutsi ondotik, Iriondoan landetxeak bere bezeroentzat berriki prestatu duen baserriko hainbat tresna zahar eta lanabesez osatutako erakusketa ikusi ahal izan zuten hurbildutakoek. Azkenik herriko ostatuan elkarrekin eta giro ederrean bazkaldu zuten.

HERMANOZ TOLITUEN
HC
ERAKUNTZA LANAK OROKORREAN
 Zuzenberritasun, sukariak, komunak...
 Alabatasun, terrazak, garapen...
HC BERA (Naharro)
 670 064 744
 948 630 554
 albertalaboa@gmail.com

USOA
 Nekazari kooperatiba
 Bertan egindako perisak, bertze markak eta ekologikoak.
 Orginak - Burdin trenak
 Injektzioak - Edanak - Haziak
 Botikak (errezitarekin)
 Etxez ebeko banaketa egiten da
 Kalifikazioa eta ibilgailuendako gasolioa
 Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

ERREKALDE
 PATEZ erakundeak
 ETXALAR
 BERRITAK
 TTAPA: 948 630 259 BERA

LEGARRA
 Egunkariak | aldizkak | liburak | oporak | bitarteko bitartekoak | enkademazioak | plakatuzkoak | txi publikoak
ZERBITZU BERRIAK!!
 FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
 USB-lik zuzenean inprimatzen dugu
 TEL: 948 63 70 30 - AIBARRI, 9 - LISAKA

ARANTZA

MENDIA → MAIATZAREN 20AN

Gain-gainean dugu Mendi Itzulia

Kamisetak eta jertseak salgai daude herriko ostatuetan

Nerea ALTZURI

Seguru aurtengo Mendi Itzuliko kamiseta edo jertseren bat erosi izanen duzuela aunitzek. Hurbiltzen ari zaugu data. Duela bi urteko eguraldia enkargatzeko aukerarik balitz... Ekaitza Elkarte Mendi Itzulia antolatzen ari da eta aurtun, maiatzaren 20an izanen da. Ibilbidean herriko mendietako tontorrek zeharkatzen dira: Unanu (659 metro), Itsaszelaia (517), Izu (828), Oilargata (660),

Ibintza (1.037), Ekaitza (1.040), Illurdi (1.085), Mendaur (1.136, auke-rakoa), Mairubaratza (750) eta Zepuru (715).

Ibilbidearen distantzia 30 bat kilometrokoa da eta 1.740 metroko desnibela du. Irteera eta helmuga herriko plazan da, bidea ongi seinalizatzen da eta ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskaintzeko postuak paratzen dira. Parte hartze handia izan da aitzineko edizioetan: 2003an 232 pertsona, 2004an 364, 2006an 418, 2008an 502 eta 2010ean 704 mendigoizale.

Hasieran aipatu bezala, kamisetak 12 eurotan eta jertseak 32 euroan salgai daude herriko ostatuetan. Informazio gehiagorako aldizkari-ko 51. orrialdean, www.menditzulia.com web orrialdean edo bi telefono hauetara deituta: 617 239 361/ 647 759 140.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Pailazoek ikuskizun koloretsua

Apirilaren 21ean, Pelle Tiki Haur Eskolaren alde antolatutako ekimen jendetsua izan zen Beran. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek eta taldeko lagunek *Zazpikoloroa* ikuskizun koloretsua eskaini zuten eta irriak, dantzak, kantak... giro paregabearen arratsaldea pasatu genuen. Pelle Ttikiko hezitzaile eta gurasoak ere kontent daude. Pelle-Ttikin hainbat txoko egokitze asmoa dago, eta aukera izanez gero, material berriak erosiko dituzte. Bertzalde, oroitu, 2012-2013ko ikasturteari begira, larunbat honetan, hilak 5, eta 12:00etan, Pelle-Ttikin, proiektuaren berri emanen dela. Guraso, amaxi-atautxi, izeba-osabak... gonbidatuak daude.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Lurdes eta Antton musean azpitxapeldun

Eskualdeko hedabideon aldeko mus txapelketaren finalean, Petrisinekobordako Antton Maiz eta Lurdes Goñi senar-emazteak azpitxapeldun izan ziren Sunbillan. Puntu batengatik Berako Patxiku eta Asierrek irabazi zuten. Aipatu zigutenez, musean aritzea gustatzen zaie eta txapelketa batean parte hartzen duten lehen aldia da. Hurrengo urtean ere ariko omen dira. Berako Asier bertotan ere trebea da eta hau bota zuen Xorroxinen finala eta gero: *Patxiku eta ni joan ginen bai, larunbatin Sunbillarat, eta ederki bai ederki, bazkaldu genuen behintzat, Gero mus txapelketa zegoen, eta zapela guretzat, Zein polita den Maizi irautzia, hogeita bi eta hogeita bat.*



UTZITAKO ARGAZKIA

Preso eta iheslarien alde Frainera

Herrira mugimenduak deituta, Frainera mendi martxa egin zen apirilaren 22an bortz herrietatik. Arantzatik *Isolamendurik ez!* lelopean egin zuten bidea.

IGANTZI

TURISMOA → BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAREN LAGUNTZARKEIN

San Juan Xar ezagutzeko bisita gidatuak egingen dira uda honetan

Herriko gazte batek emanen ditu azalpenak

Joxean ORTEGA

Aurtengo udan San Juan Xar ezagutzeko bisita gidatuak Igantzitik egingen dira. Bertiz Partzuergo Turistikoak hartu du honetarako ardurara eta handik antolatuko diren bisitaldietan San Juan Xar eta bere inguruari buruzko azalpenak Igantziko gazte batek emanen ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Toki polita eta erakargarria da San Juan Xar.

txobait gehixeago laguntzen duen...

Udala UEMAn

Udalak UEMA Udallerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko urratsa eman du. Apirilaren 19an, plenoak UEMAn sartzeko erabakia aho batez hartu zuen. Erabakia jendaurrean egonen da 30 egunez, eta ondotik, UEMAKo Batzar Nagusiak onartu beharko du. Ekainaren 9an Goizuetan egingen den UEMA Egunean hartuko du erabakia.

Nafarroako konkista gogoan

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena ospatuko da aurten Amaiurren. Uztailaren 20 eta 21erako *Amaiur*

2012 *Haien ametsa gurea* da ikuskizuna presatatu dute eta Udalak ekitaldietan parte hartzeko hamarsarrera erosi ditu eta herritarrei opari ematea erabaki du: Amaiurrera joan nahi

duen herritarrak debalde eskuratzen ahal ditu; horretarako Udaltxetik pasa eta eskatu bertzerik ez du egin behar. Pertsonako bi sarrera hartzen ahal dira, sarrerak agortu arte.

Igerilekuko ardura

Aurtengo denboraldiko udal igerilekuko lanak Anuntxi Txoperenak egingen ditu. Joan den urtean ere berak hartu zituen. Ea aurtengo eguraldiak zer-

San Juan Eguna eta bestak

Kultur Batzordeak San Juan Eguna eta bestak antolatzen has-teko bilerak deituko ditu laster. Geroz eta guttiago falta da!

ZUBIONDO
Jatetxea
sagaridutegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Javier Manterola
Taldeko instalazioak
burgineta • gasa
kalifikazioa
Tlf: 629449902 • BERA

J. RAMOS
zolak akutzilatu eta
barnizatzen dituzte
Saketeleko: 637 636 073 • LESAKA

udana salazones
LAC
500-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prestatu
Kale Nagusia no. 23 - Barria, 8 - 23. polioia • LESAKA • Tlf: 948 631 536 • Fax: 948 631 500

LABEZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

XIRRI
ANUNTXI
Tlf: 948 631 536

ERROTAZAR
harategia
Berrak
produktuak
Kategoria: 3 • BERA
Tlf/Fax: 948 630 058

BORTZIRIAK

PRESOAK → HERRIRA MUGIMENDUAREN ESKUTIK

Preso eta iheslariak etxeratzeko eskatuz Frainen bildu dira Bortzirietako hainbat lagun

Maiatzaren 19an plazara ateratzeko deia egin du Herrirak

TTIPI-TTAPA

Euskal preso eta iheslarien etxeratzea ahalbideratu nahi duen Herrira mugimendua deituta, Frainera mendi martxa egin zen apirilaren 22an. Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Beratik abiatu zen martxa, bakoitza bere leloarekin eta batzuk oinez eta bertzeak autoz, denak Frainen elkartu ziren.



ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

Bortz herrietatik joandakoak Frainen elkartu ziren.

ren, guztira 50 lagunek goiti. Behin harat ailegatuta, Herrira mugimenduren izenean per-

tsona bat solastu zen, zera aldarrikatuz: «muturreko egoera guztiak behin betiko desagertu

behar direla, eta honekin akautzeko modu bakarra dagoela, mobilizazioen bitartez gizarte-

ren inplikazioarekin, hain zuzen ere». Honen haritik, heldu den maiatzaren 19an egingen den Goazen Plazara! ekimenerako gonbidapena egin zuen.

GOAZEN PLAZARA!

Maiatzaren 19an Euskal Herriko plazak betetzeko deialdia ere eginga du Herrira mugimendua. Egun horretan, herri guztietako plazak jendez betetzea nahi du Herrirak euskal presoak Euskal Herriratzeko eta gaixo dauden presoak herriratzeko eskatuz eta bizi osorako espetxe zigorrik ez izatea aldarrikatzeko.

GAZTEAK → GAZTE MARTXA IRAGARTZEKO MURALA

Guardia zibilaren isuna saihesteko Lesakako herri sarreran zegoen murala kendu dute

TTIPI-TTAPA

Gazte Martxaren harira, Lesakako herri sarreran berri emateko herriko gazteek egindako murala, halabeharrez zuriz margotu behar izan dute. Halaxe jakinarazi du Lesakako Gazte Mugimendua. Euren aldarria Jalgi Hadi Garaipenera zen eta helburua «parea urdin eta gorri biziz apaintzea bertzerik ez genuen», baina gainerratu dutenez, «berdeko-

loreko batzuei ez omen zitzaion sobera gustatu artelana eta beti bezala, zirikatzeraz etorri ziren». Margotzen ari ziren gazteetako bat identifikatu egin zuten. Hala ere, murala bukatu eta «hainbat astez herri sarrera apaintzen egon dela» adierazi du Gazte Mugimendua, «gazte martxan parte hartzeko deialdia zabalduz». Baina duela gutti, identifikatutako gaztearen etxera Nafarroako



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte Martxa iragartzeko hainbat astez Lesakako herri sarreran egon den murala.

Gobernuko gutuna iritsi da, eta Gazte Mugimendutik erran dutenez, «gutu horren arabera, guardia zibilak jarritako deuntzia batengatik, hamar eguneko epean murala xuriz margotzen ez bagenuen 1.500 eta 6.000 euro arteko isuna ordaindu behar genuen». Hori dela eta desagertu da murala: «isuna ez dugu ordaindu, baina berriro ere argi gelditu zaigu

berde kolorekoen jokamoldea zein den: adierazpen askatasuna ukatzen segitzen dute». Horren aitzinean ez direla makurtuko azaldu dute gazteek, eta herriak bertze hainbat pareta dituela aprobetxatuz, larunbat honetan, hilak 5, bertze hitzordu bat egin dute: 09:30ean gelditu dira Lesakako Arranon, «bertze mural bat margotzeko gazte martxaren oroi-

tzapen gisara». Arratsalde horretan Bilbon egingen den manifestazioa joateko deialdia ere luzatu dute eta gauean, Kattu ostatuan antolatu dituzten kontzertuetara hurbiltzeko gonbita ere egin dute. Azken mezu bat ere luzatu nahi izan dute: «adierazpen askatasunaren alde, margotu dezagun Euskal Herria kolore biziz eta jalgi gaitezen garaipenera».

GIZARTEA → BOLUNTARIO TALDEAK

Elkarrizan boluntarioen elkarte Beratik Lesakara zabaldu da

Laguntza lanak egiten ditu Elkarrizan taldeak

TTIPI-TTAPA

Beran egiten duen lana Lesakan ere egiteko asmoarekin apirilaren 17an jendaurrean aurkeztu zuten Elkarrizan boluntarioen taldea Lesakako Andra Mari Zahar Etxean.

Alfonso Obeso aspaldian ari da boluntario-tzan lanean Lesakan eta Elkarrizanen baitan egiten dira lan horiek hemendik aitzinera. Obesorekin batera, Maria Isabel Zugarramurdi, Ladislav Covaric, Margarita Susperregi, Maria



UTZITAKO ARGAZKIA

Elkarrizan taldeko boluntarioak Andra Mari Zahar Etxean egindako aurkezpenean.

Gago eta Jose Mari Iratzoki izan ziren aurkezpenean, baita Marian BIRRARENA Elkarrizan taldeko ordezkaria eta Jokin APEZETXEA Bortzirietako Oinarritzako Gizarte Zerbitzuetako teknikaria ere.

Aurkezpenarekin, zahar etxeko bizilagunek aurpegia jarri zioten boluntario lanean ari direnei eta horretaz gain, Elkarrizanez eskaintzen duen zerbitzuaren eta bere funtzionamenduaren berri izan zuten. Elkarriz-

zan elkarteak laguntza lanak egiten ditu, zahar etxean bertan edo pa-seatzerako orduan, mahai jolasetan, mandatu ttikiak egiteko, medikura joateko edota txangoak egiteko eta ez ditu ordainduak diren bertze

lan batzuk ordezkatu nahi. «Zahar Etxean dauden bizi-kalitatea hobetzera bideratutako zerbitzu osagarriak eskaintzea da helburua», adierazi zuten aurkezpenean. Behin aurkezpena egin da, eskaera-orri bat utzi zuten Elkarrizan elkarte-koek, zahar etxeko bizilagunek, senideek edo zuzendaritzak betetzeko eta nahi diren laguntza motak zehazteko.

Elkarrizan elkartearen bertze helburuetako bat aisialdirako ekitaldiak (kultura, musika...) zahar etxera hurbiltzea da. Honela, Emaitza antzerki taldearen borondateaz baliatuz, umorezko antzezlanak eskaintzeko zuten Lesakako zahar etxean.

HEZKUNTZA → MUSIKA EMANALDIAK

Institutuetako ikasleak kontzertuak eskaintzen hasi dira

Bera eta Leitzako ikasleak izan dira lehenak

TTIPI-TTAPA

Duela hamalau urte hasi ziren Lekarozko institutuko ikasleak kontzertuak eskaintzen eta

poliki-poliki mendialdeko gainerako institutuek ere ekimenarekin bat egin zuten. Geroztik, ikasturtean zehar pres-tatutakoa jendaurrean erakusten dute urtero, musika eta dantza artean. Gero eta gehiago direnez, banatzea erabaki zuten orain urte batzuk eta aurrean, Be-



ARGAZKIA: AMAIA GOIA

Apirilaren 24an Berako pilotalekuan kontzertua eskaini zuten Bera, Leiza eta Zizurko institutuetako ikasleak.

ra, Leiza eta Zizurko institutuek elkarrekin osatu dituzte egunak eta Lekaroz eta Doneztebekoek euren aldetik egiten dute.

Berako Toki Ona, Leitzako Amazabal eta Zi-

zurko institutuetako ikasleak apirilaren 24an Beran eta 26an Lekunberrin eskaini zituzten emanaldiak eta maiatzaren 9an, heldu den asteazkenean, Zizurren egiten dute. Denetara,

hiru institutu hauetako 600 ikaslek baino gehi-gok hartuko du parte.

Lekaroz eta Doneztebeko Mendaur institutukoek, berriz, aitzine-rago egiten dituzte emanaldiak.

KIROLA

KIROLA → DIRULAGUNTZAK

Nafarroako kirolariendako bekak banatu ditu aurten ere Indurain Fundazioak

Niko Mindegia, Agurtzane Obregozo, Itsaso Fagoaga eta Judith Saizarrek ere hartu dute

TTIPI-TTAPA

Migel Indurain Fundazioak urtero-urtero Nafarroako kirolari afizionatu onenei eta entrenatzaileei banatzen dien bekak eman zituen apirilaren 24an Gorraineko jauregian. Migel Indurain bera izan zen ekitaldian, bertze hainbat agintarirekin batera. Guzira 231.451 euro banatu ziren.

Eskualdeko kirolariak dagokienez, kirol olimpikoetan eta kategoriatan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Judith Saizar leitzarrak 1.500 euro jaso ditu, Europako junior mailako triatloi txapelketan laugarren izan ondotik.

absolutoan Niko Mindegia eskubaloia jokalaririk onena izan da, 2.000 euro hartuko ditu, 2012ko Europako txapelketan prebian parte hartzeagatik; Agurtzane Obregozo errugbi jokalaririk onena izan da, 3.000 euro hartuko ditu, Europako txapelketan bigarren izateagatik eta tiro olimpiakoan parte hartzeagatik; Itsaso Fagoaga lesakarrak 2.000 euro hartuko ditu, Munduko eta Europako txapelketan parte hartzeagatik. Junior kategorian, berriz, triatloian, 1.500 euroko laguntza jasoko du Leitzako Judith Saizar kirolariak, Europako txapelketan laugarren izan ondotik.

absolutoan Niko Mindegia eskubaloia jokalaririk onena izan da, 2.000 euro hartuko ditu, 2012ko Europako txapelketan prebian parte hartzeagatik; Agurtzane Obregozo errugbi jokalaririk onena izan da, 3.000 euro hartuko ditu, Europako txapelketan bigarren izateagatik eta tiro olimpiakoan parte hartzeagatik; Itsaso Fagoaga lesakarrak 2.000 euro hartuko ditu, Munduko eta Europako txapelketan parte hartzeagatik. Junior kategorian, berriz, triatloian, 1.500 euroko laguntza jasoko du Leitzako Judith Saizar kirolariak, Europako txapelketan laugarren izan ondotik.

Munduko eta Europako txapelketan parte hartzeagatik. Junior kategorian, berriz, triatloian, 1.500 euroko laguntza jasoko du Leitzako Judith Saizar kirolariak, Europako txapelketan laugarren izan ondotik.

DATUA

9.000

EURO
hartuko dituzte eskualdeko kirolariak eta entrenatzaileak Indurain Fundazioetik.

pelketan laugarren izateagatik.

Kirol teknikariak ematen zaien dirulaguntzak dagokienez, Antonio Fagoagak 500 euro hartuko ditu Itsaso Fagoaga entrenatzeagatik. Programa berezian baita, 22.000 euro laguntza emanen zaie federazioei, 12.000 euro pilotari federazioari eta 10.000 kirol egokietan federazioari.

ANTZUZELAK
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLA
Tel: 948 631 117 • Fax: 948 631 567
Iturria: BERA
www.antzuzelak.com
info@antzuzelak.com

Antzuzelak, angeluak, ome antzuzelak, lehoak, atsek, arkuak, pizarak, biniak, edazkak, mozturak, zokaloak, hianak, marmalak

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

APARAN, S.A.
BRINKOLALA eta ZURAK

Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate aruntak eta sukaiak mogleendakoak
Pintura eta bernitzak
Bamurako mogleak eta osagariak
KIT mogleak, esku-erremintak, itabi

DONZTEBE
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334

XATURETXEA
ZABAL
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Etxeak eta Bideak
BIDEAK
Tel: 948 637 117

BOZZA-ALDE
BOZZA-ALDE
Tel: 948 637 117

ICHI
Tel: 948 637 117

KULTURA → ABUZTUKO BESTAK

Santiburtzio bestak prestatzen hasia da Ulibeltzak Elkartea

Bestetako ekitaldi aunitz elkartek antolatzen ditu

Maider PETRIRENA

Esan beharrik ez dago, Ulibeltzak Elkarteak garrantzi handia duela herrian egiten diren ekitaldi aunitzetan eta horixe bera gertatzen da herriko bestetan. Santiburtzioetan antolatzen diren ekitaldi gehienak elkartetik antolatzen dira: Latasaren omenez egiten den aizkora apustua, toka, aitzur eta zartagin txapelketak, Baztan-zopak, zikero-jatea, plater-tiroketa, mus txapelketa...

Ekitaldi horietan laguntzen duten bazkideek ez du derramarik ordaintzen eta gainontzekoei 20 euro derrama kobratu ohi zaie.

Aurtengo bestak urruti ikusi arren, prestatzen hasiak dira elkarreko zuzendaritzakoak. Bilera batzuk egin dituzte eta bertze gauzen artean, Latasaren omenez egiten den aizkora apustuaz solastu dira, hori izaten baita aurrekontu haundieneko ekitaldia.

Ulibeltzak Elkarteak urtero jende berdintsua izaten du laguntzeko, baina lagundu nahi duen bazkideak ez ditu sekula ateak itxiak izanen.



Ba al zenekien...

Arkupeak elkarteak Andaluziara antolatutako bidaian hemeretzi sunbildarrek parte hartu dutela? Arrunt ongi pasatu dutela jakinarazi dигute. Arkupeak Elkarteak bidaia eta ekitaldi andana antolatzen ditu eta horietan guztietan beti izaten dira sunbildarrak.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Hedabideen aldeko mus txapelketako finala Ulibeltzak Elkartearen

Apirilaren 14an Xorroxin, Xaloea eta TTIPI-TTAPA hedabideen aldeko mus txapelketaren finala jokatu zen Ulibeltzak Elkartearen. 22 bikotek parte hartu zuten eta horien artean, herriko bi bikote aritu ziren: alde batetik, Niebes eta Koro, eta bertzetik, Jose Luis eta Jose Miguel. Azken hauek hirugarren postua lortu zuten, gainera. Zorionak denei.



ARGAZKIAK: BIDAL IBARRA

Mendi irteerak

Ulibeltzak Mendi Taldeak irteerak eginez segitzen du. Joan den igandean, erraterako, Aiako Harrietara joatekoak ziren. Argazki hauek, berriz, otsailaren 19an Erga mendian dagoen Trinitatera eta apirilaren 8an Moncayora egindako ateraldietakoak dira.

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK**

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → URTERO BEZALA

VI. ahari lehiaketa eginen da ortziral honetako Udaberriko Ferian

Mutur gorrietan eta beltzetan hiruna sari banatuko dira

Nerea TELLETXEA

Urtero garai honetan ohikoa den hitzorduari hutsik egin gabe, Udalak Udaberriko Feria antolatu du ortziral honetan, maiatzak 4, Cederna-Garalur Elkartearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

10:00etan emanen zaio hasiera azokari. Ordu horretatik 14:00etara, eskualdeko artisauen erakusketa izanen da. 11:00etatik 13:00-


etara, berriz, aurten seigarren aldiz, ahari lehiaketa eginen da Merkatu Plazan.

Beti bezala, Malerrekako latxa arrazako ahari lehiaketa izanen da eta mutur gorriendako eta mutur beltzendako hiruna sari banatuko dira: kategoria bakoitzean, lehenbiziko sarituek 120 euro jasoko dituzte; bigarrenak 70 euro eta hirugarrenak 50 euro. Sari banaketa 13:30ean eginen da Merkatuko plazan. Horrez gain, ahari buruak aurkezten dituzten baserriarrei 30 euro emanen zaizkie parte hartzeagatik.



Ba al zenekien...

Niko Mindegia eskubaloia jokalariek Amaia Sport San Antonio taldea utziko duela denboraldi hau akitzean? Erdilari doneztebarrak Naturhouse Errioxa taldean jokatu du hurrengo denboraldian. Ez da taldea utziko duen jokalaririk bakarria izanen, prentsan azalduenez, guttienez sei jokalarik utziko baitute taldea denboraldia akitzean. Amaia Sport San Antonio taldeak, arazo ekonomikoak ditu eta jokalariei ezin ordainduz dabil.



ARGAZKIAK: NEREA TELLETXEA

Eskubaloia kontuak

Apirila hilabete bizia izan da herriko kirolarentzat, eskubaloia dagokionez batik bat. Errekako bi taldeak ligako Final Four-a jokatu dute denboraldi bikain bati bukara emateko. **Senior mailan** Uharten jokatu ziren partidetak 250 jarraitzaile inguru hurbildu ziren ingurutik taldea animatzeko, bonbo, kamiseta, pankarta eta guzti. Giro paregabe honetan, lehenbiziko partida Errekak Oberena taldearen aurka jokatu zuen. Nahiz eta nahiko urduri hasi, lehenbiziko zatia bi golez irabaziz akitu zuen. Bigarren zatian partida dominatu zutela argi utzi zuten eta akitzeko 15 minutu falta zirela, bortz golez irabazten zihoan Erreka. Hemendik aitzinera dena aldatu zen, arbitroa ederki arduratu zen hori horrela izateaz; Errekak jokalaririk bat eta bi guttiagorekin jokatu zuen akitzeraino. Luzapenera iritsi zen partida eta markagailuan 24ko berdinketa zegoela, hondarreko bi segundoetan Oberena taldeak gola sartu zuen kontraerasoan, Errekaren aldeko penalti argi bat ez adierazita. Horrela ba, finaletik kanpo gelditu zen Erreka lan izugarria egin ondotik. Kontuak kontu, Errekak denboraldian behetik gora egin eta gero, laugarren postua harro egoteko modukoa da eta dudarik gabe, hemendik indarberritua aterako da taldea. Bertetik, Errekako **kadeteak** hirugarren gelditu dira kadete mailako Ligan. Lehen bi partidak Anaitasuna eta San Antonioren kontra galdu ondotik, BM Uharteren kontra irabazi egin zuten eta horrela hirugarren postua lortu. Etorkizuna bermatua dagoenaren seinale.



ARGAZKIA ETA TESTUA: TTIPI-TTAPA

Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien ibilbide-orrria aurkeztu dute Donezteben

Guzman Garmendia Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien zuzendari nagusiak, Iñaki Agirre eta M^a Jesus Ganboarekin batera iragarri zituzten ekimen berri honen printzipioak: «herri-administrazioaren gardentasuna herritarrekiko; herritarrek beraien egindako proposamenak abiapuntu hartuta proiektu edo neurri berrien plangintza egitea eta, herri-administrazioen eta herritarren arteko eztabaida aktiboa bultzatzea». Egitasmo berria eta berritzailea denez, aurkezpen publikoak ari dira egiten hainbat herritan eta, aurkezpen hauetan, aurretik egin diren eztabaida publikorako mahaletan jasotakoak aurkezten ari dira: software librearen zabalpena Nafarroan; gobernuaren eta herritarren arteko komunikazioa; interneten egoera landeremuan eta (IKT) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zabalkundea.

UDALA → EGUR LOTEAK AMEZTI MENDIAN

Egurra menditik ateratzeko lana enpresa bati agindu dio Udalak

Horrek sortzen duen gastua eskatzaileen artean ordaindu beharko da

Mattin LARRALDE

Udalak egur loteak aterako ditu Amezti mendian eta edozein herritarrek eskatzen ahal izanen ditu. Egur lotea-

gatik ez zaio deus ere ordaintzen Udalari, baina hala ere, orain Udalak segurtasunagatik enpresa bati eman dizkio egur horiek botatzeko lanak, eta lotea eskatzen dutenen artean ordaindu beharko dute sortzen den gastua.

Zuhaitzak hagitz haundiak direlaokoz hartu da neurri hau eta inguruan baserri bat ere badelako. Gisa hone-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herriko Ostatuko kontuak

Medikuaren kontsulta eta udaletxea garbitzeko lanak Herriko Ostatua hartzen duenari ematea erabaki du Udalak. Honela hilabetean 150 euro finko izanen dira. Horrez gain, Udalak informazio puntua izatea ere nahi du, ordu batzuez irekia edukiz.

tara, gainera, loteak ahalik eta berdintsuek izanen dira.

Akats zuzenketa

Aitzineko alean hantxartze ttiki bat izan

genuen. Santo eta Itxaronen Urrezko Ezteiak zirela paratu genuen eta ez da horrela izan. Zilarrezko Ezteiak izan dira, 25 urte egin baitituzte ezkontuta. Lerro

hauen bidez, barkamenak. Ari denari gertatzen zaizkio horrelako gauzak, baina berriz ere zorianak eta segi horrela bikote urte aunitzez.

HOBETU ZURE ETXEA, BARATZEA EDO LANDETXEAK



Elektrifikazio
instalazioak
energia
berriztagarriekin
baserri eremuetan.

NAFARROAKO GOBERNUAK
LAGUNDUTAKO INSTALAZIOAK

Eskatu gurettiko baterketa
konpromisorikgabe



ITUREN

OSPAKIZUNAK → BESTAK

Herriko bestak prestatzeari ekin dio Udalak herritarren laguntzarekin

Uztailaren 13ko asteburuan ospatuko dira

Arkaitz MINDEGIA

Oraindik pare bat hilabete falta baldin badira ere, bestak antolatzen hasiak dira. Eguna ere finkatua da eta uztailaren 13ko asteburu horretan izanen dira Iturengo bestak. Dagoeneko herritar multzo bategi pare bat bilera egin ditu bestak antolatzeko, Udalak eta herritarrek antolatutako bestak izanen baitira.

Hitzaldia

Apirilaren 27an, Udalak antolatuta, hondakinak bildu eta kudeatzeari buruz hitzaldia eskaintzekoa zuen Zero Zabor taldeak Ganbaran.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hilabete pare bat gelditzen da oraindik bestetarako baina prestaketak hasiak dira.

Herritarren kezak eta proposamenak

Bere garaian iragarri bezala, herritarren kezak, nahiak eta beharrak bildu nahi ditu Udalak eta helburu horrekin, orain gutti, herriko elkarre, enpresa eta komertzioekin bildu zen. Ge-

ro, berriz, etxe-etxe galdeketa paratu zuen martxan eta apirilaren 20an akitu zen hiru galderak erantzuteko epea.

Udalak herritarren erantzunak ikusiko ditu eta gerora jakinaraziko ditu prentsaurreko batean.

Pulunpa eskola

Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak ikasturteko hirugarren eta azken hiruhilekoan sartu dira dagoeneko, eta azkeneko lanak, azterketak eta nola ez, azkeneko ateraldiak egiten ari dira. Maiatzaren

14 eta 15ean, eskolako ikasle batzuk Hondarribiko Elkano aterpetxera joanen dira eta gau bat pasatuko dute han. Malerrekako gainerako eskoletako ikasle eta irakasleekin batera pasako dituzte bi egunak, 90 bat lagun elkartuko dira.

MURRIZKETAK

Espainiako Gobernuaren murrizketak direla eta, irakasle, guraso eta ikasleak kezkatuta agertu dira eta iragarritako neurriei aurre egiteko mobilizazioak prestatzen ari dira eskoletan, bai Baztan, bai Malerreka eta bai Bortzietako eskolekin ere. Murrizketa larriak heldu dira eta azken finean, ikaslearen heziketarekin ari dira jolasean. Erran dieza jolasean ezet murrizketei!



Anduezteta, 12 | ETXALAR | 948635456

500 91 €

bisita txartel

Kartulina berezia 400gr. • koloretan bi aldeetatik • BEZ. barne

100 txartel 70€

250 txartel 85€

1000 txartel 112€



nutrizio eta dietetika balardenda.



%5eko
DESKONTUA
komunitate eta produktuentan

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Ekialde Herria 20€
- Europa 50€
- Baxeri, Untsueta eta Malerreka 32€
- Amerika eta Australia 120€
- Ipar Ekialde Herria 50€
- Letonia 10€



(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

zalain

Zalain autzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
W. www.zalain.com

zalain

OSPAKIZUNAK → MALERREKAKO EGUNA

Malerreka Eguneako mus txapelketaren kanporaketa hilaren 11n jokatu da

Bestalde, herri afarirako txartelak ere salgai daude

DATUA

50

TXARTEL
gorde dira zubietarrendako Malerrekako Egunean eginen den herri afarirako. Maiatzaren 13ra arte izanen dira herritarren eskura.

Fermin ETXEKOLONEA

Gero eta gutxiago gelditzen da maiatzaren 26an Zubietan ospatuko den Malerrekako Egunerako eta presaketak aurrera doaz.

Egun horretan, 150 lagunendako herri afaria eginen da eta lehenengo festa gure herrian eginen denez, afarirako 50 txartel gorde dira herritarrendako. Txartel horiek maiatzaren 13ra arte egonen dira zubietarrendako salgai. Herriko Ostatuan eta Okindegian erosten ahalko dira. Maiatzaren 13tik aurrera, txartelak soberan gelditu badira, beste herrietara banatuko dira.

Eguneako beste ekitaldia mus txapelketa izanen da. Finala jokatu da maiatzaren 26an baina hori baino lehen, herriz-herriko kanpora-

ketak jokatu dira. Zubietan, maiatzaren 11ko ilunabarrean izanen dute herritarrek musean aritzeko aukera, Errandonea ostatuan.

Egitarauaren gainerrako xehetasunak hurrengo aldizkarian ematen ditugu.

Haziaren Jaia

Nafarroako Hazien Sarearen laguntzarekin, bertako haziaren jaia apirilaren 21ean egin zen eta antolatzaileak kontent gelditu dira. Goizean hazi trukeak eta solasaldiak egin zituzten eta eguerdiko bazkariaren 25 lagun elkartu zi-



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Ipuin kontalaria eta birziklatze tailerra Gaztegunean

Aste Santuko oporretan Estitxu Pascual ipuin kontalariaren saioa eta Ines Gerekarekin birziklatutako materialarekin eskulanak egiteko aukera izan zuten neska-mutikoek Gaztegunean. Haur kuadrilla ederra bildu zen eta oso ongi pasatu zuten. Eta Gazteguneaz ari garela, aipatu, orain arte Leire Bazterrika izan dela arduraduna, baina beste lan bat atera zaio eta bere orde, Texas hasi da. 17:00etatik 19:00etara elkartzen dira.

ren, babarrun eta baba dastatuz. Bertako hazia manten-

du eta berreskuratze lanean ari da egun hau antolatzen duen taldea

eta dagoeneko urte batzuk badira jai hau antolatzen dutela.

KATEA-BIKE

11 ttipi txartela

%5eko DESKONTUA konporatutari

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colin Pas. E - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRRAN

BEINTZAKO OSTATUA

Tel: 948 45 00 14

ORBELA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Berritza arazi taldea

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Larunbat honetan ospatuko da Ittur Ondo elkartearen maiatzeko besta

Eguerdiko aizkora apustuak emanen dio bestari hasiera

Amaia MINDEGIA

Urtero-urtero, maiatzean Ittur Ondo Elkartearen besta egiten da Beintza-Labaienen. Eta aurten ez da egin gabe geldituko: larunbat hau, maiatzak 5, izan da aukeratutako eguna.

Eguerdian, urteroko tradizioari eutsiz, aizkora apustua izanen da ohiko herritarren artean, bazkal aitzinean, hain zuzen.

KARTA JOKOA

Bazkaldu ondotik, mus txapelketa jokatu da eta horrekin batera beste karta jokoetan aritzeko aukera ere izanen da.

Ondotik, bazkaria egiten da Ittur Ondon, elkarteko kide direnen artean. Bazkaltzeko menua ondokoa izanen da: zizka-mizkak, txuleta, postrea, kafea eta kopa.

Bazkaldu ondotik, mus txapelketa izanen da, baita bestelako karta jokoak ere, animatzen denarentzat.



ARGAZKIA: AMAIA MINDEGIA

Besta edozein dela ere, aizkora apustuak ez du sekula hutsik egiten gure herrian. Argazkia duela bi urteko maiatzeko bestakoa da.

EUSKARA

GIZARTEA → LEXNAVARRA WEBGUNE OFIZIALA

Udalek eskatuta zuzenbide ataria euskaratuko duela erran du Gobernuak

54 udalek bultzatu dute eskaera, aunitz eskualdekoak

TTIPI-TTAPA

LEXNAVARRA Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialeko atari publikoetako bat da, eta sorreratik, 2007tik, gaztelaniaz bakarrik eskaini izan du zerbitzua. Nafarroako

Udalek eskatuta zuzenbide ataria euskaratuko duela erran du Gobernuak. Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialeko atari publikoetako bat da, eta sorreratik, 2007tik, gaztelaniaz bakarrik eskaini izan du zerbitzua. Nafarroako

Udalek eskatuta zuzenbide ataria euskaratuko duela erran du Gobernuak. Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialeko atari publikoetako bat da, eta sorreratik, 2007tik, gaztelaniaz bakarrik eskaini izan du zerbitzua. Nafarroako

ESKUALDEKO SINATZAILEAK

Ainhoa Ansa **Arano**-ko alkatea, Jaime Iturrria **Arantzako** alkatea, Ur Alguero **Aresoko** alkatea, Garbiñe Elizegi **Baztango** alkatea, Marisol Taberna **Berako** alkatea, Antonio Erregelena **Bertizaranako** alkatea, Francisco Maria Retegi **Eratsungo** alkatea, Migel Mari Irigoien **Etxalarko** alkatea, Pa-

blo Miranda **Goizueta**-ko alkatea, Lourdes Ibarluzea **Igantzi**ko alkatea, Mari Jose Bereau **Iturengo** alkatea, Oier Eizmendi **Leitzako** alkatea, Peio Etxabide **Lesakako** alkatea, Alberto San Migel **Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitate**-ko presidentea, Amets Inda **Sunbillako** alkatea eta Patxiku Mitxelena **Zubietako** alkatea.

DONAMARIA

KULTURA → ASTEBURU KULTURALA

Haur, gazte nahiz helduendako hainbat ekitaldi izanen dira aste honetan

Tailerrak, hitzaldia, mus txapelketa, mendi itzulia eta bertso afaria izanen dira

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Ekitaldiz betetako egunak izanen ditugu aste honetan herrian, Donamaria-Gazteluko herriak, Malerrekako Mankomunitatearen, IMTren eta Donamariako Benta

jatetxearen laguntzarekin hainbat jarduera antolatu baititu.

MAIATZAK 2, ASTEAZKENA

- 17:00etan erabilera anitzeko aretoan: *Elika-gaien alde alai, umeen jolasa* tailerra eskainiko du Donamariako Bentako sukaldariak.

MAIATZAK 3, ORTZEGUNA

- 18:00etan umeendako serigrafia tailerra parkean edo frontoian.
- 21:00etan erabilera anitzeko aretoan, *Ma-*



UTZITAKO ARGAZKIA

55 urte elkarrekin

Leon Lasagak eta M^a Juana Telletxeak apirilaren 24an 55 urte bete dituzte ez-kondurik. Aunitz urtez eta segi bertze urte aunitzez horrela!

lerrekako ahozko ondarea bideo emanaldia.

MAIATZAK 4, ORTZIRALA

- 18:00etan parkean edo frontoian, talo tailerra eta berendua.
- 20:00etan herrian barna, kantu zaharrak kantatzen ibiliko dira. Herriko Ostatuan egin da hitzordua.
- 22:00etan Herriko

Ostatuan mus txapelketa. Malerrekako Egunean jokatu den final haundirako txartela egonen da jokoan.

MAIATZAK 5, LARUNBATA

- 09:00etan Herriko Ostaturik abiatuta, mendi ibilaldi erraza. Bidartxokan gosaria eginen da.
- 18:00etan, erabilera

anitzeko aretoan, umeendako ipuin kontalaria Izaskun Mugikarekin.

- 21:00etan bertso afaria Herriko Ostatuan, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendirekin.
- Ondotik dantzaldia Migel Angel Agerralderekin.
Animatu zaitezte, giro ederra izanen da eta!

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 26AN ZUBIETAN

Malerrekako Eguneko herri afarian parte hartzeko sarrerak salgai daude

Zozketako txartelak ere salgai paratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Zubieta izanen da aurtien lehenbiziko aldiz ospatuko den Malerrekako Eguna hartuko duen lehen herria. Maiatzaren 26an Malerrekako hama-hiru udalerritako herri-tarrak besta giroan bil-

tzeko hitzordua egin du Malerrekako Mankomunitateak eta egun guztirako egitarau bete-a pres-tatu du: musika goizean eta gauean, artisau era-kusketa, opil jatea, bu-ruhandiak, dantzariak, bertsolariak, paella-jate-a, umeentzako taile-pelketaren finala, aizko-rra apustua, joaldunak, herri afaria... Egun atse-gin bat pasatzeko auke-rra ederra. Eguna hurbil-

tzen ari den heinean, egi-tarua zehaztuko dugu.

Dena den, badira aitzinetik kontuan hartu beharreko zeinbat ohar. Alde batetik, herri afarian 150 lagunendako tokia izanen da eta joan nahi duenak txartelak Malerrekako Mankomunitatearen bulegoan edo herrietako zinegotziei gal-detuta eskuratu ahal izanen ditu, 25 eurotan.

Malerrekako Egune-rako zozketa ere presta-

tu dute. Txartelak euro batean paratu dituzte sal-gai eta zozketa egun haundian eginen da: Ma-lerrekako produktuez osatutako bi saski eta bi lagunendako afaria zoz-ke-tatuko dira. Boletoak Mankomunitatean edo zinegotzien esku daude, erosi nahi izanez gero.

Mus txapelketa ere eginen da Malerrekako Egunearen harira. Finala maiatzaren 26an eginen da, baina aitzinetik herri

bakoitzean kanporake-ta bat eginen dute. Izen-ematea hamar euro kos-tako da. Finalera pasa-ko diren bikote guztiek botil ardo bana hartuko dute. Irabazleek, berriz, 50na euro eta txapela hartuko dituzte eta azpitzapeldunek 50na euro.

Ospakizunaren non-dik norakoak azaltzeko prentsaurrekoa eginen dute maiatzaren 22an 18:00etan.

LEGASA

GIZARTEA → KONTZEJUA

Nobedaderik ez kontzejuko ordezkari berrien artean

Laura
Andresena
izanen da
alkatea

TTIPI-TTAPA

Azkeneko hauteskundeetatik hilabete batzuk pasatu dira dagoeneko. Kontzejuan jendea sartzeko hainbat saikeraren ondotik, azkenean taldea osatu eta lruñetik onarpena jaso ondotik, honakoek osatzen dute Kontzejua: Laura Andresena, Asier Irisarri, Aitor Zelaieta eta Dabid Andre-

sen. Erran, denek ere esperientzia badutela Kontzejua egunero koetan, izan ere, aurreko legealdian arituta koak dira. Kontzejuko lehendakaria edo alkatesa Laura Andresena izanen da.

BILERA IREKIA

Apirilaren 28an Kontzejua bilera irekia egiteko zuen, aterpea subastan ateratzeko hainbat baldintzen inguruan solasteko. Herritarren iritzi edo proposamenak biltzeko asmoa zuen eta proposamenak jaso ondotik, baldin-

tzen agiria delakoa presatu eta Nafarroako Gobernura bidaliko dute Kontzejuko ordezkariak.

Bertzalde, aterpeari izen bat jartzeko proposamenak ere eskatu ziren eta apirilaren 28aren aurretik kontzejuko buzoian utzi behar ziren. Egun horretako bileran, jaso ziren izen ezberdinak aurkeztu eta horien artean, bozketa egiteko zuten. Boto gehien bildutako proposamenak 30 euro lortu zituen.

Xehetasun gehiago hurrengo alean emanen dugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aterpea subastan ateratzeko baldintzen inguruan hitz egiteko bilera deitu zuen Kontzejua apirilaren 28rako. Eta aterpea aipatu dugula, aurtengo auzolanak aterpetxean lanak egiteko izanen dira.

AUZOLANAK

Auzolanak egiteko deialdia ere zabaldu du Kontzejua. Lehenengo apirilaren 28an egi-

tekoa zen. Aurten, hiru auzolan egin beharko dira eta auzolanak aterpetxeko lanak egiteko erabiliko dira.

NARBARTE

GIZARTEA → ZERBITZUAK

Aste batzuetako atsedenaldiaren ondotik berriz ireki dute Herriko Ostatua

Aurkeztutako eskaintzen artean Barbarari eman zaio ardura

Martin BERTIZ

Hiruzpalau bat aste pasatu dira Bittorik ostalua utzi zuenetik eta bazen gogo berriz ere elkartzeko txoko bat izateko. Garaiak garai, Bittoriren momentua pasatu zen eta orain Barbararen zikloa hasi da. Kontzejua Herriko Osta-

tua hartzeko epea zabaldu zuenetik bizpahiru interesatu agertu ziren, baina azkenean, Barbara gelditu da ostalua hartzeko ardurarekin. Hala, apirilaren 13an zabaldu zituen lehenbizikoz Barbarak ostaluko atea.

Bere garaiari, ilusioz beteta eta lanerako gogo izugarriekin ekin dio la erran digu. Bere asmoen artean, plater konbinatuak, bokadiloak, pintxoak eta razioak zerbitzatzea dago. Jakinarazi digu jende guztiari zabaldu nahi dizkiola



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Apirilaren 13an zabaldu zituen Barbarak Ostaluko atea.

ostaluko atea eta eadenen artean herriko txo-

ko polit eta girotsu bat osatzea lortzen dugun.

Zorriker hoberena opa diogu.



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkari musu-truk

Eskatu zure 948 63 54 58 telefonoari

564. ALEKO IRABAZLEAK

- * AQUARIUM 2 SARRERA
Arantxa Zabaleta Alduriz | ELIZONDO
- * URTXINTXA ESKOLA
PUNPALAPLAN CD + DVD
Salbañor Anselma Oñaz | ETXALAR
- * LANKU MAHAI JOKOA + CD
Maiontz | Mahai Jokoa + M/D Txerria CDa
Laura Canillo Yanes | BERA
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
M^o Kruz Andueza Eraso | ETXALAR
- * POSADA OITZ 2 LAGUNENDAKO
OTORDUA
Mireia Martiniz Vilano | ETXALAR
- * EREN 2 LIBURU
Biodiogeografia + Nur eta affonbri hegataria
Jose Ignacio Aguir Txapetina | BERA

zozketak



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostia Aquarium-a
www.aquariuma.com



IBAIZABAL 2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

deskontuak



LANKU LIBURUA + DVDa
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com



**IRRIA ALDIZKARIA + FAMILIEN
KARTA JOKOA**
Piritx, Porrotx eta Marimolats
www.kabiporreta.com



**LESAKAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA**
Lesakako Udal Igerilekua
www.lesaka.org

ttipi-ttapa

Anduizeta 12-31760 ETXALAR
Tel. 948 635 456 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net

GIZARTEA

DIRULAGUNTZAK → NAFARROAKO GOBERNUAK

1,4 milioi euro 19 nekazaritza-ustiategi modernizatzeko

2,7 milioi euroko inbertsioari dagokio subentzio hori

TTIPI-TTAPA

Nekazaritza-ustiategiak modernizatzeko 22,7 milioi euroko dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak eta horietatik 1,4 milioi euro eskualdera etorriko dira. Zehazki 1.440.921,57 euro bideratuko dira Baztan, Donamaria, Doneztebe, Goizueta, Ituren, Saldias, Urdazubi, Urroz eta Zubietako hemeretzi nekazaritza-ustiategitara. Dirulaguntza hori 2.743.000,76 euroko inbertsio dagokio. Baina aipatu, dirulaguntzaren %25 Landa Garapenerako Europako Nekaza-



HERRIA	ONURADUN KOPURUA	INBERTSIOA	LAGUNTZA
BAZTAN	9	1.736.359,92 €	959.726,34 €
DONAMARIA	2	198.806,30 €	89.462,84 €
DONEZTEBE	1	32.324,48 €	14.546,02 €
GOIZUETA	1	64.489,81 €	29.020,41 €
ITUREN	1	42.496,00 €	23.372,80 €
SALDIAS	1	49.426,36 €	22.241,86 €
URDAZUBI	2	300.746,68 €	157.847,76 €
URROZ	1	303.896,25 €	136.753,31 €
ZUBIETA	1	14.454,96 €	7.950,23 €
GUZTIRA	19	2.743.000,76 €	1.440.921,57 €

ritzako Fondoak bideratuko duela.

Oraindik egin gabeko lanak dira, eta hala,

dirulaguntzak 2014 eta 2015ean emanen dira.

DIRULAGUNTZAK

Suhiltzaile boluntarioen parketarako dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 120.000 euroko laguntza emanen du zazpi herritako suhiltzaile boluntarioen parkeen dako. Tartean daude eskualdekoak: Bera, Leitza eta Lesakako Udalek 16.500 euro hartuko dituzte eta Goizuetakoak 18.500 euro. Laguntza honen bidez, gastu arruntei eta materiala erosteko inbertsio ttikiei aurre egin ahal izanen diete. Udalek Nafarroako Larraldi Agentziarekin elkarlan hitzamina sinatu dute, babez zibileko sistemarekin duten lotura berrituz. Hala, larraldietako ateraldiak koordinatuko dira, batez ere suteen prebentzio eta itzaltzearen eta salbamentuarekin zerikusia dutenak.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIENRI | BERA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LEITZA | BETEJUI
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

Geroa gurea da. Denen eginahalan
esker, aurrera egiten segitzen ahal
dugu, osasunean, hezkuntzan,
enplegua sortzen, ongizatea
sendotzen, hobera egiten.

Denen artean idatziz gero,
hobea izanen da geroa.



2011ko errenta aitortpena
2012ko apirilaren 18tik ekainaren 22ra

ARANO

GIZARTEA → FESTAK PRESTATZEN

Festetako batzordearen deialdiak erantzun ona izan du herritarren aldetik

Festetan karpa bat jarriko da eguraldiaren menpe ez egoteko

Ainhoa ANSA

Apirilaren 21erako deialdia egina zegoen eta jendeak erantzun ona eman zuen. Festen antolaketarako aspaldian egin den bilera parte hartzaileena egin zen larunbat hartako ilunabarrean.

Festen batzordeak eginahal hau asko eskertzeaz gain, balorazio positiboa egin du eta lanean hasteko gogoia bada dela ikusita, aurten erronka batzuk hartzeko moduan ikusten da herria.

Erronka hauen berri

emateko astia gero ere izanen da baina, aurreratu daiteke aurten karpa bat jarriko dela eguraldiak egiten duena egin.

Hurrengo bileraren eguna eta ordua jartzean jakinaraziko zai-zue. Mila esker guztioi, Festa Batzordearen ize-nean!

Zazpi lagun letarrietan

Eguraldi kaxkarrari hortzak erakutsiz atera ziren herriko zazpi lagun letarrietako buelta egitera.

Goizean, 08:30ean, plazan elkartu eta abiatzea erabaki zuten eta, eguerdian, 13:30ean, herrira iristea eurlan egin bazuten ere, ateri egin zien ia bide guztia. Bejondeizuela!



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Arano Euskal Telebistan

Herri txikietakoko bizimodua erakustea helburu duen saio berri bat jarriko dute abian 3koma produktorak eta ETBk. Urko Aristik aurkeztuko duen saioak *Bizirik* izena eramanen du eta maiatzean hasiko dira emititzen igande gauean. Lehenengo saiorako bi herri aukeratu dituzte eta hauetako bat izanen da Arano. Elantxoberekin batera aterako da 50 minutu iraunen duen saioan eta apirilaren 25 eta 26ean grabaketak egiteko helburuarekin izan ziren Aranon kamarak hartuta. Arano esku zabalik hartu zuen beren bizimodua eta bertako bazterrak jasotzera zetorren koadrila eta herri gehienak parte hartu zuen gauza batean ez bazen bestean. Kontsejun eguerdian jarri zuten babarrun jatera ere lagun talde polita agertu zen eta egun guztiko grabaketaren ondoren pozik agertu ziren bai ETBkoak eta baita herrikoak ere. Arano, bere txikitutasunetik zer erakutsi handia duela garbi utzi zuen beste behin ere. Orain benetan baikorra eta poztekoa izanen litzatekeena, Nafarroan euskarazko hedabideen etorkizuna bermatzea izanen litzateke. Horrela izanda, hortik aurrerakoak jakin nahi dituenak eta gustua duenak, programa ikusi ahal izanen luke maiatzaren 13 edo 20ko igande gauean ETBn.

Mundu gustiak ikuntzeko!
100 KARTEL 93€ (A3 leturak)
250 KARTEL 110€ (A3 leturak)
*BEZ gabe (8.4%) Leturak hiru 2012/03/01
ttipi-ttapa ETXALAR | 948 63 54 58 | www.kulturari.com

Faktura orriak eta kartazalak

inprimitzen
ditugu

Eskatu
informazioa:

948 63 54 58
kulturari@ttipi.net

ttipi-ttapa



fakturak / orriak

1.000 A4 → 86€
koloretan, 90 g. BEZ gabe



kartazalak

1.000 ale → 107€
zuri beltzean BEZ gabe

KIROLA → UMORE ONA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Aspaldiko partez krosa egingen da maiatzaren 27an haur eta helduentzat

Lasterketan izena emateko Internetez egin daiteke

TTIPI-TTAPA

Aspaldiko urteetan galdua zen ohitura berreskuratu egin nahi du Umore Ona Elkarteak, eta herriko beste eragileekin laguntzarekin, krosa antolatu du maiatzaren 27rako.

Denek izanen dute parte hartzeko aukera, txiki eta helduek. 10:30ean hasiko dira txikienak eta 11:00etan emanen zaio irteera helduen lasterketari. Helduen ibilbidea egiteko, garai bateko zirkuitua berreskuratuko da. Herria inguraturiko du, plazatik atera eta bertan bukatuko da, erdia errepidetik egingen da eta beste erdia mendiko senda batzuetatik. Hiru kilometroko luzera du zirkuituak eta hiru itzuli egin beharko dira, bederatzik kilometro osatuz.

Laisterketaren inguruko informazio gehiago eta izena emateko www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke. Izen-ematea orokorrean hamar euro gostako da, baina herritarrentzat zortzi euro eta egunean berean hamabortz euro.

Kanpotik datozen partaideentzat, antolakuntzak dutxak eta motxilak uzteko gunea prestatuko ditu. Gisa berean, parte hartzen dutezentzat opariak izanen dira eta zozketak ere egingen dira.

Erreka garbitzea

Ingurumena zaintzearen garrantziaz jabetuta, erreka bazterrek garbi mantendu nahi ditu Udalak eta horretarako deialdia egin die herritarrei. Maiatzaren 19an, larunbatarekin, egin dute garbiketarako hitzordua eta erreketan pila-tutako zikinkeriak bilduko dira. Pili Apezetxea zinegotziak azaldu digunez, garbiketa egiteko laguntza emanen du CRANA Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroak. Garbitzeko materiala utziko du eta parte hartzen dutenei egun bateko aserua ere egingen die, lasaigo aritzeko. Horrez gain, hamaiketako ere eskainiko du CRANAK.

2012ko aurrekontua

Aurtengo diru-sarrera eta irteerak zehaztu ditu Udalak. Guztira, 1.447.410 euroko aurrekontua onartu du, aurreko urtekoa baino pixka bat tikiagoa. Pablo Miranda alkateak azaldu digunez, «poliki-poliki aurrekontuak ajustatu nahi ditugu, heldu den urteetako diru sarrerak jasiten joanen direla aurrekusten baita».

Mendiko lanak eta zaborte-gia ixteko lanen lehenbiziko fasea izanen dira aurtengo inbertsio nagusienak.

URTEBETERA BALANTZEA

Aurreko aleetako batean, Udalak herriko eragileekin bilerak egiteko asmoa zuela adierazi genuen. Bada dagoeneko, gehienak bukatu dituela



ARGAZKIAK: ELENA GARCIA

Kirolari gaztetxoak futbiton

Umore Ona Futbito taldeko gaztetxoek herrian partida jokatzeko aukera izan zuten apirilaren 15ean. 21 ume dira futbiton aritzen direnak eta ostiralero entrenatzen dute Xumar Bakerorekin. Ez dute txapelketarik izaten, baina kasu honetan, eskolako gimnasiako maisuek, Sergio Carrion eta Mirentxu Jimenezek, partida batzuk antolatu zizkieten Irungo Dunboa taldekoekin. Lehenbiziko partida Umore Onak irabazi zuen 7-2ko markagailuarekin eta bigarrena ere herrikoek irabazi zuten, 4-2.



ARGAZKIA: JABIER APEZETXEA

Txakolina probatzera

Umore Ona Elkarteak antolatuta, apirilaren 21ean txakolina probatzera joan ziren 40 bat lagun Getariako Ameztoi txakolindegira, baita oso gustura ibili ere. Agerikoa da argazkia bazkalondorengoa dela...

esan daiteke. Behin horiek eginda, eta udal talde berria Herriko Etxean lanean hasi zenetik

urtea betetzen denean, urte honen balantzea egiteko asmoa du Udalak. Ekain erdialdera herri ba-

tzarra egingen du, urtea nola joan den azalduz. Balantzea txosten batean ere bilduko dute.

LEITZA

KIROLA → AURRERA ELKARTEAK ANTOLATUTA

200 lagunek baino gehiagok bukatu dute 34. aldiz egin den krosa

Iruñeko Antonio Etxeberria izan da bizkorrena

JM BARRIOLA

Apirilaren 21ean, XXXIV. herri krosa jokatu zen herrian. Eguraldi txarrarekin egin behar izan zuten laisterkariak. Lehen igande goizetan izaten zen eta azken hiru urte hauetan, berriz, larunbat arratsaldetan egiten da eta arrakasta izaten ari da ordutegi berria. Mailaz maila hau izan zen sailkapena:

SENIOR MUTILAK

1. Antonio Etxeberria Serrano. (Iruñea)
2. Mouhssin Charkaoui (Atika).

GIZONEZKO BETERANOAK

1. Abdelhadi Abassa (Andosilla).
2. Victor Badejon Sanchez (Irun).

SENIOR NESKAK

1. Salima Charki (Andosilla)
2. Senayed Mesgamaw Ferede (Etiopia).

EMAKUME BETERANOAK

1. Raquel Llamas Gago (Gasteiz)
2. Cristina Loada Soto (Eibar)

JUNIOR MUTILAK

1. Imanol Inza Lizasola (Zumarraga)

JUNIOR NESKAK

1. Miren Juantorena Zuriñaga (Leitza)

KADETE MUTILAK

1. Andoni Lazkanotegi Matxiarena (Bera)

KADETE NESKAK

1. Amaia Ezkurdia Lasarte (Leitza)

INFANTILAK

1. Koldo Hernandorena (Leitza)
1. Leire Erbiti (Leitza)

ALEBINAK

1. Xabat Illarregi (Leitza)
1. Ane Garro (Leitza)

BENJAMINAK

1. Ekaitz Azurmendi (Leitza)
1. Naroa Erbiti (Leitza)

Goi tentsioko linea airean

Krisia dela eta, argindar kontsumoak behera egin du eta Hego Euskal Herrian abiatutako goi tentsioko linearen bi proiektu bertan behera uztea erabaki du Espainiako Gobernuak. Egitasmo horietako bat, hain zuzen, gure ingurutik pasatzea aurreikusia zen: Castejondik Ezkiorako bidean, Erasote auzotik Guratz zeharkatuz Aresora. Orain, ordea, Gobernuak ez omen du baimenik emanen linea horiek egiteko, planifikazio berria egin eta beharrezkoak direla baieztatu arte. Bi egitasmo hauen bultzatzailea den REE Red Electrica de España enpresak ekainaren 30erako egin behar du txostena eta ondotik ikusiko da zer erabakitzen duten Madrilen.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Euriari aurre egin behar izan zioten laisterkariak krosean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Amazabal auzoko urbanizazio lanak

2009-12ko Azpiegitura Planean aurreikusita dagoen Amazabal auzoko urbanizazioa aurten egiteko pausoak ematen hasia da Udala. Aurreko urtean proiektua egin zuen eta orain obrak egin ahal izateko finantza plana onartu eta Nafarroako Gobernura igorri du Udalak. Era berean, inbertsioa egin ahal izateko aurtengo aurrekontu aldaketa onartu zuen eta diruz lagunduta ez dagoen obraren zatia 2011ko gerakinekin finantzatzea aurreikusi da. Beraz, Amazabal auzoan hornidura, ur zikin eta eurietako sareak eta zoladura berritzeko lanei hasiera eman ahal izateko Nafarroako Gobernuaren oniritzia besterik ez da falta.

Udala Garoñako zentralaren aurka

Martxoko Udal Batzarrean, Garoñako zentral nuklearra ixteko mozioa onartu zuen Udalak, Bilduko ordezkarien botoei esker eta DNE eta UPNren aurkako botoekin. Estatuan dagoen zentral nuklear zaharrena da, 1971n martxan jarritakoa. Bere garaian 40 urteko bizia zuela esan zuten eta epea gainditua du. Ikusita zein on-

torio larriak izaten dituzten istripuren bat gertatuz gero, Udalak zentral hau lehenbailehen ixteko eskatu du.

Egur loteak

Alkateak bandoa jarri du aurtengo sutarako egur loteak eskatzeko epea zabalduz. Lotea nahi duenak 012ra deitu behar du maiatzaren 31 baino lehen. Lotearen truke 45,88 euro ordaindu behar dira, eta

auzolana egiten duenari bueltatu egingen zaio.

Suhiltzaileen funtzionamendua

Udalak eta Nafarroko Larrialdietarako Agentziak suhiltzaileen antolakuntza bermatzeko hitzarmena adostu dute. Herriko suhiltzaile taldea borondatez osatzen dute herritar talde batek eta hitzarmen honekin zerbitzua egonkortu eta hobetzea da helburu nagusia.

EUSKARA → BALORAZIOA

Areson euskara osasuntsu dagoela ondorioztatu dute

Euskararen alde egin den lanaz balorazioa egiten ari dira

Juana Mari SAIZAR

Azken hamabost urteotan Areson euskararen alde egin den lanaren balorazioa egiten ari da euskara teknikaria. Lehenik inkesta batzuk banatu dira hainbat lagunen artean eta ondoren, lantalde bat elkar-tu da herrian urte hauetan egindako lanaren inguruan gogoeta egiteko. Euskarak herrian duen egoera osasuntsua dela ondorioztatu

dute, aurrerakada nabaria eman dela. Orain bigarren bilera bat deitu du hemendik aurrera zer egin behar den zehazteko, jendeak dituen proposamenak ikusteko eta falta diren esparruetara nola iritsi gaitzeko erabakitzeke.

Euskararekin lotuta, esan behar da, Udalak bat egin duela Berria egunkaria bultzatzen ari den *Zure ziztada behar dugu* erreklamuarekin, eta udaletxeko baldakoiari zintzilik dago kartela. Beraz, jendea animatu dadila komunikabide euskaldunak laguntzera, denen premia dago eta!



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Goiko argakia euskararen lantaldekoa da eta behekoa udaletxean dagoen kartelarena.

Olazabal bigarren mailako finalean

Olazabal pilotaria Bigarren Mailako Binako Txapelketako finalean ailegatu da, eta ale hau argitaratzerako partida jokatu izanen duenez, emaitza ezin dugu idatzi. Hala ere, badakigu egun horretan frontoian herritarrak lagun izan zituela da, eta gazte

gehienak joan zirela Mikel animatzera. Ondoren, galdu edo irabazi, jokatu duen txapelketa ederra ospatzeko sagardotegira joatekoak ziren guztiak batera.

Asis Sarea

Bada urtebete herri-talde bat elizan elkartzen dela Asis Sarearen inguruko otoitzaldia egitera. Asis Sarearen xe-

dea bakoitzaren bide pertsonalean eta eguneroko fedearen bizipenetan laguntza eskaintzea da, eta espiritualtasun frantziskotarraren intuizioa dutenen bidea zabaldu eta jorratu nahi du. Hitzordua 19:30ean izaten dira, hilabeteko azken ostegunetan. Horrela bada, nahi duen guztia gonbidatuta dago bertara.

LEITZA

TURISMOA → PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOAK ANTOLATUTA

Igande honetan egingen da Natur Bideen Eguna Plazaolan

TTIPI-TTAPA

Ibilbideak, tren txutxua, artisauen merkatua, zozketak, musika, animazioa... Horiek izanen dira, besteak beste, igande honetan, maiatzak 6, Lekunberriko ospatuko den Natur Bideen Egunean. Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta du, aldi honetan, Lekunberriko Udaren laguntzarekin.

- 09:00etatik aurrera, familia eta helduen irteera egingen da Leitzako geltokitik abiatuta. Leitzako geltokitik Lekunberriko geltokira bitarte 15 kilometro egiteko aukera izanen da.
- 10:00etatik aurrera, Lekunberriko geltokitik abiatuta, Uitziko tunelera joan eta etortzeko 10 kilometroak egiteko aukera izanen da.

- 11:30an haurren irteera egingen da, animazioarekin. Lekunberriko geltokitik Mugirora joan-etorria egingen dute, guztira 4 kilometro.
- 12:00etatik 14:00etara artisauen merkatua, luntxa, Plazaolako ikusentzunezkoaren proiektzioa, musika, zozketak eta abar izanen dira Lekunberriko Plazaolako geltokian.

Ibilbideetan parte hartzeko, igandean berean eman behar da izena, Leitzako geltokian 08:45etik aurrera eta Lekunberrikoan 09:30etik aurrera heldu eta familien ibilbiderako eta 11:00etan haurren ibilbiderako.

Tren txutxuak, berriz, hainbat ibilbide egingen ditu: 10:00etan eta 12:00etan Leitzako gel-

tokitik Lekunberrikoan joan da eta 11:00etan Lekunberriko geltokitik Leitzakora joan da. 13:00etatik 14:00etara Lekunberriko geltokitik Lekunberriko herrira joan-etorriak egingen ditu. Tren txutxura igotzeko ezinbestekoa da ostirala, maiatzak 4, baino lehen izena ematea: plazaola@plazaola.org edo 948 507205.

GIZARTEA

HEZKUNTZA → MAIATZAREN 2 ETA 3AN KALERA

Haur Eskolen baldintzak okertuko direla salatzen elkarretaratzeak egingen dituzte

Bera, Baztan eta Malerrekako haur eskolek bat egingen dute

TTIPI-TTAPA

Haur Hezkuntzako lehenbiziko edo 0-3 urtekoen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatu nahi du Nafarroako Gobernuak, hezitzaile bakoitzak ardatzen ahal duen haur kopurua igoz eta ziklo honetako ikasle zein irakasleen baldintzak okertuko direlaren beldur dira Haur Eskolak.

Gaur egun, hezitzaile bakoitzak bularra hartzen duten 8 neska-mutiko artatu behar ditu, 1-2 urte arteko 12 haur eta 2-3 urte arteko 16. Europan, aldiz, ratioa erdia da, hau da, hezitzaile bakoitzak gehienez bularra hartzen duten lau haur, 1-2 urte arteko 6 eta 2-3 urte arteko 8 atenditzen ahal ditu. Beraz, lehenik ere haundia zen haur kopurua oraindik ere handitu nahi dutenez, kalita-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Elizondoko Haur Eskolan protesta egin zuten apirilaren 20an Nafarroako Gobernuaren dekretuaren kontra.

tearen ikuspegitik giberako pausua dela uste dute Haur Eskolek.

Gainera, haur eskolen baldintza fisikoetan ere aldaketak egin nahi dituzte eta horrek haurren garapena kaltetzen ahal duela uste dute. Honela, 0-3 urte arteko haurrak dituzten zentroak patiorik gabekoak edo argindar naturalik gabekoak ere izan daitezke dekretu berriaren arabera, eta komunek ez dute nahitaez ikasgelen ondoan egon behar, horrek dakarren segurtasun galerarekin.

MOBILIZAZIOAK

0-3 urtekoen hezkuntza zikloko plataforma ere osatua da eta azken hilabeteetan, hainbat mobilizazio egingen ari dira.


Asteazken eta ortzegun honetan, maiatzak 2 eta 3, erraterako, kalera aterako dira Nafarroa osoko haur eskola gehienak. Bera, Elizondo eta Doneztebeko haur eskolek ekimenarekin bat egin dute eta egun horietan elkarretaratzeak egingen dituzte. **Beran** ortzegunean 17:00etan Errekalde pa-

rean, **Elizondon** asteazkenean 18:00etan plaza eta **Donezteben** ortzegunean 09:30ean haur eskolako atarian. Aipatu, Elizondon, *Segurtasuna bermatzeko, haur kopurua ez igo* edo *Kalitatezko haur eskolen alde* zioten pankartekin protesta egin zutela apirilaren 20an Haur Eskolan hainbat guraso, haur eta hezitzailek.

Hori baino lehen, apirilaren 25ean, Nafarroako Parlamentuaren aituzinean protesta egitekoa zuten, *0-3 duinaren alde, dekretua aldatu le-*

lopean. Eta bitartean, Plataformako kide batzuek parlamentuan lan bilera izan zuten.

Astearte honetan, beriz, STEE-EILAS sindikatuak Nafarroako Eskola Kontseiluan osoko zuzenketa bat aurkeztekoa zuen, guttienez, ziklo honek orain arautzen duen dekretuak zehazten dituen betebeharrak mantendu ditzen eta 2 urteko moratoria bat eman dezaten eskatuz, eskola guztiek beraien zerbitzuak baldintza hauek egokitzeko.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariek eta merdi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratuaren laguntzak ☛ Enpresa berriz egiteko laguntzak 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta alorpenak ☛ Etaberitasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegaitasun planak eta sursuak
--	--

artekari@artekari.com

SESAKA: Siltzio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
 BURELATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

UDALA → AZPIEGITURAK

Elizondoko plazako eraikinaren inguruan eskaintzak aurkezteko epea zabalik dago

Maiatzaren 16ra arte proposamenak egin daitezke

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Foru Plazako eraikinaren atek zabaldu zituen Udalak joan den hilabetean, herritarrek eraikina barreratik ikusteko aukera izan zezaten eta 50 bat lagun hurbildu ziren. Eta hori egin eta biharamunean, eraikin horren inguruko proposamenak edota eskaintzak aurkezteko epea zabaldu zuen Udalak. Maiatzaren 16an akituko da horretarako epea eta udaletxean egin behar da.

Kultur agenda

Maiatz hasieran, hainbat kultur ekitaldi izanen dira. Ortziralean, hilak 4, *Gure bide galduak* helduendako antzezlanak ikusgai izanen da Iruritan. Gizarte Bilgunean, 19:00ean. Eta igandean, Kantiruki taldearekin kantaldia izanen da 19:00etan Elizondoko Arizkunenean.

Maiatzaren 7an *Idazleekin Solasean* ekimenaren barne, Harkaitz Cano gonbidatu du Erratzuko Kultur Taldeak eta *Twist* liburuaz ariko da, 19:30etik aitzinera.

Maiatzaren 10ean Aroztegiari buruz solasaldia egingen da 19:30ean Arizkunenean, Aroztegia eta gero zer? taldeak deituta.

Hilaren 12an, Ttuku Ttuku salsa dantza latinoen erakustaldia izanen da Elizondoko plazan 17:00etan.

Maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko Egunaren dela eta, hainbat ekimen izanen dira. Tartean, Baztango ondare historiko eta arkitektonikoen lagunen Dorrea elkarteak aurkeztuko dute.

Bilduren berripapera

Martxoko berripapera ere kaleratu du Bilduk, aldi honetan, Almandozko harrobiari buruz. Bilduk argitu du «hasieratik handiagotzearen gaia almandoztarrek erabaki behar dutela» defendatu duela. «Inplikaturako alde guztiekin mintzatzen» saiatu direla gaineratu du.

Abenduan almandoztarrek egindako batzarrean harrobiaren aurka agertu zirela oroitarazi du Bilduk. Haatik, gaia Batzar Nagusian eztabaidatu zenean, «Almandozko alkateak erran zuen bere irudia zela herritarrak solasteko eta akordio baterat iristeko prest zirela; herritarrek beren burua ez zutela erabakia hartzeko prest ikusten eta erabakirik hartu baino lehen



UTZITAKO ARGAZKIA

Ernesto Prat etxean

Aitzineko aldi iragarri bezala, etxean da Ernesto Prat. Apirilaren 13an gelditu zen libre 25.000 euroko fidantzapean, eta biharamunean, 150 bat lagunek ongietorria egin zioten Elizondoko plazan, ikurriña artean eta pankartez ingurututa. Bildutakoek Guardia Zibilaren presentzia nabarmena izan zela salatu zuten, eta ekitaldian parte hartu zutenei argazkiak eta bideoak atera zizkietela adierazi zuten.

gauza aunitz konpondu behar zirela erran zuen», dio Bilduk. Hortaz, Batzar Nagusian gaia lantzeko batzordea sortu zen: «batzordekideak almandoztarrekin, harrobi-ko jabeekin eta kaltetutakoekin bildu dira».

Batzordean adostu bezala, herritarrekin batzorde informatiboa egin zen, «galdeketa berrirako galderak adosteko», baina «batzarre gaizto eta beroa izan zela» adierazi du Bilduk: «Almandozko alkateak eta Begoña Sanzberrok izan zuten errespetu faltazko jarre- gaiztiz lotsagarria eta onartezina izan zen». Ondotik, herritar batzuk he-

rriari batzarre-galdeketa egiteko sinadura bilketa egin zuten eta galdeketa horretan zentsoaren %79k parte hartu zuen eta %58 harrobia handitzearen alde agertu zen.

Asfalto lantegiaren eta pista berriaren gaia ere aztertu dira. Bilduren arabera, «2001ean hasi zen pista berria egiteko proiektua, baina ez da deus egin eta orain, espedienteaz aztertzen hasita, asfalto lantegian irekiera lizentziarik gabe ari direla ikusi dugu». Apirilaren 3ko Batzar Nagusian almandoztarrek harturiko erabakiak gehien- gosoz berretsi ziren, harrobia handitzeko bai-

mena emanez eta sarre- ra berria Abreiko parajetik egingen dela erabaki. Bozketa aitzinean bai aldeko eta bai kontrako- en inguruan jendea errot- datu zela ere erran du Bilduk; «erdi eta erdi goiti beheiti». Abenduko boz- ketan ere irudiko zen- bait pasatu omen zen, eta horrelakorik errepikatu ez dadin, ordenantzak aldatu egin ditu Batzar Nagusiak. Horren harira, «Diario de Noticiasen jokamodu manipulatzai- lea» salatu du.

Harrobiak sortzen di- tuen arazoak konpon- tzeko hartu diren neurri- ak ere ageri dira ber- rripaperean.

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Anzabal Anzabalek, Anzabalek, Anzabalek eta Anzabalek enpresak
- Lan-eremuetan
- Berrera eta Argazkiak
- Almandoztarrekin
- Errenta Dikuntza, SEZA...
- Inplikaturako
- Berrera, Berrera, Berrera, Berrera eta Berrera
- Berrera

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

UDALA → TOKIKO INBERTSIOETARAKO PLANA

Tokiko inbertsio planean aurreikusitako obra batzuk ezin izanen ditu egin Udalak

Gobernuaren diru egoera txarra eta seriotasun faltagatik dela uste du alkateak

TTIPI-TTAPA

«Nafarroako Gobernuaren diru egoera txarraigatik eta aurrekontuen seriotasun faltagatik, Baztanek tokiko inbertsio planaren barnean egin behar zituen obra garrantzitsuak ez ditu egiten ahalko». Halaxe adierazi zuten Garbiñe Elizegi alkateak eta Florentino Goñi zinegotziak apirilaren 13an egindako prentsaurrekoan. Obra horien adibide ondokoak aipatu zituzten: Iruiritako uraren goi-hornidura (Iruirita eta Lekaroz zerbizua emanen liekeena), Amaiurko ur depositua, Anizko hilerriko bidea konpontzea, Berroetako bidea moldatzea eta Gartaingo Urkizteko bidea konpontzea. Osotara 683.311,49 euroko lanak dira eta Gobernuak 466.026 euro ordaindu behar zituen eta Udalak 217.284,79 euro.

Duen zorreratik «mailleguak eskatzeko ezintasuna» du Udalak eta «Gobernuaren murrizketak gogorak» tarteko, Udalak inbertsio atala berrantolatu behar izan duela azaldu zuten pre-

tsurrekoan, «guztiz ezinezkoa baitzen aitzineko legealdian onartutako obraguztiak egin ahal izatea». 2.233.850,33 euro dira, eta horietatik 1.560.295,53 euro Gobernuak ordaindu behar zituen eta Udalak 667.559,8 euro. «Interes eta urgentzia soziala irizpide gisa hartuta, aurrekusiak ziren obrak batzuk gerorako utzi eta diru hori uholdeetako kalteak konpontzeko eta behar handiagoa zuten obrak egiteko bideratu da», erran zuten Elizegik eta Goñik. Eta gaineratu zuten, «interes eta urgentzia soziala diogularik bereziki uholdeen kalteak eta herriak urez hornitzeaz ari gara; eta horiek, funtzio sozial garrantzitsuak duten bideetatik: Anizko, Berroetako eta Gartaingo pistak, baserriak etxera joateko beharrezkoak dituzten pistak».

Udalak «bere parteak egin duela» diote Bilduk eta Ezkerrak: «diru mugak ikusita aurrekontu errealak egin eta inbertsioak lehentasunen arabera berrantolatu ditugatik baten barnean gauzak egin ahal izateko». Aldiz, Gobernuak «bere parteak egin duela» diote: «aurtengo aurrekontuetan aitzineko urteko Tokiko Inbertsio Planeko 42



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontzentrazioa eskubide urraketan kontra Arraiozko Simplyn

ELA eta LAB sindikatuek deituta, apirilaren 21ean kontzentrazioa egin zen Arraiozko Hiper Simply supermerkatuaren parean. Alde batetik, «langileen lan baldintza kaxkarrak eta kaleratze masiboak» salatu nahi izan zituzten, eta bertetik, «langileendako urratua dagoen sindikatuzko eskubidea». Sindikatuen arabera, «auniz izan dira arazoak eta gertakizun larriak supermerkatu hori 2010eko ekainean zabaldu zenetik eta egoera azkeneko datetan larriagoa bilakatu da». Egoeraren aitzinean, sindikatuak ez direla isilik eta geldirik geldituko adierazi dute, eta langileei euren babes guztia dutela jakinarazi nahi izan diete. Etorkizunean ere interbentzio gehiago eginen dituztela ere iragarri dute eta akitzeko, «garbi utzi nahi dugu supermerkatuaren aurka ez daukagula deus, are guttiago bertan lan egiten duten langileen kontra, baina egoera hau jasangaitza da eta salatu egin behar da».

milioi euroak ordaintzeko 37 milioi bertzerik ez baititu bideratu. Hau da, 2011n egindako obrak ordaintzeko bortz milioi euro gutiago bideratu ditu». Hori dela eta, «aurtengo obretan hasteko ere, lehenbizi aitzineko urteko bortz milioiak lortu beharko ditu». Udaltxeak aurreikusitako obrei uko egiteko eta horrela, diru hori bertze gisa erabili ahal izateko, Gobernuak legea aldatu eta erraztasunak ematen ari dela ere salatu du te Bilduk eta Ezkerrak.

Gobernuaren kontuak «kudeaketak txar baten emaitza dira», Udala Gobernuaren irudiko eta «udalari eta herritarrek baztertzen ditu». Gisa berean, «kudeaketa txarrak arduradun politikokak ditu Baztanen: UPN-ren udal taldea», diote Ezkerra eta Bilduk: «Baztango UPN Iruñeko buruzagiei kontuak eskatu beharrean, nahasmen-duan bertzerik ez dabil, Udala Gobernauri direnak eta ez direnak egotziz».

Akitzeko, baztandarrak herrietan ura izateko, uholdeetako kalteak moldatzeko eta funtzio sozial nabarmeneko bideak konpontzeko eskubidea dutela oroitari dute eta Gobernuari leporatu diote galaraztea.

Bidelagunen lantegia bi taldetan

Aitzineko alean aipatu bezala, adineko pertsonekin sor daitezkeen egoera zailen inguruan lantegia antolatua du Bidelagun Elkarteak. Doako lantegiaren erantzuna ezin hobea izan da, bolutario, etxez-etxe langile eta erresidentzietako langileen artean 50

bat lagunak eman baitute izena. Izandako erantzuna ikusita, Bidelagun elkarteak bi saio egitea erabaki du. Lehendabizikoa apirilaren 26an egitekoa zen, eta bigarrena maiatzaren 10ean egiten da 17:00etan Bidelagunen egoitzan. Lehendabiziko taldean hamasei lagunak hartu zuten parte eta bigarrenean hamazortzik. Hala ere, bertze hamar bat lagun kanpoan gelditu dira, Isidro Herguedas Bidelagun elkarte ko koordinatzaileak azaldu digunez, «ez baititugu talde handiak egin nahi gaia hobeki landu izateko».



Ba al zenekien...

Gotzon Garateren lagunak Amaiurrera eta Arizkuneraren alde aunitz egin zuen Garatek eta urte andana eman zituen Euskal Herriko zazpi herrialdeetako hainbat baserri, inoiz frantsesa eta gaztelania ikasi ez zuten aita-ama-amaekin solasean, tartean Arizkun eta Amaiurren. Garate duela bi urte hil zen baina azken hamasei urteotan bezala elkartzen segitzen dute bere lagunak. Eta azken hitzordua Baztanen egitekoa zuten.

KIROLA → HERRIKO BESTEN BARNE

Laugarren aldiz herri lasterketa egingen da Iruritan

7,5 eta 5 kilometro egin beharko dituzte lastekariek

falta omen du eta hortaz, maiatzaren 15 edo 20ra arte, bere koadroak 150

eurotan salduko ditu <http://ayudameacumplir.unailusion.blogspot.com>

.es/ blogean. Koadroak markorik gabe daude eta garraio gastua aparte da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

27 ahari Udaberriko Feriako lehiaketan

Ez zen preziski udaberriko girorik, baina halere 27 ahari aurkeztu ziren apirilaren 13an, Elizondoko Udaberriko Feriako ahari lehiaketan, horietako 18 burubeltz sailean eta 9 burugorrietan. Burubeltzen artean Iruritako Gernuxarreko Miguel Angel Maritorenak aurkeztutako batek lortu zuen lehen saria, bigarrena Erratzuko Txisperriko Soledad Iturbidek aurkeztutakoak eta hirugarrena Almandozko Etxotoko Begoña Etxalarrek eramandakoak. Burugorrien artean, lehenbiziko saria Arraiozko Indakoako Felisa Ugarterentzat izan zen, bigarrena ere Arraiozera joan zen, Sagarrio Urrozentzat eta hirugarrena Gartzaingo Etxezurikobordako Feliciano Etxarterentzat. Halaxe erabaki zuen Jon Elizetxe zinegotziak, Gartzaingo Maitoneko Federico Etxenikek, Elizondoko Pardioleneko Manuel Bertizek eta Josu Sarobe albaiariak osatutako epaimahaiak. Antolaketan laguntzaile izan diren Cedernako Izaskun Abriek eta Bertizko Partzuergoko Izaskun Gofiñk ere parte hartu zuten sari banaketan. Lohiari aurre eginez, eguerdi partean batez ere, jendetza ibili zen Merkatuko Plazan. Horietako aunitzek Baztanzopak dastatzeko aukera izan zuten, baita Baztango dantzari tikiiek gorapean eskainitako erakustaldia ikusteko ere. Eskulangileek ere gorapean erakutsi eta saldu zituzten bere produktuak. Ahariez gain, Martin eta Mendiburu tratanteei esker, dozena bat behi buru ere ikusi ziren.

TTIPI-TTAPA

Azken urteotako ohi-turari segituz, aurten laugarren aldiz, herri lasterketa egingen da Iruritan herriko besten barne. Maiatzaren 20an izanen da.

Ttikienak izanen dira laster egiten lehen-dabizikoak. 10:30etik aitzinera hainbat kategoriatako neska-mutikoak aterako dira. 11:30ean helduentxanda izanen da. Gizonezkoek 7,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta emakumezkoek 5 kilometrokoa.

Diana Iniestaren koadroak

New Yorkeko The Art Student's Leaguen ikasketeko behar duen dirua bildu nahian segitzen du Diana Iniesta Erratzun bizidun margolariak. Oraindik ere «diru pixka bat»

ANTXITONIA
Real Estate

Konsumoaren Erantzulea

Diruaren iturria: 16, Elizondoko • 948 591 807 • 948 581 853
txatuz: antxitonia.com • www.antxitonia.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 39 2º | ELIZONDO
T. 948 583 448 M. 630 364 811

MENDI
ostatuak

Santiago 25
948 580 312
ELIZONDO

DIANA INIESTA BENEHEKTO
margolaria eta margolaria

Nork ez du inoiz laguntzarik behar izan?

Beharrezko laguntzarik behar izan duenak

Aste gutxian zehar, haur eta helduentzat margo tailerrak (ordutegi ezberdinak)
<http://dianainiesta.blogspot.com>
659 948 926 - 948 453 478

BAZTAN

UDALA → AROZTEGIA JAUREGIKO PROIEKTUA

Aroztegiko proiektua berrikustea onartu du Udalak

Bildu, Ezkerra eta NaBai2011k egin dute alde

TTIPI-TTAPA

Aroztegiko proiektuaren plan partzialaren behin betiko onarpena berrikusi egingen du Udalak. Halaxe erabaki zuen apirilaren 18ko ez-ohiko udalbatzarrean, Bildu, Ezkerra eta NaBai2011ko zinegotzien aldeko botoekin. Proposamenaren aurka UPNk egin zuen eta kontrako botoa azaltzerakoan, «Udalaren bederatz hilabeteko utzikeria salatze» dela adierazi zuen eta Garbiñe Elizegi alkatea bere garaian *Aroztegia eta gero zer?* plataformako presidente izan zela salatu zuen. Orain, espedientea Nafarroako Kontseilurat bidaliko da eta honek loteslea den irizpidea emanen du.

Batzar berean, egitasmoa geldiarazteko egin den txosten juridikoa azaldu zen, joan den abuztuan eskatua, eta horren arabera, Udal Planaren egiturazko aldaketa puntualaren behin betiko onarpena auzibideetan dago eta baliogabea izan daiteke, eta onartu den plan partzialaren txostenak prozedurazko irregulartasunak omen



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako eskubaloi liga irabazi dute BKTko kadete neskek

Ezuste ederra eman zuen apirilaren 20tik 22ra BKTko kadete mailako nesken eskubaloi taldeak. Kategoria horretako liga erabakitzeke lauko finala jokatu zuen Iruñean eta txapelkun izatea lortu zuen. Sorpresa handia izan zen, izan ere baztandarrek laugarren sailkatu ziren ligaren hasierako fasean eta honela, juxtu-juxtu lortu zuten lauko finalerako sailkatzea. Lauko finaleko lehen partidari, liga erregularrean lehenbiziko postua eskuratu zuen Lizarrako Itxako taldea izan zuten arerio. Partida bakarra galdu zuten ligan Itxakokoek, baina BKTk irabaztea lortu zuen. Biharamunean, hain zuzen, liga erregularrean bigarren izan zen Loyolaren kontra jokatu zuen BKTk eta hamalauna berdindu zuten. Beraz, azkeneko egunean, lehen bi partidak galdu zituen BM River Egaren kontrako partida zuten BKTk. Itxuraz, partida errexena zen, baina ez zen batere xamurra izan. Azkenean, gol bakarragatik izan bazen ere, garaipena lortu zuen BKTk. Hortaz, bi partida irabazi eta bat berdinduta, lauko finaleko azken partidaren esperoan egon behar zuten BKTkoek ligako txapelkun ziren edo ez jakiteko. Eta horrela izan zen. Zorionak!

ditu. Plan partziala legezko epeak pasatuta aurkeztu zela ere ageri da eta plan partzialaren behin betiko onarpenaren inkoazioa legez baliogabea dela, lurzoru berriak sailkatzen dituelako.

Udalak ez-ohiko batzarraren aitzinetik oharra kaleratu zuen,

«proiektuak ez duela Baztango eta Lekarozko etxebizitza beharrekin deus ikustekorik» erranez eta «Baztango lurralde egitura osoa urratzeaz gain, hainbat arazo sortzen dituela» adieraziz. Gaineratu zuenez, «Baztango Udal Plan Orokorrean herritaren

parte hartzerako kuarteletan egin diren bilkuretan nabarmen gelditu denez —ehun herritar bilkuren itzuli bakoitzean—, Baztanen egin beharreko etxeak, egin behar izatekotan, herri bakoitzeko beharren arabera egin behar dira, herri guztietan banatuta».



PERTSONAIA

Jon MAYORDOMO

Bere marrazkia saritua izan da

Kultur ibilbideak Nafarroan barna izeneko sariketaren barrunean, idazlanak eta marrazkiak saritzen dira eta aldi honetan, marrazkien sailean, Baztan Ikastolako Jon Mayordomo Sobrino ikasleak saria eskuratu du. Ekimen hau Inigo Arista kultur taldeak antolatzen du 1981az geroztik, Nafarroako Gobernua laguntzarekin eta aurten 20 lan izan dira saritua.

Protestak Haur Eskolan

Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriekin Haur Eskolen baldintzak okertu direla diote Haur Eskolen eta hori salatzeke elkarretaratzea egingen da asteazken honetan, maiatzak 2, Elizondoko plazan 18:00etan, Baztango Haur Eskolak deituta.

Gaiaren inguruko xehetasun gehiago al dizkari honetako 42. orrialdean.



SOULE

fileta artea

Tfnua: 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN






T: 948 453 050 - AMAJUR

www.mendia.com

GIZARTEA → TURISMOA

Azken urteetan baino bisitari guttiago ibili dira Aste Sainduan

5.000 lagunek bisitatu zituzten lezeak eta 1.600ek museoa

Koro eta Margari

Aste Sainduko eguraldi txarra sumatu da bisitarien kopuruan ere. Lezean eta Museoaan egin duten neurketen araberan, aurten %22 bisitari guttiago pasatu dira egun horietan. Hala ere, Ortzirale Saindu egunean 1.286 lagun sartu ziren lezeetan eta 431 museoaan.

Horretaz gain, aipatzekoa da astelehenean, eguraldi ona egin zuen egun bakarrean, bisitari kopurua auniz handitu zela: %27a. Ematen du aurten Katalunia eta Madrilatik jende guttiago etorri dela. Aldiz, bisitarien %40 Gipuzkoa eta Bizkaitik etorri zai-gu. Hunek erakusten du jendea distantzia luzeak baztertzen ari dela.

Sorginaren Eguna

Oraindik urrun bada ere, jakin ezazu ekainaren 16an ospatuko dela Sorginaren Eguna.



Ba al zenekien...

Alex de la Iglesia zinema zuzendariaren hurrengo proiektua Zugarramurdiren ingurukoa izanen dela? 1610. urtean izan zen sorgin ehiza hartu du abiapuntu eta beldurrezko komedia egiteko asmoa omen du.



ARGAZKIAK: ARGITXU AGERRE ETA MARGARI ETA KORO

Titiriteroen Topaketa

Bertze behin ere herria txotxongilo, erraldoi, bentrilokuo eta panpinez bete zaigu Eskual Titiriteroen Topaketan. Larunbateko euria zela eta, karrikako giroa eskaxa izan zen, baina plazan paratu zen karpa erraldoiarekin, bere eszenatoki eta guzti, afera izigarri ongi konpondu zen. Igandean, berriz, euririk egin ez zuenez, bertzeen artean, karrikako animazioa ikusteko aukera ere izan zen. Horretaz gain, plazan berean erretako zikiro-jatea eskaini zitzairen 70 laguni.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak · albornoak · edredoi nortikoak · ohg estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 • IRLINEA • 948 230 634

SENPERE

HAUTESKUNDEAK → FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK

Nicolas Sarkozy irabazi du hauteskunde presidentzialen lehen itzulia

Igande honetan eginen da hauteskunde bigarren itzulia

Franck DOLOSOR

Apirilaren 22ko Frantziako hauteskunde presidentzialen lehen itzuliak argiki erakutsi du Senperen ere ezkerak gero eta indar gehiago

duela, bainan eskuinak indartsu izaten segitzen duela. Gure herrian Sarkozy eskuindarra izan da hautagai bozkatue- na, eta ondotik, datoz Hollande sozialista eta Bayrou zentrista. Aipagarria da Senperen eskuin muturraren bozen kopurua bi aldiz baino gehiago hazi dela bortz urtez. Halere, Fronte Nazionala laugarren inda-

	2012	2007
Nicolas Sarkozy (UMP)	888 boz (%20,22)	989 boz (%29,60)
François Hollande (PS)	832 boz (%18,94)	625 boz (%18,70)
François Bayrou (Modem-zentroa)	590 boz (%13,43)	924 boz (%27,70)
Marine LePen (FN)	464 boz (%10,56)	210 boz (%6,29)
J. L. Mélenchon (Ezker muturra)	383 boz (%8,72)	
Eva Joly (Ekologista)	144 boz (%3,28)	85 boz (%2,55)

rra da eta ez hirugarrena Frantzia osoan bezala.

Parte hartzea %81,1koa

izan da, duela 5 urte %85,4koa izan zen.

Orain, bigarren itzulia igande honetan, maia-

tzak 6, ospatuko da eta ereiaroaren 10 eta 17an hauteskunde legegileak eginen dira.

Herri Urrats hilaren 13an



NAFARROA

- 10:00 Bertsolariak
- 10:30 Saltoka
- 12:00 Gose
- 13:30 Zarama
- 15:15 Obrint Pas
- 17:15 Su ta Gar

LAPURDI

- 10:00 Steppin Joggo
- 11:30 Bertsolariak
- 12:00 Unama
- 13:30 Paradust
- 15:00 Bidaia
- 16:30 Parpalhon

ARABA

- 10:00 Batukada
- 10:30 Herri Urrats Kantuz
- 11:30 Mutxikoak
- 12:30 Anje Duhalde
- 14:15 Du Bartas
- 16:00 La troba kung fu
- 17:30 Danba

- 19:00 Holako

GIPUZKOA

- 11:00 maskarada
- 11:30 Polliki taldea
- 12:30 Kukai taldea
- 13:30 ASCA taldea
- 14:30 Izartxo taldea
- 15:00 Sreet art
- 16:00 Capoeira

HAURREN XOKOA

- 10:00 Oreka Zirkoa
- 10:30 Kultura plazara
- 11:00 Bertsu
- 12:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotos
- 14:00 Oreka
- 14:30 Kirol egokituak
- 15:00 buruhandiak
- 17:00 Irrien lagunak kantu eta dantza

Baxe Nafarroako gunean erakusketa eta **Zuberoan** prentsa kokatuko dira.

Felix Karrikaburu gogoan



Felix Karrikaburu zena irakasle Uztaritzen, inguruan bere ikasleak dituelarik.

Berriki bere azken egoitzarat segitua izan da Felix Karrikaburu, Motxoa etxeko seme apeza. Uztaritzen eta Maulen irakasle egona, 84 urtetan pausatu den gure senperrara jendakina zen biziki. Aise mintzatzaren denekin eskuak aintz mugituz eta bozari doinuak aldatuz. Senperreri, familiari eta sortetxeari erotik atxikia zen eta maiz galde bera egiten zuen: «Zer da berri Senperen?». Gustukoak zituen ongi eza gutzen zituen gure herriko bazter xoragarriak Ortzan, Oihamun, Harrixabaleta, Ziricolatz, Otsantz eta hola-koak... Maiz kurrituak zituen leku horiek ihizian ibiltzen zelarik gazte denboran. Begi onez ikusten zuen Otsantz behereko kapera René Clément fundazioak berri izana. 2010eko udan, otoitz leku horren estrenatze egunean oroitarazi zuen Zuraide, Uztaritze eta Senpereko mugan den

kapera hortan meza eman izan zuela duela zombait urte irakasle zelarik Lapurdiko hirinagusi ohiko seminarioan.

Lagunen arteko solasaldietan gogoratzen zuen: «gazteekin etortzen nintzen, lorietan pasatzen ginuen eguna, arratseko sartzen ginen berri seminarioan!». Eskuarari biziki atxikia zen Felix zena eta maite zuen oroitaraztea bere deitura, Karrikaburu, Xiberoko abizena zela. Otsantz eta Otsantzbehera aipatzen zituelarik, Aita Lafiteri bezala, idurtzen zitzaion izen horrek lotura zuela Ortzanekin, Ortzango errekarekin, oraingo aintzirekin. Gogoan zuen Otsolarrea ere hurbil zela, hortik Ortzan eta Otsantzetik. Orain horiek orozerutik begiratuko ditu, ondoan duelarik bere anaia maitea Pierre Karrikaburu *Motxo*, hura ere gan den urtean joana. Ez adiorik Felix...

GIZARTEA → GAZTELAK NAFARROA KONKISTA ZUELA 500 URTE

Nafarroako konkistaren urteurrenaren kariatara mintzaldia Lur berrin

Maiatzaren 11n izanen da eta Patxi Abasolok eskainiko du

Joana GUERENDIAIN

Lapurdi 1609-2009 elkarreak Nafarroako konkistaren 500 urteen kariatarat, mintzaldi bat antolatu du. Lur berrin izanen da maiatzaren 11n, arratseko 8etan. Mintzaldia Patxi Abasolok eramanen du. Eus-kara ulertzen ez dutentzat itzulpena frantsesera segurtatua izanen da.

Beti gertakari honekin lotuta, maiatzaren 19an, Amaiurko jauregiaren bisita ere antolatua da. Hitzordua finkatua da goizeko 10etan plaza. Galdetua da bakoi-tzari zerbait ekartzeko, gero denak elkarrekin bazkaltzeko.

Herri Urrats bezpera

Urtero bezala, Herri Urrats bezperan, maiatzak 12, kontzertuak ira-

ganen dira Saran. 21:00etatik aitzinera talde hauek ariko dira Urrats Gauan: 2zio, Skatu, Matxura eta Tortuga Sound taldeak.

Kontzertuetarako sarteak zortzi euro baliatu ditu.

URRATS GAUA

2zio, Skatu, Matxura eta Tortuga Sound dira maiatzaren 12an eginen den Urrats Gaueko talde gonbidatuak. 21:00etan hasiko dira kontzertuak.

Hauteskundeak

Joan den apirilaren 22an hauteskundeak izan ziren Frantziako lehendakartzako lehen itzuliarentzat. Saran jendea masiboki joan zen bozkatzerat, 1 524 pertsonen eman zuten bo-

toa, 1 897 inskribaturen gainean.

Emaitzak ondokoak izan ziren: botoemaitzen %29,52k Sarkozy bozkatu zuen (UMP-eskuina), %21,84k Hollande (PS), %15,71k Bayrou (MoDem), %11,7k Melenchon (Ezkerreko Frontea), %9,93k Le Pen (Fronte Nazionala) eta %4,22k Joly (Berdeak). Bertze kandidatuak ez dituzte %2ak pasatu.

Bigarren itzulia igandehonetan, maiatzak 6, izanen da.

Kirol emaitzak

Basurdeak ez dira finaleraino iritsiko aurtten, izan lehen taldea edo erreserba. Lehen taldeak erdi finaleraino galdu egin zuen Pomarezeko taldearen kontra, 22-00, eta erreserbak Kanboren kontra ere galdu zuen, 19-12.

Eskubaloiko senior taldeak ere sasoina bukatu du garaipen polit batekin, 18-7 irabazi zuten Pau-Nousty-ko taldearen kontra.



ARGAZKIA: TURISMO BULEGOA

Etxola zabalik

Joan den apirilaren 1etik Sarako animalieen parkeak bere ateak ideki ditu. Parkeak egunero idekia da goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte, eta uztailetik goiti 7ak arte. Haurrentzat (4-12 urte) sartzea 4 eurokoa da eta helduentzat 5 eurokoa. Bisitak gutti goitibeheiti 45 minutu irauten du eta animalia ainitz deskubritzeko aukera da, izan xori, ardi, behi, xerri baita dromaderioak ere. Bisita bukaeran haurrek pottokaz ibilaldi bat egiteko aukera badute, 2 proposatuak dira oren laurdenekoa (4 euro) edo ordu batekoa (12 euro).

autoeskola

%10 eko
DESKONTUA
matxurari

CAFÉ DE LA MAIRIE

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

Ingunuko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euzkoan 10€
- Euzkoan 10€
- Baxen, Urtarrak eta Maiatzan 10€
- Amerikako eta Australiako 20€
- Iparraldean 10€
- Lurraldean 10€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net



SORTZEAK

Alain Danboriena Padilla, Etxalarkoa, apirilaren 10ean.

Ane Lazkanotegi Gabikagoxeaskoa, Berakoa, apirilaren 18an.

Sara Lazkanotegi Gabikagoxeaskoa, Berakoa, apirilaren 18an.

Ander Sarratea Carro, Sunbillakoa, apirilaren 5ean.

Peio Jauregi, Sarakoa, apirilaren 11n.

Gotzon Elizarri-Olleta Lekuona, Sarakoa, apirilaren 7an.

Eider Sansiñena Pikabea, Etxalarkoa, apirilaren 20an.

Enea Zubillaga Urreta, Aresokoa, apirilaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Daniel Belarra Mariñelarena eta **M^a Inmaculada Eneterreaga Irigoien**, Doneztebe eta Lesakakoa, apirilaren 14an, Lesakan.

Jesus M^a Irastortza Barcia eta **Lucia Artazkoz Lazkano**, Legasa eta Doneztebekoa, apirilaren 14an, Donezteben.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jose Manuel Iribarren Juanena, Berakoa, apirilaren 11n, 55 urte.

Pilar Irigoien Etxabide, Lesakakoa, apirilaren 11n, 91 urte.

Antonia Iureta Sarratea, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 14an, 87 urte.

Ines Irigoien Gaintza, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 15ean, 92 urte.

Lorenzo Otxandorena Urroz, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 15ean, 75 urte.

Federico Valencia Leoz, Elizondokoa, apirilaren 17an, 93 urte.

M^a Luisa Oiartzabal Telletxea, Doneztebekoa, apirilaren 17an, 92 urte.

Hilario Larretxea Agara, Arantzakoa, apirilaren 19an, 68 urte.

M^a Pilar Elizalde Arriada, Arizkungoa, apirilaren 20an, 85 urte.

Jose Sanz Irisarri, Elizondokoa, apirilaren 20an, 75 urte.

Jose Luis Goñi Mikelarena, Iturenkoa, apirilaren 21ean 89 urte.

Dominiquette Arburua, Sarakoa, apirilaren 20an, 91 urte.

Yvonne Lissayou, Sarakoa, apirilaren 23an, 80 urte.



Lorentxo ZELAIETA ARIZTEGI

I. URTEURRENA

Oizen, 2011ko apirilaren 30ean, 45 urte zituela

Egun polit batean jaio zinen egun mingarri baten joan, hutsune handia gelditu zen gure artean egun hortan.

Momentu onetan eta txarretan zeunden zu beti ondoan, horregatik izango zaitugu guk betirako gogoan.

ZURE FAMILIA



Fidel ALZUGARAI ALZUGUREN

FaIDEL

Iruñean, 2012ko apirilaren 6an

Lotura guztietatik, gorputzaren mugetarik aske sentittu nahirik, Azken hatsa huela, bertsorik sakonena nehoiz esan ezin diren estalitako egien oihurik bortitzena.

EMAZTEA: ANA ETXEBESTE, SEMEA: JOSU, GURASOAK: FIDEL (+) ETA M^a JESUS (+), EZKON-GURASOAK: MANUEL ETXEBESTE ETA RAMONA APEZTEGIA, EZKON ANAI-ARREBAK, ILOBAK, LEHENGUSUAK, OSABA-IZEBAK ETA GAINERAKO AHAIDEAK.



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbartan, 2006ko maiatzaren 6an

VI. URTEURRENA

Izarrak dir dir eginaz egia joaten denean
begintzen dugu zenua irrika
zu sentitzen zaitugulako gure barnean
laino erraldoi baten gainean

Begiak itxiaz astiro
oroitzen zaitugun aldirio
pentsatu oi dugu maite Jaione
batuko gavela berriro

Senide eta lagun urko
maitasunean hain gertuko
begiak ireki orduko
badakizu ez zaitugula ahaztuko.

ZURE ETXEKOAK

MENDIA → EKAITZA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Maiatzaren 20an egingen da Arantza inguratuko duen Mendi Itzulia

Egun berean edo aitzinetik internetez eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA | ARANTZA

Bertze urte batez, ailegatu da Arantza gainez gain ezagutzeko aukera ematen duen mendi itzulia. Ekaitza Elkarteak antolatutako Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 20an egingen da. Bi urte tik behin egiten da eta alditik aldira gero eta arrakasta haundiagoalortzen ari da. Duela bi urte, adibidez, markak hautsiz, 704 lagunek egin zuten mendi itzulia.

Ibilbidea herriko plazan (275 metro) hasi eta



WWW.MENDITZULIA.COM

Arantzako Mendi Itzuliaren perfila.

bukatuko da. Handik, maldan beheiti Arrata errekarajautsi eta Aranibar baserriaren inguruan (120 metro) erreka utzi eta maldan goiti abiatu beharko dute mendi-

zaleek, Unanu mendira (659 metro) igotzeko. Itsaszelaian barna (517 metro) Izura (828 metro) joanen dira mendizaleak. Gero, Ollargatetik (660 metro) pasatuz, Ibin-

tzara igoko dira (1.037 metro) eta handik Ekaitzara (1.040 metro). Illurdi izanen da hurrengo tontorra (1.085 metro). Handik aukerakoa izanen da Mendaur (1.136

metro) igotzea. Gero Mairubaratzara (750 metro) jeitsi, eta Zepuru (715 metro) eta Bulatxikitik barna herrira jautsiko dira. Mendaur igotzen dutenek 2 kilometro gehiagoko ibilbidea osatuko dute eta Illurditik herrirako bidea hartzen dutenek 30 kilometrokoa. Itzuliak 1.740 metroko desnibela du. Ibilbidean kontrol-puntuak, botikina eta jan-edana izanen dira, eta bukaeran, jan-edana eta opariak ere banatuko dira.

Izen-ematea aitzinetik www.mendizmendi.com web gunean egin daiteke edo egun berean, 06:30etik 08:00etara. Eta ibilbidea 07:00etatik 08:00etara abiatuko da.

TXIRRINDULARITZA → ESPAINIAKO TXAPELKETA

Zilarrezko bi domina lortu ditu Irati Otxotekok Espainiako pistako txapelketan

Abiadura eta 500 metroko probetan bigarren izan da

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Irati Otxoteko Arlegi txirrindulari lesakarrak zilarrezko bi domina esku-ratu zituen apirilaren 6an

eta 7an Madrilen jokatu-tako Espainiako junior mailako pistako txirrindularitza txapelketan. Tafallako Reyno de Navarra taldean ari da, eta abiadura proban eta 500 metroan bigarren izan zen, taldekide duen Mar Manrique valentziarraren gilebeetik. Abiadura proban 200 metro kronometra-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ezkerretik hasita lehenbizikoa da Irati Otxoteko lesakarra, podiumean bigarren postuan.

tuak izaten dituzte irteera lanzatuarekin eta gero lehen zortzi sailkatuen artean buruz buruko norgehiagokak jokatzeko dituzte. 500 metroko proba ere kronometraturatzen izaten da, baina irteera geldirik egiten dute.

Pistan orain ez dute proba aunitz izanen, «bai-

na irailen jokatu-tako diren eliteen Espainiako txapelketetara joaten saiatuko naiz, baita Europako lehia edo mundiale-tara ere, nahiz eta zaila izan. Iaz atarian egon nintzen, baina Manrique nire aurkari zuzena ni baino hobeki zegoen. Ea aurten zortea dudana, na-

hiz eta seguruenik berdina gertatu», dio Iratik.

Errepidean, berriz, Espainiako kopan eta Euskaldun Torneoan ari da parte hartzen, bere helburu nagusiak pistan dauden arren. Halere, uztailean egingen diren errepideko Espainiako Txapelketetara joanen da.

LASTERKETAK → HERRIKO BESTETAN

Maiatzaren 19an eginen da Urdazubiko Kontrabandisten lasterketa

Maiatzaren 16an bukatuko da izena emateko epea

TTIPI-TTAPA | URDAZUBI

Urdazubiko Salbatore besten barne, maiatzaren 19an eginen Kontrabandisten Lasterketa. Ibilbidea eta sariak aitzineko urtekoen berdinak izanen dira.

Lasterketa 10:00etan abiatuko da plazatik eta helmuga ere toki berean izanen du. Tartean, Elizondoko bordatik pasako dira lasterkariak eta hemendik Azkarko lepora igoko dira (410 metro) eta Argaingoita mendia gibelatik Axular etxera jautsiko dira. Iribere auzoari itzulia emanez,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lasterkariak lehen metroak zakua bizkarrean egin beharko dituzte.

nez, tarteko helmugara ailegatuko dira, Irigoiena aterpean dagoen, 7,8 kilometroan (100 metro). Fraileen iturritik pasatakoan, Elorgako bordaraino (390 metro) igoko dira Otsondottiki

mendiari itzulia emanez eta ondoti, plazara (98 metro) jautsiko dira beriz, Gainekola bordan barna. 15,8 kilometroko ibilbidea izanen da eta desnibel maximoa 326 metrokoa.

IZEN-EMATEA

Izen-ematea www.kirolprobak.com web orrian egin beharko da, maiatzaren 16a baino lehen, eta hamar euro ordainduta. Lasterketa-ko egunean ez da izen-

ematerik onartuko eta gehienez 200 lasterkari onartuko dira.

SARIAK

Lehendabiziko sailkatuak 500 euro, txapela eta kopa hartuko ditu (Montxo Ostaturia Saria), bigarren sailkatuak 250 euro eta kopa, hirugarrenak 150 euro eta kopa, laugarrenak 100 euro, bosgarrenak 50 euro eta tarteko helmugara ailegatzen den lehendabizikoak Irigoiena Saria hartuko du, asteburu bateko egonaldia, hain zuzen. Horrez gain, herriko hiru lehendabizikoendako ere sariak izanen dira. Parte hartzaileen artean, opariak banatuko dira eta luntxa ere izanen da denendako.

PILOTA → BURUZ BURUKO PALA TXAPELKETA

Xabi Ibargarai erratzuarra hirugarren izan da Munduko pala txapelketan

Erratzuko atzelariak doi-doi irabazi dio Urkijori

TTIPI-TTAPA

Munduko buruz buruko pala txapelketaren

finaleko atarian geldituz Xabi Ibargarai erratzuarra, baina podiumeko azken koxkara igotzea lortu zuen apirilaren 14an Bilboko Bizkaia pilotalekuan hirugarren posturako lehian Urkijori doi-doi irabazita. Erratzuko atzelariak



UTZITAKO ARGAZKIA

Eszerrean urdinez Ibargarai eta eskuinean Lujan, Munduko Buruz Buruko Pala Txapelketan.

bortz set edo joko behar izan zituen Urkijori menpean hartzeko. Lehendabizikoan Urkijori nagusitu zen, 10-7. Bigarrena eta hirugarrena erratzuarrak irabazi zi-

tuen, 9-10 eta 7-10, baina laugarrena berriz ere Urkijori alde joan zen, 10-6. Beraz, azken set erabakigarria ailegatu ziren, eta bederatzina berdindu ondotik, hon-

darreko tantua Xabi Ibargarai lortu zuen. 54 minutu iraun zuen hirugarren posturako lehiak.

Munduko txapelkun berria, bertzalde, Pablo Fusto da.

LASTERKETA → ZORTZIGARREN EDIZIOA

Zagok eta Azkorbebeitiak irabazi dute Berako Maratoi Erdia

Eguraldiagatik korrikalariak ez dute Larun igo eta 466 lagunek bukatu dute lasterketa

TTIPI-TTAPA | BERA

Didier Zago frantziarrak ez zuen hutsik egin eta laugarren aldiz irabazi zuen Berako Mendi Maratoi Erdia apirilaren 15ean. Zortzigarren edizio honetan, euria eta lohia izan zen protagonista, eta horren ondorioz, ibilbidea aldatu behar izan zuten Manttalle, Gure Txokoa eta Agera Mendi Taldeko antolatzaileek. Larunera igo gabe egin zen lasterketa. Emakumeen artean, Oihana Azkorbebeitia bizkaitarra nagusitu zen. Guztira, izena emandako 474 korrikalarietatik 466k lortu zuten lasterketa bukatzea.

Larunera igo gabe, 21 kilometro izan beharrean, 18,6 kilometrotan gelditu zen lasterketa. Gizonezkoen lasterketan, Didier Zago eta Aitor Osa Itziarko txirrindulari ohiaren arteko bo-



ARGAZKIAK: MANTTALE ETA UTZITAKOAK

Goiko argazkian podiumeko korrikalariak ageri dira eta beheitikoetan, ezkerrekoan, Gorka Arretxea (Sunbilla-Bera) eta eskuinekoan Andoni Lasaga (Etxalar) eta Asier Irazoki (Bera).

rroka handia izan zen. Ibardingo tarteko helmugatik Osa pasatu zen lehenik, baina azkenean Biarnokoa nagusitu zen, ordubete, 24 minutu eta 22 segundoko denborarekin. Aitor Osa bigarren izan zen, (01:25:28) eta bere alaba eskutik hartuta helmugaratu zen. Hirugarrena Oier Ariznabarreta izan zen (01:30:07).

Emakumezkoen senior kategorian, aipatu bezala, Oihana Azkor-

bebeitia izan zen bizkorrena, ordubete, 45 minutu eta 50 segundoko denborarekin. Bortz minutu baino gehiagoko aldea atera zion bigarren izan zen Laura Solari (01:51) eta hirugarren Aitziber Ibarbia izan zen (01:58:26). Tartean, beterramo mailako lehen sailkatua, Nerea Amilibia sartu zen (01:51:14).

Aipatzekoa da eskualdeko lau emakumek parte hartu zutela: Berako Irune Almandozek,

Ezkurrako Josune Iparragirrek eta Berako Garbiñe Santamariak eta Aloña Lasagak. Proba itxi zuen Aloña Lasagak txalo zaparrada handia jaso zuen. Gizonezkoak, berriz, 50 izan ziren eskualdekoak eta horietan bizkorrena Patxi Irtzoki igantziarra izan zen, sailkapen orokorrean hamalaugarren helmugaratu zena.

Ricardo Abad Tafallako ultrafondistak ere parte hartu zuen Bera-

ESKUALDEKO KORRIKALARIAK

- 14 Patxi Irazoki-Igantzi
- 40 Iñaki Telletxea-Elizondo
- 50 X. Telletxea-Donetztebe
- 54 J. F. Amorena- Sara
- 79 J. Otxoteko-Lesaka
- 80 Karlos Sein-Igantzi
- 86 Philippe Vacquie-Sara
- 93 Josema Huizi-Bera
- 102 Joseba Petrirena-Bera
- 109 Mikel Alapont-Bera
- 113 Aitor Berra-Senpere
- 123 F. Laxalde-Senpere
- 124 G. Arretxea-Sunbilla
- 132 D. Iparragirre-Arantza
- 153 Jaques Bernet-Sara
- 154 Julen Lizarraga-Leitza
- 163 J. Otxoteko-Lesaka
- 169 M. A. Iñarra-Irurita
- 179 R. Irubetagoiena-Senpere
- 194 Jannick Dufau-Azkaine
- 202 I. Lukanbio-Arantza
- 210 Iñaki Larrañaga-Bera
- 226 Beñat Seillan-Senpere
- 230 X. Manterola-Sunbilla
- 236 JM Ugartemendia-Leitza
- 237 Beñat Sein-Senpere
- 248 X. Dendarieta-Erratzu
- 258 Sergio Morate-Bera
- 259 Mixel Sein-Senpere
- 274 Xanti Susperregi-Bera
- 275 Iñigo Telletxea-Igantzi
- 279 Manolo Gouraud-Bera
- 294 Irene Almandoz-Bera
- 305 Xabier Irazoki-Bera
- 312 Peio Urrutia-Irurita
- 313 Julen Pikabea-Bera
- 319 Paxkal Larronde-Sara
- 329 Andoni Lasaga-Etxalar
- 330 Asier Irazoki-Bera
- 331 A. Rodriguez-Bera
- 344 Iban Etxarte-Irurita
- 361 M. Bourgoïn-Senpere
- 375 C. Ozkoidi-Senpere
- 384 A. Etxeberria-Lesaka
- 391 T. Jauregiberri-Senpere
- 398 Patxi Ariztia-Bera
- 403 Angel Dagerre-Bera
- 405 M. Azkarraga-Irurita
- 415 Andoni Irigoien-Aniz
- 426 J. Iparragirre-Ezkurra
- 428 Karlos Alzugarai-Bera
- 457 Iñigo Etxarte, Etxalar
- 463 G. Santamaria, Bera
- 466 Aloña Lasaga-Bera

ko Maratoi Erdian eta bi ordu eta erdi behar izan zituen bukatzeko.

DATUA

18,6

KILOMETROKO

lasterketa egin behar izan zuten parte hartzaileek, eguraldiagatik ibilbidea aldatzea erabaki zutelako antolatzaileek. Normalean 21 kilometro izaten dira.

maiatzak 3-17

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Bestak



URDAZUBI-IRURITA | 2012.05.16

Salbatore bestekin abiatuko dira herriz herriko bestak

Urdazubin eta Iruritan maiatzaren 16an botako duten txupinazoekin Salbatore bestak hasiteaz gain, herriz herriko bestak abiaraziko dira aurten.

Ospakizunak



BERA | 2012.05.05

Abesbatzaren 25. urteurreneko erakusketa eta kontzertua

Egun handia ekainaren 3rako iragarri dute, baina aitzinetik, maiatzaren 5ean kontzertua eskainiko dute eta 25 urteotako argazki erakusketa ere zabalduko da.

Feriak



DONEZTEBE | 2012.05.04

Udaberriko Feriaren barrenean ahari lehiaketa

Ahari lehiaketa izan ohi da ortziral honetarako antolatu den Udaberriko Feriako ekitaldi nagusia, baina eskulangileak ere izanen dira elizatarian.

tzaldia eskainiko du Patxi Abasolok 20:00etan Lur Berrin, Lapurdi 1609-2009 elkarteak antolatua.

Bestak

IRURITA

Salbatore bestak

Maiatzaren 16tik 20ra ospatuko dira Salbatore bestak. Xehetasunak 12. orrian.

URDAZUBI

Salbatore bestak

Maiatzaren 16tik 20ra ospatuko dira Salbatore bestak. Xehetasunak 15. orrian.

GOIZUETA

Txinoko fiestak

Maiatzaren 4 eta 5ean Txino auzoko fiestak. Xehetasunak 564. alean.

Ikuskizunak

IRURITA

Antzezlanaren Gizarte Bilgunean

Maiatzaren 4an Dejabu panpin laborategiaren *Gure bide galduak* antzezlanaren ikusgai Gizarte Bilgunean 19:00etan.

ELIZONDO

Ttuko Ttuko salsa erakustaldia

Maiatzaren 12an Grupo de bailes Bayaderos-en eskutik *Ttuko Ttuko salsa* dantza la-tindarren erakustaldia 17:00etan plazan.

Zinema

DONEZTEBE

Zinema martxan

Maiatzaren 6an *Cómo entrenar a tu dragon* filma ikusgai izanen da 17:00etan eta *A todo gas 5* filma 19:00etan. Mendaur eta Erreka Guraso Elkarteek antolatua.

Erakusketak

BERA

Abesbatzaren 25. urteurrena

Maiatzaren 5etik 13ra Berako abesbatzaren 25. urteurreneko argazki erakusketa lamo-tenean. Astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21.00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era.

Kontzertuak

BERA

Abesbatzaren 25. urteurrena

Maiatzaren 5ean kontzertua eskainiko du Berako Abesbatzak 19:30ean Kultur Etxean. Sarrera doan.

SARA

Herri Urrats gaua

Maiatzaren 12an kontzertuak iraganen dira plazan. 21:00etatik aitzinera 2zio, Skatu, Matxura eta Tortuga Sound taldeak ariko dira. Sartzea: 8 euro.

Ospakizunak

ARANTZA

Kantu bazkaria Burlada jatetxean

Maiatzaren 12an kantutu bazkaria eginen da.

Anjel Mariezkurrena bere taldearekin eta Frantzisko musikaria. Izen ematea maiatzaren 10a baino lehen Burladan (948 634027).

DONAMARIA

Kultur Astea

Maiatzaren 2tik 5era Kultur Astea antolatu da. Xehetasunak 37. orrian.

LEKUNBERRI

Natur Bideen Eguna

Maiatzaren 6an Natur Bideen Eguna antolatu

du Plazaola Partzuergo Turistikoak. Xehetasunak 45. orrian.

SENPERE

Herri Urrats

Maiatzaren 13an Herri Urrats ospatuko da aintziran. Xehetasunak 52. orrian.

Feriak

DONEZTEBE

Udaberriko Feria

Maiatzaren 4an ospatuko da Udaberriko Feria. Xehetasunak 32. orrian.

PROPOSAMENA

SENPERE

Herri Urrats Seaskaren alde

Urteroko ohiturari eutsiz, Senpereko aintziran inguruan eginen da Seaska Iparraldeko Ikastolen Elkartearen aldeko besta handia, maiatzeko bigarren igandean. Egitarau zabal prestatu da aurten ere. Gazteenek, besta giroan bezperatik murgiltzeko aukera izanen dute, Urrats Gaua egiten baita Saran, 2zio, Skatu, Matxura eta Tortuga Sound-ekin.



Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Maiatzaren 6an Lizarmeaka-Altzola-Elizeko bidea-Orabideko erreka-Elizondoko borda-Azkar-Urdazubi-Telleria-Lepoko borda-Urizti-Goizamendi-Otsondo-Lizarmeaka ibilaldia (Baztango XIX. Mendi Itzuliaren zati bat) egingen dute Baztango Mendigoizaleak. (08:00)

Maiatzaren 13an Herri Urratsera joanen dira Baztango Mendigoizaleak: Amaiur-Luroko ateka-Kapera-Ainhoa-Senpere. (07:00).

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Maiatzaren 13an Illurdi-Ekaitza (Munitto) ibilaldia egingen du Ulibeltzak mendi taldeak (07:30).

BERA

Larun Ttiki taldea

Maiatzaren 6an Saraoko Olhain ikastolakoe-kin bueltaxka bat emanen dute Larun Ttiki mendi taldekoek, lamoteneatik abiatuta (09:30).

Maiatzaren 13an Herri Urratserat joanen da Larun Ttiki mendi taldea. Kotxez Lizuniagaraino (08:00).

LESAKA

Beti Gazte mendi taldea Santiago Bidean

Maiatzaren 6an Iruña eta Logroño arteko bigarren etapa egingen du Beti Gazte mendi taldeak, Gares eta Aiegi artean. (06:30 autobusa plazan).

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Bost sagu bihurri musika jotzen

CHISATO TASHIRO

ITZULP.: AIORA JAKA

Elkar, 2012

Hiru urtetik gorakoentzako ipuina ikusteko eta entzuteko DVDa, euskaraz eta ingelesez, argitaratu eman du Ttartalok. Chisato Tashioren testuak eta irudiak ditu eta Aiora Jaka Irizarrek itzuli du euskarara.

Ilargi beteko gau batez, bost sagutxo igelen kontzertu batean sartu dira isil-gordeka, baina igelek harrapatu egin dituzte. Hala ere, ondo entzun ahal izan dute igelek ilargiari eskaini dioten kanta, eta musika hori jotzeko asmoz, beren musika-taldea sortuko dute: BOST SAGU BIHURRI.

Beren kontzertuari esker, gauza garrantzitsu bat ulertaraziko diete igelei: musika elkarrekin egitea adiskidetasun zoragarri baten hasiera izan daitekeela.

Musika




Gailurrak ikutuz

KUPELA

Elkar, 2012

Kupela taldekoak bertsoetan oinarritu dira azken lana osatzeko. Izan ere, Mitxelena, Lasarte, Lazkaoxiki, Lopategi, Gorrotxategi, Loidisaletxe, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren bertsoak, eta Angel Larrañagarenak berarenak ere kantatu dituzte. Larrañagak, taula gainean berarekin abestu zutelako edo entzule moduan bertso saio haieran egokitu zelako, memorian gordeak zituen bertso batzuk berreskuratu ditu. Bertso haiei Angel berak egindako beste batzuk gehitu zaizkie disko eder bat osatuz. Bertsoak abestu ziren doinuak jaso ditu taldeak, eta Xabier Zabalek moldatu ditu *Gailurrak ikutuz* diskorako. Kolaboratzaile izan dituzte Arkaitz Miner (mandolina, biolina eta gitarra) eta Aitor Furundarena (soinua). Disko berrian, betiko erromeriarekin eta jai giroarekin batera, bertso bilduma bat eskaintzen zaigu. Kupelaren azken disko hau, beti bezala, dantzarako aproposa da baina oraingoan giro lasaian entzuteko ere egokia.

Internet



Euskara tarteko politikoe-
k egindako promesak

WWW.AGINDUAZOR.EU

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak www.aginduzor.eu webgunea jarri du abian, alderdi politikoe- eta hautagaie-
k euskararen normalizazioari lotuta egindako promesak jasotzeko. Hautagaie-
k hartutako konpromisoak jaso eta herritarren artean hedatzea da helburua. Ondoren, hauteskunde garaian agindutako promesak bete ditzaten eragitea da asmoa. Oraingo honetan, Frantziako Estatuko lehenaldikaritarako hauteskunde-
en karira hautagai nagusiek egindako adierazpenak jaso dira eta jada entzun edo irakur daitezke hautagaie-
k euskararen egoera hobetzeko egingo omen dutena.

«Martxoaren 31n milaka lagunek euskaraz bizi nahi dut egin zuten deiadar Baionan eta hautagaie-
k ezin diote entzungor egin gero eta zabalagoa den nahi horri» adierazi du Paul Bilbao Kontseiluko Idazkari Nagusiak.

Nire aukera



Julian IPARRAGIRRE
Leitzako irratia esataria

«Egunero ez bada bi egunetik mendian ibiltzea gustatzen zait»

Sarriopapeletik jubilatua, asteburutan Euskadi Irratirako pilota emankizunetan komentaria izaten da Arantzan sortutako leitzarra. Hortaz, astegunak libreago izaten ditu asteburuak baino eta zaletasun nagusia mendia duela aipatu digu: «Mendia ikaragarri gustatzen zait eta egunero ez bada bi egunetik bueltatxo bat egiten dut». Halakoetan, Leitzatik Arantza edo Goizuetara ere joaten da, «5-6 orduko bueltak, Arantzara 7 ordu, aski mendi politikak ikusiz. Aralarko guardetxetik Txindokira ere mendi zoragarria da, artzain pila bat ikusiz». Hondartza ere gustatzen zaio eta «Hondarribira gustora joaten naiz, anaiak badu pisu bat eta noski berak baino gehiago aprobetxatzen dugu». Azken urteetan kanpora Arantzako apezaren taldearekin ere aterata da, «joan den urtean Parisen izan ginen, kruzero bat ere egin genuen, aurten Alemaniara goaz... 8-10 egun gustora pasatzen ditut». Herri kirola ere gustuko du.

ETXEBIZITZAK

salgai

BERA. Eztegaran pisua salgai. 4 logela, sukaldelantokia, 2 bainugela, ganbara eta kanpoko lorategia. Pisuak 137 m² ditu eta ganbarak 30 m². ☎688 695812.

ELIZONDO. Maurizio Berekoetxean (eliza gibelean) pisua salgai. 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldia eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igo-gailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

LESAKA. Herri erdian 66m²ko pisua salgai, 2. solairuan. 2 trasteleku, garajea eta igogailua. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

GOIZUETA. Herritik 300 metrora dagoen pisua salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia eta bajera. Berogailuarekin. ☎699 695628.

LESAKA. Laugarren pisu bat salgai. 3 logela. 120.000 euro. ☎607 446925.

LESAKA. Plaza Berrian bi pisuko etxea salgai. Solairu bakoitzean bi logela eta bainugela osoa. Baratzia eta 6m²ko balkoia. Eguzkitsua. ☎948 637840.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. Zazpigerutze auzoan 100 m²ko pisua salgai, teilatupeko logelarekin. 3 logea, 2 bainugela, egongela eta sukaldia. Mobleztatua dago eta bizitzera sartzeko prest. Hagitx prezio onean. ☎639 778851.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Zazpigerutze auzoan mobleztatutako pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia eta trastelekua. Igo-gailuarekin. ☎660 674328.

DONEZTEBE. Osasun Zentroaren ondoan, 110 m²ko pisu berria errentan emateko. Mobleztatua eta igogailuarekin. ☎679 568030.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

BERA. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta egoera onean. ☎687 950371.

ORONAZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. 3 logela. Mobleztatua. ☎607 890923.

DONEZTEBE. 92-94m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia haundiak. Gela guztiek kanpora ematen dute, eguzkitsua. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎699 798207.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

DONEZTEBE. Neska batek pisua errentan hartu nahi du. Gehienez 300 euro arte ordaintzeko prest dago. ☎617 902072.

LANA
eskariak

Mutil bat baserriko lanetan eta bertze edozein lanetan aritzeko prest dago. Inseminazio kontutan aditua, eta animaliekin ohitua. Bertze almatzen edota fabrika batean ere lan eginen luke. ☎661 956139 / 655 034364.

LEITZA. Emakume batek adinekoak zaintzen lan eginen luke, orduka. ☎661 172065.

Mutil euskalduna edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎606 755274.

29 urteko **emakumeak** adinekoak zaintzen edo garbiketan lan eginen luke. 24 ordutan aritzeko prest. ☎639 737379.

Gizon bat ostatuan barran, jangelan edo sukaldari laguntzaile gisa lanean ariko litzateke. Edozein momentutan hasteko prest. Esperientzia haundiarekin. ☎657 409499.

Esperientzia duen **neska euskaldunak** etxeak garbitzen edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎616 037637.

Esperientzia duen **emakumeak** etxeko lanak egiten edo adinekoak zaintzen lan eginen luke. ☎656 186447.

Neska saharar gazte batek **edozein adineko pertsona zaintzen** lana gustura eginen luke. ☎948 450056.

DONEZTEBE edo **INGURUAN** emakume euskaldunak ordu batzuek lan eginen luke garbiketan edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

LANA
eskaintzak

URDAZUBI. Jatetxe batean eguerdiko zerbitzuan lan egiteko pertsona behar da, igande eta jaiegunetan. ☎948 599222.

IBARDIN. Beola bentan dendan saltzaile lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Frantsesa jakitea ezinbertzekoa. ☎948 630709.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(apirilaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 47,00 € (-1,00)

Zerri gizena
1,294 € kiloan. (=)

Zerramak:
0,580€ Kg/bizirik. (+0,010)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,40 (=)

1.koa 4,10 (=)

2.koa 3,86 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,46 (=)

1.koa 4,18 (=)

2.koa 4,08 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,04
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,20/6,60
8-10 kilokoak: 5,00/5,20

LUR EREMUAK
salgai

BERA. Alkaiagan, 960m²ko lur eremu urbanizatua salgai. ☎948 630546.

MOTORRAK
salgai

Opel astra G 1.6 autoa salgai, 8 V, gasolina, egoera onean. 140.000 kilometro. ☎615 737826.



Nissan Patrola salgai, prezio negoziagarria. ☎664 564572.



Suzuki GSXR 600 motorra salgai, 2004, egoera onean, katea berria, balaztak berriak, errodamendu berriak... Beti garajea. 38.000 kilometro. 3600 euro negoziagarriak. ☎625 625068.



Renault Kangoo autoa salgai. 9 urte, txuria. Gibebeko kristalak beltzez tintatuak. 150.000 kilometro. Korreak oraintxe aldatuak. Egoera onean. 2.500 euro. ☎675 603527.

Ford Fiesta 1.4 gasolioa salgai, 80 CV. Oso egoera onean. ☎686 998360.

ANIMALIAK
salgai

Ahuntza enanoak salgai. ☎616 860060.

3 chihuahua txakurkume salgai. 300 euro. ☎636 089884.

DENETARIK
salerosketak

Ehizako eskopeta paraleloa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. ☎619 283278.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



KHUN GMD 400 belarra moztekoa salgai, lau disko dituena. Gutxi erabilia

eta egoera arras onean. ☎616 898065 / 605 736262.

Argia egiteko motorra salgai, Honda markakoa. 2 entxuferekin, gasolinazkoa. Arrunt gutti erabilia. ☎685 950243 / 697 528657.

DONEZTEBE. 12 aukeri rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan daude ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. ☎646 799828.

Mendi bizikleta eta inpresora salgai. ☎627 601000.

Urari indarra emateko **bonba** salgai. Indar handikoa. Hagitz gutti erabilia. ☎606 681291.



ttipi txartela

harpidetza baino merkeagoa da



+ ttipi-ttapa aldirikaria doan
#2 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa zugarriak

TTIPI-TTAPAren jabetza kuotak 32 euro biko du.
TTIPI TXARTELA dutenek, 30 euro pagatuko dute urtearen azkenan.
Errentaren Aitorpenarekin 10 euro itzuliko baitzaie

40euro
- 10euro

30euro

32eko desgratuzioa errentaren aitorpenan.

- AJUTO eta BIZIKLETA balerak: Berriak | Opatzenak | Kales-Bike | Sembraketa | Zuzen Motor
- AUTO ESKOLAK: Sempak | ARGAZKI-DENDAK: Ayla | Golin | Mena | Zaldar
- ARLOPIA-DENDAK: Beldak | Ederra | Fanteke | Ipingi | Juan & Pkubara | Futtaragorri | Nereka
- BIXI-DENDAK: Etxarri | ESTETIKA ZENTRUAK: Anara | Arriola | ETXETRESNAK: Alzori
- HAURREN GAUZEN DENDAK: Pozoko | JATEXERAK: Pozoko Oti | Etxerko Pozoko
- KINOLDEGIAK: Leialako Udal Kinoldegiak | KIROL-DENDAK: Agara | Ipari | Zola
- LENTZERIAK: Futbolgaria | Merkon | LIBURU-DENDAK: Halarpresa | Mena
- NUTRIZIOA eta DIETETIKA: Greta | Kover | Sika | OPARI-DENDAK: Alustre
- OPTIKAK: Irtziari | Otxaga | PENTSAK: Mena | TINDATEGIAK: Salme
- ZAPATA-DENDAK: Oti | Terebia


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENA zubietarrak 10 urte bete ditu apirilaren 15ean. Auniz urtez! Garazi, Uxue, Iker eta Ekaitz. Osabari ere auniz urtez!



Auniz urtez JAIONE! Zure urtebetetze eguna ospatzeko tragoa etxe berria hartuko dugu! Ongi pasa eguna eta muxu handi bat!



JONE ORUBE URIA lesakarrari: zorionak maitea! Etxeko printzesak 2 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak familia eta bereziki Maialen eta Iratiren partetik.



Berako OIER MARTIN FAGOAGAK maiatzaren 6an 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik, bereziki amatxo eta aitabaxoren partetik. 3 muxu handi



AIMAR OTXANDORENA MITXELENA lesakarrak apirilaren 19an urteak bete ditu. Zorionak eta lau muxu handi familia guztiaren partetik.



AIMAR OTXANDORENA MITXELENA lesakarrak 4 urte potolo bete ditu apirilaren 19an. Muxu auniz familiaren partetik eta bereziki zure arrea Janireren partetik.



Zorionak amatxi Mª JESUS eta bere biloba ELAIARI beren zorion egunetan, apirilaren 14 eta 30ean. Milaka muxu Gaztelu eta NARBARTOKO familien partetik.



Saldiasko OINATZ EZKURRA IRAZOKI gure mutiko pottoloak apirilaren 16an urtea bete du. Zorionak Saldiasko familiaren partetik, bereziki Mikel lehengusuaren partetik.



XUBAN LOIOLAK urteak bete ditu maiatzaren 29an. Zorionak San Romango familiaren partetik.



NAROA GAMIO LAURNAGARAI arraioztarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Zorionak Arraiozko familia guztiaren partetik eta bereziki OIaiaren partetik. Muxu handi bat!




ELORRI eta AIERT AROTZENA PORTU lesakarrak urtea beteko dute maiatzaren 6an. Zorionak eta auniz urtez familia osoaren partetik. Muxu potolo bat.



ELORRI eta AIERT AROTZENA PORTU lesakarrak urtea beteko dute maiatzaren 6an. Muxu haundi-haundi bat Orti eta Lexuri anaia-arreben partetik. Zeinen ongi pasako dugun berriz ere Sagarditxikin!




Nire ahizpa ZIHARA TABERNA URRA lesakarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak eta ongi pasa Laida, atta eta amattoren partetik.




Aurtizko OLAIA ALTZURI MAKUSOK maiatzaren 2an 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.



Igantziko URKO TELLETXEA SEIN gure pottoko tikiak urtea bete du apirilaren 30ean. Auniz urtez Kemen eta Enaitzen partetik.



DANIELA CALVO ARANZADIK apirilaren 26an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat ama, aita, Niko eta Mugerdiko guztien partetik.




IMANOL BIURRARENA ORTIZEK maiatzaren 13an 7 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu handia.



NAITZE ORMAZABAL MIKELARENAK 2 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak bitxito. Muxu handi bat gure printzesari ataxi, amatxi eta izebaren partetik.



LOREA GOMEZ GOIETXE sorgintxoak hiru urteko xakua beteko du maiatzaren 4an. Auniz urtez familiaren partetik!



Izozki goxoeikin ospatuko dugu ETXAHUN OLAETXEA ZATOREN bigarren urtebetetzea! Txokolatezko mila muxu amatxi Mikeli eta Beko Errotako guztien partetik!

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erropketa

www.ttipi.net

4 ERROPKETA

8 ERROPKETA

Zure negozioaren berri mundu guztiak izan dezan

Bezere berriak - Berehalako emaitzak

854€*

2 ALDITAN INTERESIK GABE

427€ x 2 hilabete

*2012/05/31 bitarte balio du

*BEZa sartu gabe

948 635 458
publi@ttipi.net

AUKERA PAREGABEA

PACK PREMIUM | EGITZ eta BANATU!
Disainatu, inprimatu eta 10.000 ekulata funtzionatzen
Aldibidez **BAZTAN**
(134,50€ x 2 alditan) **389€**

PACK PLUS | EGITZ eta BANATU!
Disainatu, inprimatu eta 3.400 ekulata funtzionatzen
Aldibidez **BAZTAN**
(134,50€ x 2 alditan) **389€**

PACK AMIA | EGITZ eta BANATU!
Disainatu, inprimatu eta 1.000 ekulata funtzionatzen
Aldibidez **BERA**
(134,50€ x 2 alditan) **199€**

PACK
egin eta banatu

- Disainu profesionala
- Esku-ori pertsonalizatuak
- Koloretan inprimatuak
- Banaketa masiboa zure nahi duzun herrietan

MAIATZAK
5

ABIBA DISKO JAIA

DJ'S, DANTZARIAK, BIDEOAK, ARGIA...

01:00 - 9€

MAIATZAK
12

LURDJOTAK

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik. 18:00ak arte

MAIATZAK
26

OIHAN VEGA

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

EKAINAK
16

EKAINEAN

BONGO BOTRAKO



garagardategia

Datuak berrikuntza eta jarduera publikoaren aldean.
Kontakututa: 91 533 0000

ZURE BIZITZAKO UDARIK HOBERENA!

Aurrerago zure bizitzako udarik
hoberena izan daiteke.

Acorn Languagesen, hain onak
dirudi hizkuntzak ikasgai uzteko
moduak eta ikasgaiak ikasgai
hain zailak.



Acorn Languagesen, **atzerriko hizkuntza-esperientzia** antolatzen lagunduko dizugu, eta, hala, mintzatzen den lekuan bertan ikasiko duzu aukeratutako hizkuntza, kultura berri bat ezagutzeko eta bertze herrialde batzuetako lagunekin batean bizitzeko. Horretarako, ikasten ari zaren hizkuntzan erabat murgiltzea bermatzen dizun programa bat erabiltzen dugu.



Edo nahiago izanez gero, apunta zaitez **uztailerako ikastaro trinko** batean; horri esker, zure hizkuntza-irabazimendua hobetuko dituzu, zure udako agenda sobera aldatu gabe.



Eta **tikientzat dilerentsioa** eta jarduerak, dena **ingelesez**.



Jakin nahi duzu zer nolako hizkuntza-maila duzun?
Anima zaitez gure webgureko maila-testa egitera.

www.acornlanguages.com

Hurbil zaitez gu ezagutzera!



acQrn
Quality Language Learning